



bell
hooks
FEMINISMOA
DENON
KONTUA
DA
POLITIKA
PASIO

Hitzaurrea:
Mari Luz Esteban

Katakrak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

bell hooks

***FEMINISMOA
DENON KONTUA DA***
Politika pasio

bell hooks

***FEMINISMOA
DENON KONTUA DA***
Politika pasio

Itzultzailea:
Amaia Apalauza Olo



katakarak

liburak

Jatorrizko izenburua: *Feminism is for Everybody. Passionate Politics*

Lehen edizioa: *Feminismoa denon kontua da. Politika pasio*

Egilea: **bell hooks**

Jatorrizko lizentzia: © Taylor & Francis Group SLL. All Rights Reserved. Authorised translation from the English language edition published by Routledge, a member of the Taylor & Francis Group SLL.

Argitalpen honen lizentzia: **CC BY-SA 3.0**

Barruko argazkiaren egilea: **Jone Arzoz Gamio**

Barruko argazkiaren lizentzia: **CC-BY-SA 3.0**

Itzulpena: **Amaia Apalauza Ollo**

Azalaren diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Zuzenketa: **Iñigo Roque Eguzkitza**

Lehenengo edizioa: **2018ko azaroa**

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Lan honek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bat jaso du.

ISBN: 978-84-16946-21-1

Lege gordailua: NA 2775-2018

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
HITZAURREA (Mari Luz Esteban).....	17
FEMINISMOA DENON KONTUA DA	25
Atarikoak. Hurbildu zaitez feminismora.....	27
BAT	
Feminismoa. Non gauden	33
BI	
Kontzientzia hartzea.	
Jarrera etengabe aldatzen	41
HIRU	
Ahizpatasuna boteretsua da oraindik	49
LAU	
Heziketa feminista, kontzientzia kritikoa garatzeko.....	57
BOST	
Geure gorputzak, gu geu.	
Ugalketa-eskubideak.....	65

SEI	
Kanpoko eta barneko edertasuna	73
ZAZPI	
Klase-borroka feminista	81
ZORTZI	
Feminismo globala	91
BEDERATZI	
Emakumeak lanean	97
HAMAR	
Arraza eta generoa	105
HAMAIIKA	
Indarkeria deuseztatzea	113
HAMABI	
Maskulinitate feminista	121
HAMAHIRU	
Gurasotza feminista	129
HAMALAU	
Ezkontza- eta bikote-harremanak askatzen.....	137
HAMABOST	
Sexu-politika feminista. Elkarrekiko askatasunean oinarrituriko etika.....	147
HAMASEI	
Zorion betea. Lesbianismoa eta feminismoa.....	157
HAMAZAZPI	
Berriz maitatzea. Feminismoaren bihotza.....	165
HEMEZORTZI	
Espiritualtasun feminista	171
HEMERETZI	
Feminismo aurrerakoia	177





ARGITALETXEAREN OHARRA PASIO HUTSA

Diotenez, sor Juana Inés de la Cruz (1650-1645) hil zenean, bukatu gabeko poema bat aurkitu zuten beraren zeldan. Infekzio batengatik hil zen. Berrogeita bost urte zituen, eta bere komentuko ahizpa gaixoak zaintzeaz arduratzen zen. De la Cruz bere gaitasun intelektualengatik eta bere garaiko emakumeek zituzten muga batzuk gainditzeagatik izan zen ezaguna, eta bere ezizenen artean zeuden *Ameriketako fenixa* eta *Hamargarren musa*. Sasiko alaba izan zen, eta horregatik ez dakigu zein den, zehazki, haren jaiotza data. Baina badakigu haren aita militar euskaldun bat zela, eta ama kreole mexikar bat. Lau urterekin ikasi zuen irakurtzen; zortzi urterekin, bere amaren aitaren liburutegi osoa irakurrita zeukan, eta gizonez jantzi zen unibertsitatean izena emateko. Bestela ikasterik ez zuenez, hemezortzi urterekin karmeldarren komentu batean sartu zen. Handik hilabete batzuetara alde egin zuen, gaixorik, hango diziplinek eta autoflagelazioek ez zutelako ordenaren fundatzailearen izpirituarekin,

Teresa deunarekin, deus ikustekorik. Hemeretzi urte-
rekin, jeronimotarren ordenako moja egin zen.

Haren olerkigintza eta antzerkigintza oso gorai-
patuak izan ziren (gabon kantak egin zituen gaztelania
barrokoko eta nauhatleko esamoldeak nahastuta).

Honela zioen Juanak bere olerki batean:

*Ez naiz uste duzuen,
ez bada han beste
izate bat eman didatela zuen lumek
eta beste hats bat zuen ezpaine.*

Ez al da sor Juana de Inés de la Cruzek idatzi
zuen hori bera gertatzen feminismoarekin zehazki eta
mugimendu eraldatzaileekin oro har? Hezur-haragizko
bertsioarekin batera beste bizpahiru harri-kartoizko da-
biltzala kalean? «Benetako» feminismoa estaltzen dela
lastozko karikaturekin eta argizarizko imitazioekin?
Bada, horretara dator liburu hau: lastozko karikatu-
ren eta argizarizko imitazioez ahaztu, eta askapena
nahi ez dutenen lumen eta ezpainen gainetik hezur-
haragizkoa aurkeztera. Eta liburu gutxik duten bertute
batekin, gainera: balio du feminismoan murgilduta da-
goenarentzat eta balio du feminismoari orain arte oso
urrundik segitu dionarentzat, balio du digitalki soilik
jaso duenarentzat eta eskuetan kotoiak eta margoa
hartuta pankartak margotzen eskuak zikindu dituena-
rentzat, balio du gaiari buruzko hamaika solasalditan
egon denarentzat eta berriki jakin-mina izan duena-
rentzat.

Iparrorratza

bell hooksek feminismoak eraldatu nahi duen
munduaren eskema osoa egiten du: zein da feminis-

moaren joko zelaia? Zer harreman dago feminismoaren eta sexualitatearen artean? Eta gurasotzarekin zer harreman du? Eta amatasunari buruz zer eztabaida egon dira? Eta gizonek zer toki izan behar dute honetan guztian? Eta plazerarekin zer egingo dugu? Zer ibilbide egin du feminismoak? Zer muga izan ditzake? Zer harreman dago generoaren eta klasearen artean? Eta ordezkartzaren eta eraldaketaren artean? Zer zerikusi dute feminismoak eta espiritualtasunak?

Liburu honek badu, gainera, beste bertute bat: darabilen ahotsa. Tresna arriskutsu bat erabiltzen du hooksek: hirugarren pertsonan emandako azalpen orokorretik lehenengo pertsonara jauzi egiten du. Arriskutsua da gizartearen eraldaketa sakonen tempoa eta norberaren bizitzarena ez daudelako frekuentzia berean, ziklo historikoak luzeagoak direlako. Baina hooksen lehenengo pertsona horrek beraren gogoeten gertuko lekuko izatea ahalbidetzen digu; berak feminismoan zehar egindako bidaiaren esperientziaren, izan zituen eta dituen eztabaiden eta tentsioen narrazioak feminismoaren sakonera eramango gaitu. Guk geuk biziko ditugu esperientzia horiek.

Baliabide hori ezin du edonork erabili, baina, hemen, hogeita hamar liburu idatzi dituen emakume batez ari gara, teklatuari lotutako ekoizle batez.

Topiko triste bat da liburu bat tresna bat dela esatea. Baina bistan da honako hau tresna ia hutsezina dela: lur orotako ibilgailu bat da.

Orain da gure garaia: 2018-03-08

Duela bi urte eta erdi liburu hau argitaratu izan balitz, salbuespen bat litzateke euskal edizioaren testuinguruan. Argitaratu berriak ziren *Gure genealogia feministak* (Miren Aranguren, Edur Epelde eta Iratxe Re-

tolaza: 2015), eta jada tamalez gure artean ez dagoen Edo! argialetxeak bere ibilbidea hasi zuen *Genero-ariketak* (2013) eta *Dalloway andrea eta Emakumeen lanbideak edo Etxeko Aingerua hiltzea* (Virginia Woolf, Itziar Diez de Ultzurrunek eta Ana Isabel Moralesek itzulita: 2014) liburuekin. Baina, osterantzean, hutsune nabarmena zegoen testu feministen artean, bereziki mundutik zetozen ahotsetan. Are gehiago, feministen testuak alde batera utzi eta emakumeek sortutakoei begiratu-ta, nola zen posible, adibidez, zalapartarik sortu gabe Klasikoak bilduma ederrean 130 liburutatik 4 soilik izatea emakumeek idatziak (Hannah Arendt, Dian Fossey, Ève Curie eta Rachel Carson)?

Zorionez, 2016ko udazkenetik, salbuespen hura bestelako kadentzia bat hartzen hasi da. Susa argialetxearen Lisipe bildumarekin, batetik (testu originalekin eta itzulpen batzuekin), eta Jakinen eta Elkarren Eskafandra bildumarekin, bestetik (feminismoaren klasikoen itzulpenekin), euskarazko saiakera feministaren ekoizpena aldatzen ari da. Asko zabaldu zen Chimamanda Ngozi Adichieren *Guztiok izan behar-ko genuke feminista* ere (Hik Hasi: 2017). Antzerako joera ikus dezakegu definizioz feministak ez diren bilduma berrietan ere; esaterako, Munduko Poesia Kaiaretan, Klasikoetatik urrun, lehenengo 24 kaiaretatik 10 dira emakumeek idatziak. Hala ari gara geu ere Iruñerri-ahalegintzen: behar dugun beste mundu hori zelulosa-tik ere hazten.

Tamalez, ez da feminismoa saiakeran lantzeke dagoen gai bakarra (ekonomia, filosofia, marxismoa, energia ereduaren krisia... baditugu Jakin eta Gaiak, baina tokitan gaude geure liburu-dendetako beste er-daretako ekoizpenetatik).

Segi dezagun, beraz, lanean, liburu honentzat Mari Luz Estebanek idatzi duen hitzurre argigarria lagun, dauzkagun aukerekin eta erronkekin serio. Kontinente guztietan ari dira politikatik munstro nardagarriak indartzen, baina hau da, baita ere, duela hiru bat hamarkadatatik hona emantzipazio hipotesi indartsu bat sortzen ari den unea. Mundu mailan ari da gertatzen, baita Bidasoaren bi hegietan ere, nabarmen, 2018ko martxoan edo Manadaren epaiketan ikusi dugun bezala Iruñerrian. Hemen dago hipotesi morea: hura elikatzeko eta indartzeko garaia da, Iturramako tekno-pop talde hark dantzatzen zuen bezala.

Iruñea
2018ko azaroa

HITZAURREA: FEMINISMOA ERABERRITZEKO GONBIDAPENA

Iraganetik ikasteko ausardia izan eta gure garaia aurreratzeko aukerak irudikatzea. Hori da bell hooksek liburu honetan proposatzen diguna, eraberritze lanari etenik gabe ekiten dion feminismo baten alde eginez, zeinean emakumeak ez ezik gizonak eta umeak ere aske izan daitezkeen. Feminismoa singularrean, guztiona, nahiz eta bere baitan proposamen ezberdinak egon edo gatazkak bizi izan. Horretarako, berak ondo ezagutzen duen Ipar Amerikako mugimendua hartzen du aztergai; hori bai, feminismo erradikala eta kontserbadorea bereiziz eta bere burua lehenengora lerratuz; izan ere, beraren ustez, urteen joanean, borroka feminista pulstu erradikala galdu eta patriarkatu kapitalista konbentzionalaren menpe gelditu da.

Bide hori egiteko, hainbat ideia eta erronka aletzen joaten da lerroz lerro, baina, hasteko, politika feminista aurrera eramateko aipatzen duen zailtasun orokor bat nabarmenduko nuke: ustezko etorkizun batean posible litzatekeena gaur egungo gizartean ahokatu nahi dugula, errealitatea eta egiturak kontra

izan arren. Honela dio: «Nolatan izango dira imajinatu ezin dezaketen zerbait? (...) Justizia sozialaren aldeko mugimendu iraultzaileetan maiz gertatu ohi den bezala, abilagoak gara arazoari izena jartzen konponbideak planteatzen baino» (125. or.).

Ipar Amerikako eta Euskal Herriko feminismoen artean badago alde franko. Gure herria txikia da, eta horrek kanpotik datorrenari begira egotera eramaten gaitu; halere, feminismoa, gurean, ia edozein eremutan dago txertatuta, indarra eta sormena baditugula ere aise erakutsi dugu, eta erradikaltasun maila bat behintzat mantendu dugu. Beste alde batetik, ohikoa izan dugun kultura politikoa tarteko, asmatu dugu elkarrekin egoten (edo behintzat elkarri muturka denbora guztian egon barik), beste leku askotan gertatzen ez den bezala. Eta horrek dituen abantailen artean nabarmenduko nuke posizio feministen hibridazio interesgarriak gauzatzuz joan garela.

Aldeak alde, liburu honetan dagoen begiradak interes handia dauka edozein feministarentzat. Originala da hooks, termino horren zentzurik positiboenean, planteamendu kritikoa, zabala eta propioa duena. Eta, ados egon edo ez, ezin iradokitzaileagoak dira beraren argudioak. Gainera, gai guztiak kabitzen dira autore honen proposamenean, ohikoak direnak eta hain ohikoak ez direnak: harreman lesbiko eta heterosexualek teoria feminista berri eta konplexu baten aldarritik erlijio patriarkala zalantzan jartzen duen osotasun espiritual feministara; umeen zaintza eta hazkuntza feministatik maskulinitate feministara; emakumeen gorputzak bereizteko eta kontrolatzeko interbentzioak (ablazioa, kirurgia estetiko...) herrialdeen arabera mailakatzen dituen paternalismo neokolonialaren kontrako jarreratik benetako feminismo global baten

aldeko apustura... Eta, egiten duen diagnostikoa beste testuinguru bati dagokion arren, haren hausnarketak baliagarriak iruditzen zaizkit gurean ere aplikatzeko. Hain justu, hori da nire helburua hitzaurre honetan, geurean ere erabilgarriak izan daitezkeen zenbait ideia azpimarratzea.

Arrazaren gaiak lehentasun osoa dauka autore honen ibilbidean. Nahiz eta Euskal Herrian Angela Davis ezagunagoa izan, bell hooksen ekarpena funtsezkoa izan da arlo horretan, 1981. urtean *Ain't I a Woman: Black Women and Feminism* [Ez al naiz emakume bat? Emakume beltzak eta feminismoa] liburuaren argitaratu zuenetik. Gainera, generoa, arraza eta klasea ezin hobeto txirikordatzen ditu bere planteamenduan. Esate baterako, liburuaren egileak salatzen du Ipar Amerikan klase-pribilegioak zituzten emakume zuri erreformistek beren klase bereko gizonen eskubideak eta boterea lortzeari eman ziotela lehentasun osoa, emakume beltz eta pobreen interesen defentsa alboratuz.

Euskal Herrian, feminista abertzaleek zapalkuntza hirukoitzaz (generoa, nazioa eta klasea) hitz egin dute, eta, azken denboran, indarra hartzen ari da arrazaren eztabaida (tentsioen iturri ere izanik), feminismo beltzaren eta postkolonialaren uztarketaren garapena den feminismo dekolonialaren jarraitzaileen eskutik. Argi dago badugula zer eztabaidatu eta zer azertu eremu horietan, baina esango nuke faktore gehiago sartu eta elkarrekin harremanetan jarri behar ditugula analisisian. Izan ere, migratzaile/pertsona arrazializatuen eta errefuxiatuen auziarekin batera, Europan dauden bestelako barne-hierarkiak ere aintzat hartu behar lirateke, hala nola hizkuntza minorizatuen edota independentzia nahi duten herrien auzia, eta horrek nahitaez

anizkoizten, konplikatzen eta zailtzen digu azterketa eta jardun politikoa.

Enpleguaren arloan ere, gogoeta egiteko gonbita egiten digu bell hooksek. Haren abiapuntua funtsezkoa da: enpleguaren bidez bakarrik ez da etorriko gure askapena, baina, aldi berean, independentzia ekonomikoa nahitaezkoa da. Kapitalismo neoliberalaren garaian, zail samarra egiten zaigu defendatzea emakumeok enpleguaren kate basatian geure burua immolatu behar dugunik, are gutxiago jakinda zein diren enplegu askotako lan-baldintzak. Baina, niri behintzat, kezka iturri zaizkit, esate baterako, amatasunaren ideologia intentsibo batean oinarriturik emakumeen autonomia edota etorkizun ekonomikoa bigarren mailan kokatzen dituzten emakumeen/feministen diskurtsoak.

Beste gai batera etorri, oso kritikiko agertzen da bell hooks inibertitate-ikasketa feministen eremuan Ipar Amerikan gertatu denarekin. Emakumeen ezagutza eta lan akademikoa aitortzeko eta pedagogia eta curriculum arloan dauden genero-ezberdintasunen aurka borrokatzeko egindakoa baloratzen du, baina hainbat ondoriorekiko zalantza erakusten du: «Ironikoa bada ere, feminista iraultzaileen pentsamoldeak testuinguru akademikoan izan zuen harrera eta onepen onena; nolana ere, testuinguru horretan teoria feminista iraultzailea lantzen jarraitu arren, teoria hori ez zen iritsi jendearengana» (37.-38. or.). Ikasgelak lehenago kontzientziatze-taldeak izan zuen lekua bereganatu zuen; leku pribilegiatua eta klaseak markatua bihurtu zen, eta, ondorioz, eztabaidatzeko eta ikasteko eredu horrek zeukan masa-potentziala galdu zuen.

Argi dut ikasketa horiek Euskal Herrian ere hedatu izana feminismo osoaren lorpen eta legitimaziotzat hartu behar dela. Izan ere, hainbat gaztek,

antolatuak zein ez, beren formakuntza feminista osatzeko eta lan-merkatuan sartzeko aukera ikusi dute graduondokoetan. Baina egia da unibertsitatean eta unibertsitatetik kanpo garatu den ikerkuntza feminista, sakontze eta sofistikazio teorikoa elikatzeke balio izan duen era berean, jakintzaren espezializazioa eta bereizketa ekarri, aditu feministen sistema indartu eta ezagutza-zirkuituen distortsioa eragin duela, non, oro har, ikusezin bihurtzen diren ikerketa-esparruetatik kanpo dauden feministen ekarpenak, jakintza bera pobretuz eta elitizatuz.

Sexualitateari dagokionez, XXI. mendera begirako teoria feminista berri baten premia ikusten du, gaurkotuagoa, konplexuagoa. Jakitun da teoria berritzaileak egon badaudela, baina, beraren esanetan, praktika sexual askatzailea zer den jakin barik jarraitzen dugu. Iraultza sexualak emakumeoi bizitza aldatu zigun, bai, baina gizonak horretaz egin zuten eta egiten jarraitzen duten irakurketa murrizta salatzen du: askok eta askok emakumeak sexualki burujabeak eta aktiboak izate hutsarekin lotu ohi dute, berek harreman batean hartu behar dituzten inplikazioei muzin eginez. Eta sexu-ordena berriaren beharra aldarrikatzen du. Halaber, erromantikotasunaren arriskuen eta monogamiaren kontrako teorizazio feminista zabalduz doan testuinguru batean, formula ezberdinak egon daitezkeela iradokitzen du. Garrantzitsuena, berarentzat, berdintasunean eta elkar-aitortzan oinarrituko lirakeen pareen harremanak zelakoak izan behar diren zehaztea litzateke.

Feminismoa denon kontua da. Hori da liburuan zehar sakonduz doan gidalerroa. Horrela, umeen eskubideen defendatzaile eta umeen menderakuntza patriarkalaren salatzaile amorratua da, neskek eta

mutilek maitasuna ezagutu eta ziur eta aske bizitzea ahalbidetzen duen familia baten alde oihu eginez. Eta gai ahaztuenetan eta delikatuenean ere sartzen da, adoretsu. Gisa honetan, emakumeok indarkeria mota guztien eta bereziki indarkeria matxistaren justifikazioan dugun ardura gure gain hartzera animatzen gaitu, emakumeen arteko ahizpatasuna goraiatzeaz gain gure sexismo barneratuaren eta patriarkatuarekiko leialtasunaren kontra borroka eginez.

Beste alde batetik, maskulinitate feminista barne hartzen duen ikuspegia aho betean aldarrikatzen du. Problema ez datza gizonengan, gogorazten digu. Hain justu, jarraitzen du, patriarkatu kapitalista supremazista zuriari gizonen kontrakoa ez den pentsamendu feminista deuseztatzea interesatu zaio eta interesatzen zaio batez ere. Beste era batera esanda, gizonak dituzten eskubideak lortzea baino gehiago, sistema errotik aldatzea litzateke erronka.

Horrekin loturik, emakumeekin identifikatzen den emakumearen figura aztertzen eta mahaigaineratzen du, bere sexu-aukeretatik harago existentzia ontologikoa gizonen aitortzatik libre eraikitzen duen emakumea. Ez da horretarako lesbiana izan behar, nahiz eta berak ikaspen hori lesbiana boteretsu eta eskuzabalengandik jaso, jakitun baita portaera sexualek, transgresorenek ere, ez zaituztela berez politikoki aurrerakoi bilakatzen.

Eragiteko esparru berrien edo berrituen inguruko gogoetak ere oparitzen dizkigu bell hooksek. Horren adibide bat modaren arloari buruzkoa da. Emakumeen gorputzaren gaineko pentsamendu sexista zalantzan jarri izana esku-hartzerik boteretsuena iruditzen zaion era berean, edertasunaren eta modaren industria okupatzearen aldekoa da, patroï patriarkalei aurre egin eta

benetako askatasuna erdieste aldera. Eta horretaz oso gutxi hausnartu izan dugu.

Erregu moduko bat ere egiten digu: «Feminismoa sostengua galtzen ari da mugimendu feministak galduak dituelako definizio argiak. Baina badauzkagu definiziook. Aldarrikatu ditzagun. Partekatu ditzagun. Has gaitezen berriz. Sor ditzagun kamisetak, pegatinak, postalak eta hip-hop musika, telebista- eta irrati-iragarkiak, esloganak eta kartelak, eta feminismoa munduan barrena zabaltzeko orotariko argitalpenak. Zabaldu dezagun feminismoaren mezu simple baina boteretsua: feminismoa zapalkuntza sexista deuseztatzeko mugimendu bat da. Has gaitezen hortik. Sor dezagun mugimendua berriro» (39.-40. or.), dio une batean. Eta, azken urteetan, Espainiako estatuan eta Euskal Herrian bizitzen ari garen mobilizazioei erreparatuta, erraza litzateke pentsatzea oker dabilela. Ez nago ziur. Gertatzen ari dena mugarririk bat da, ez dut dudarik, eta ez bakarrik mobilizazioek hartu duten tamaina eta tankeragatik, edo feminismoa batu diren emakume gazteengatik. Gertatzen ari denak ez du atzera martxarik, ez epe laburrean, behintzat. Baina, euforia eta diagnostiko positiboegiak alde batera utzirik, zalantza eta ziurgabetasun asko zabalduta zaizkigula ere uste dut. Batetik, ez dakigu zein izango den indar kontserbadore eta neoliberalen (edota inguruan ditugun gizonen) erreakzioa; bestetik, ez dago argi nola bateratuko ditugun espontaneotik asko duen protesta eredu bat eta gure aldarriak sortzeko eta denboran mantentzeko gaitasuna; hirugarrenik, gehituko nuke alde handia dagoela mobilizazio horien guztien handitasunaren eta beren emaitza praktikoen artean. Azken batean, aldarri zehatzetan edota neurri legal edo sozialetan ez dugu hainbeste aurreratu, eta neure

buruari galdetzen diot ea zergatik ez ote dugun da-
goeneko aprobeztatu sortu dugun indarra gure artean
adosteko eta gizarteratzeko neurri-sorta zehatz eta gu-
txieneko bat. Zeren zain gaude?

Aipaturiko ideia guztien osagarri litzatekeen
hausnarketa batekin amaituko dut. Ipar Amerikan fe-
minismoa bizimodu bihurtu zela dio eta, horren bidez,
emakume gehiagorengana heltzea erraztu bai baina
ondorio ezkor bat ere sortu zela: pentsatzea posible
zela feminista izatea kulturaren edo gizartearen mui-
na auzitan jarri gabe. Ez ote da gertatzen ari gurean
antzerako zerbait?

Irakurraldi on!

Mari Luz Esteban
Basauri, 2018ko urria

**FEMINISMOA DENON KONTUA DA
POLITIKA PASIO**

ATARIKOA: HURBILDU ZAITEZ FEMINISMORA

Noan lekura noala, nor naizen eta zer egiten dudan jakin nahi duen jendeari harrotasunez esaten diot idazlea, teorialari feminista eta kultura-kritikaria naitzela. Filmei eta herri-kulturari buruz idazten dudala, hedabideen mezuak analizatzen ditudala. Jende gehienarentzat erakargarria da hori, eta gehiago jakin nahi du. Denok joaten gara zinemara, denok ikusten dugu telebista, denok ibiltzen gara orri-pasa aldizkarietan, eta denok badugu iritzirik jasotzen ditugun mezuei buruz, ikusten ditugun irudiei buruz. Parean suertatzen zaizkidan publiko askotarikoek aise ulertzen dute kultura kritikatzear datzala nire jarduna, pasioz idazten dudala (jende askok idatzi nahi du, eta idazten du). Baina, teoria feministaz denaz bezainbatean, ez dute deus galdetzen. Eta denetarikoak entzuten ditut feminismo sorginaz eta feminista gaiztoez: gizonak gorrotatzen dituztela, naturaren eta are Jainkoaren aurka egin nahi dutela, denak lesbianak direla, enplegu guztiak bereganatzen ari direla eta gizon zuriei bizitza

zailtzen dietela, deusetarako aukerarik gabe geratzen ari direlakoan.

Pertsona horiei galdetzen diedanean ea zer liburu edo aldizkari feminista irakurri dituzten, ea zer hitzaldi feminista entzun dituzten, ea zer aktibista feminista ezagutzen dituzten, haien erantzunetatik ondorioztatzen dut zeharbidez jaso dutela feminismoaz dakiten guztia, ez direla nahikoa hurbildu mugimendu feministara benetan zer gertatzen den jakiteko, feminismoa zertan den jakiteko. Gehienek pentsatzen dute feminismoa gizonak bezalakoak izan nahi duten emakume haserretuen multzo bat dela. Ez dute pentsatzen feminismoak eskubideez diharduenik, emakumeok eskubideak lortzeaz diharduenik. Feminismoaz hitz egiten dudanean, gertutik eta bertatik bertara ikusita dakit gogo onez entzuten didatela; nolnahi ere, gure elkarrizketak amaitu orduko esaten didate desberdina naizela, gizonak gorrotatzen dituzten «benetako» feminista haserretu horiek ez bezalakoak. Azaltzen diet edozein feminista bezain erreala eta erradikala naizela ni ere eta feminismora hurbiltzen ausartuz gero ikusiko dutela ez dela pentsatzen duten bezalakoak.

Halako topaketa batetik ateratzen naizen aldiroro, esku artean izan nahi nuke liburu bat, entzuleei esateko: «Irakurri liburu hau, eta ulertuko duzu zer den feminismoa, zertan datzan mugimendua». Liburu zehatz, irakurterraz eta ulergarri bat; ez luzea, hizkera eta hizkuntza akademiko zailekoa, baizik eta irakurtzen erraza, sinplista izan gabe. Pentsamendu, politika eta praktika feministek bizitza aldatu zidatenetik nahi izan dut halako liburu bat, maite dudana jendeari eskaintzeko, hobeki uler dezaten gure kausa, nire uste osoa duen feminismoa, nire bizitza politikoaren funtsa.

Beti nahi izan dut jendeak erantzun bat izatea «Zer da feminismoa?» galdetzen duenean, beldurrik edo fantasiarik gabeko erantzun bat. Beti nahi izan dut jendeak honelako definizio bat izatea eta behin eta berri errepikatzea: «Feminismoa sexismoa, esplotazio sexista eta zapalkuntza deuseztatzeko mugimendu bat da». Maite dut definizio hori. Duela hamar urte baino gehiago argitaratu nuen, *Feminist Theory: From Margin to Center* [Teoria feminista: bazterretik erdigunera] liburuan. Maite dut, argi eta garbi azaltzen duelako mugimenduaren funtsa ez dela gizonen aurkakoa izatea. Garbi uzten duelako arazoa sexismoa dela. Eta argitasun horrek laguntzen digu gogoratzen denok, emakume zein gizon, jaio ginenetik sozializatu gaituztela pentsamolde eta ekintza sexistak onartzeko. Alegia, emakumeak gizonak bezain sexistak izan daitezkeela. Hori ez da aitzakia edo arrazoi bat gizonen nagusikeria zurrizko, baina ikuspegi ezjakina eta okerra litzateke mugimendua hain era sinplistan ulertzea, hau da, emakumeek gizonen aurka mamitutako mugimendu gisa ulertzea. Patriarkatua deuseztatzeko (horra sexismo instituzionalizatua izendatzeko beste modu bat), argi izan behar dugu denok betikotzen dugula sexismoa eta hala izango dela harik eta gure pentsamendu eta ekintza sexistak alboratu eta haien orde z pentsamendu eta ekintza feministak hautatzen ez ditugun arte.

Gizonek, talde gisa, patriarkatutik jasotzen dute batez ere etekina, barneratuta baitaukate emakumeon gainetik daudela eta gure gainetik agin dezaketela. Baina etekinok badute prezioa. Gizonek, patriarkatutik jasotzen dituzten opari horien truke, emakumeok beren mendean hartu, esplotatu eta zapaldu behar gaituzte, indarkeriaren bitartez, baldin eta patriarkatuari

bere horretan eutsiko badiote. Gizon askorentzat, zaila da patriarkala izatea. Gizon gehienentzat eragozgarria da emakumeek gorrotoa eta beldurra sentitzea, gizonak emakumeen aurka indarkeria erabiltzea, are indarkeria hori betikotzen duten gizonak egotea. Baina beldurra diote abantailok galtzeari. Ez dakite zer gertatuko litzatekeen beren gertuko munduan patriarkatua aldatuko balitz. Hori dela eta, errazagoa zaie, pasiboki bada ere, gizonen nagusikeria babestea, nahiz eta badakiten, buru-bihotzez jakin ere, oker daudela. Gizonak behin eta berriz esan izan didate ez daukate-la arrastorik ere zer nahi duten feministek. Sinesten diet. Sinesten dut gai direla aldatzeko eta garatzeko. Eta sinesten dut feminismoaz gehiago jakingo balute ez lioketela beldurrik izango, mugimendu feministan aurkituko luketela patriarkatuaren kateetatik askatzeko esperantza.

Gizon horientzat, gazte zein adineko, eta gu guztiontzat idatzi dut eskuliburu labur hau, hainbeste urtean itxaron dudan liburua. Idatzi beharra neukan, haren zain egon naizen arren ez baitzen agertzen. Eta, halako libururik gabe, ez geneukan modurik herrialde honetako jendearengana iristeko, eta, bien bitartean, jende horrek guztiak egunero jasotzen ditu kontraeraso antifeministak, mugimendua gorrotatzeko eta haren aurka paratzeko deiak, mugimenduz deus gutxi jakin arren. Liburuxka feminista gehiago behar genituzke, panfleto eta liburu irakurterraz gehiago, feminismoaz dena kontatzen digutenak; liburu hau feminismoaren aldeko beste ahots pasioz beteriko bat litzateke. Feminismoaren ahotsa zabaltzeko eta munduak hartaz gehiago jakiteko, kartelak behar genituzke, eta iragarkiak aldizkarietan, iragarkiak autobus, metro eta trenetan, iragarkiak telebistan. Oraindik ez

gara horretara iritsi. Baina horixe behar dugu feminismoa zabaltzeko, mugimendua denon buru-bihotzetan sar dadin. Aldaketa feministak gure bizitza guztiak ukituak ditu jada, onerako ukitu ere. Eta, hala ere, haren alde onak ahazten zaizkigu, gauza txarrak besterik ez baitugu entzuten feminismoaz.

Gizonen nagusikeriari aurre egiten hasi nintzeanean, pentsamolde patriarkalari (eta nire bizitzako ahots patriarkal indartsuenari, hots, nire amarenari) aurre egiten hasi nintzeanean, nerabe bat besterik ez nintzen, suizida, depresioak joa, galdua, ez bainekien nola zentzua topatu nire bizitzari, nola leku bat topatu niretzat. Feminismoa behar nuen, berak emango baitzidan berdintasunaren eta justiziaren oinarria. Nire amak ere bat egin zuen pentsamolde feministarekin. Konturatu da beraren sei alabok hobeki bizi garela feminismoari esker. Konturatu da zein diren mugimendu feministaren promesak eta itxaropenak. Eta promesa eta itxaropen horiexek partekatu nahi nituzke zuekin, denekin, liburu honetan.

Imajinatu bizi garen munduan ez dagoela menderakuntzarik, emakumeak eta gizonak ez direla beti berdinak baina mutualitatearen ikuspegia dela gure arteko harremanak itxuratzen dituen *ethosa*. Imajinatu bizi garen munduan denok izan gaitezkeela garen hori, bakea eta aukeratzeko eskubidea nagusi direla. Halako mundu bat ez du iraultza feministak bakarrik sortuko; beharrezkoa dugu arrazakeria, klase-elitismoa eta inperialismoa deuseztatzea. Dena den, iraultza feministari esker, emakumeok eta gizonak guztiz autorrealizatuko gara, eta gai izango gara maitasunezko komunitate bat eratzeke, elkarrekin bizitzeko, gure askatasun- eta justizia-ametsak betetzeko, denok «berdin sortuak» garela dioen egia gorpuzteko. Hurbildu zaitez. Ikusi

nola eragiten eta aldatzen duen feminismoak zure bizitza, denon bizitza. Hurbildu zaitez, eta ezagutu lehen eskutik zertan datzan mugimendu feminista. Hurbildu zaitez, eta konturatuko zara: feminismoa denon kontua da.

BAT

FEMINISMOA NON GAUDEN

Laburrean esanda, feminismoa sexismoa, esplotazio sexista eta zapalkuntza deuseztatzeko mugimendu bat da. Definizio horixe eman nuen, duela 10 urte baino gehiago, *Feminist Theory: From Margin to Center* lanean. Garai hartan, espero nuen mundu guztiak definizio orokor hori erabiliko zuela aurrerantzean. Gizonak etsaitzat hartzen ez zituelako atsegin nuen. Arazoa sexismoa dela onartuz, gaiaren muinera iristen zen. Praktikotasunetik begiratuta, definizio horrek pentsamolde eta ekintza sexista guztietan kokatzen du arazoaren muina: emakume zein gizonenak, haur zein helduenak. Definizio aski zabala izanik, sexismo instituzionalizatu sistemikoa zer den ulertzeko ere bali du. Ez da definizio itxi bat. Feminismoa ulertzeko, beharrezkoa da sexismoa ulertzea.

Feminismoaren aldeze guztiek ongi dakitenez, jende gehienak ez daki zer den sexismoa, eta dakitenez ere ez dute arazotzat hartzen. Jende askok eta askok uste du emakumeek gizonen berdinak izateko egiten duten ahalegina besterik ez dela feminismoa.

Eta gehiengo handi batek uste du feminismoa gizonen aurkakoa dela. Feminismoaren gaineko ezjakintasun horretan islatzen da, hain zuzen, zer-nolako errealtatea jasotzen duen jende gehienak feminismoari buruz hedabide patriarkaletatik. Jendearengana iristen den feminismoa batik bat genero-berdintasunarekin konprometituriko emakumeena da; alegia, lan beraren truke soldata bera izatea eta, batzuetan, baita etxeko lanak eta gurasotza partekatuak izatea ere aldarrikatzen dutenena. Jendeak ikusten du emakume horiek zuriak eta ekonomikoki pribilegiatuak direla. Hedabideetan entzuten du emakumeen askapenaren ardatzak aborturako askatasuna, lesbiana izateko askatasuna, eta bortxaketaren eta etxeko indarkeriaren aurkako borroka direla. Gai guztion artean, jende gehienak bat egiten du langileen arteko genero-ekitatearen ideiarekin: lan beraren truke, soldata bera.

Kontuan hartuz gure gizartean kultura kristaua nagusi dela ororen gainetik, oraindik ere jende askok eta askok uste du Jainkoak nahi izan zuela emakumeak gizonen mende egotea etxeko esparruan. Emakume ugari lan-munduan sartu diren arren, emakume asko familiaburu eta familiako diru-iturri bakarra diren arren, gizonak etxean duen nagusikeriaren logikak bere horretan dirau herrialdearen iruditerian, gizonak etxean egon zein ez. Mugimendu feminista gizonen aurkako mugimendutzat hartzen duen ikuspegi okerrak beste uste oker bat ekarri zuen berekin: patriarkatuak eta pentsamolde sexistak emakumeen eremu guztietatik at egon behar dute. Horixe uste zuten emakume askok, are feminismoan ziharduten batzuek ere.

Egia da gizonen aurkako sentimendua indartsua zela hasierako aktibista feministen artean, gizonen nagusikeriaren aurka amorrutik borrokatzen ziren heinean.

Injustiziaren aurkako amorruak eraman zituen, hain zuzen, emakumeen askapenerako mugimendua sortzera. Hasierako aktibista feminista gehienek (zuriak ia guztiak) gizonekin batera klasismoaren eta arrazakeriaren aurka borrokan ari zirela hartu zuten gizonen nagusikeriaren jatorriari buruzko kontzientzia: gizon haiek askatasunaren garrantzia aldarrikatzen zuten munduaren aurrean, baina, aldi berean, emakumeak beren mende jartzen zituzten. Garbi zegoen gizonen lider izan eta emakumeak beren atzetik ibiltzea nahi zutela, izan sozialismoaren izenean borrokatzen ziren emakume zuriak, izan eskubide zibilen eta beltzen askapenaren alde borrokatzen ziren emakume beltzak, izan indigenen eskubideen alde borrokatzen ziren emakume iparramerikar natiboak. Halako askapenborroka erradikaletan aritzearen ondorioz, emakume progresistei matxinadarako eta erresistentziarako grina piztu zitzaion, eta horrek emakumeen askapenaren aldeko borroka garaikidea antolatuzera bultzatu zituen.

Feminismo garaikideak aurrera egin ahala eta emakumeak konturatu ahala ez zirela gizonak gure gizarteko talde bakarra pentsamolde eta jokamolde sexistak sustatzen zutenak —emakumeak ere izan zitezkeen sexistak—, gizonen aurkako sentimendua mugimenduaren kontzientziatik desagertu zen. Beraz, genero-justizia sortzera bideratu zen indar guztia. Baina, gure pentsamolde sexistari aurre egin ezean, ezinezkoa zen emakume guztiok feminismoaren alde elkartzea. Emakumeek elkarrekin lehiari jarduneko gero, nekez lortuko zen ahizpatasun boteretsurik. Klaseari eta arrazari buruzko eztabaidak errotik aldatu zuen ahizpatasunaren ikuspegi utopikoa, hau da, emakumeak gizonen nagusikeriaren biktima soil gisa hartzen zituen ikuspegia. Klase-desberdintasunei

buruzko eztabaidak hasieratik izan ziren feminismo garaikidean, are arrazari buruzkoak baino lehenago ere. 1970eko hamarkadaren erdialdean, Diana Pressek *Class and Feminism* [Klasea eta feminismoa] artikulua bilduma argitaratu zuen, emakumeen arteko klase-bereizketei buruzko ideia iraultzaile sorta bat. Lan horretan, ez zion garrantzirik kendu feminismoak sutsuki defendatzen zuen ideia nagusiari —«ahizpatasuna boteretsua da»—; besterik gabe, nabarmendu zuen borrokan ahizpa izateko bide bakarra zela emakumeok aurre egitea sexua, klasea edo arraza tarteko elkar menderatzeko eta esplotatzeko dauzkagun moduei eta plataforma politiko bat sortzea desberdintasun horiei heltzeko.

Emakume beltz batzuek hasieratik parte hartu zuten aktiboki feminismo garaikidean; hala eta guztiz ere, ez ziren mugimenduen «izarrak» izan, hau da, ez zuten hedabideen arretarik lortu. Askotan, mugimendu feministan ziharduten emakume beltzak feminista iraultzaileak ziren (lesbiana zuri asko bezala). Ez zeuden ados feminista erreformistekin, zeinek kostatzen ahala kostatzen eman nahi baitzuten sistemaren barnean emakume eta gizonen arteko berdintasuna besterik lortu nahi ez zuen mugimendu baten irudia. Feministen artean arrazari buruz eztabaidatzen hasi aurretik ere, emakume beltzek —eta haien aliatu iraultzaileek— garbi zeukaten sekula ez zutela berdintasunik lortuko orduko patriarkatu supremazista kapitalista zuriaren barnean.

Mugimendu feminista hasieratik egon da polarizatuta. Pentsalari erreformistek genero-berdintasunari indar ematea aukeratu zuten. Pentsalari iraultzaileok, berriz, ez genuen besterik gabe sistema aldatu nahi emakumeok eskubide gehiago izan genitzan. Guk sis-

tema eraldatu nahi genuen, patriarkatua eta sexismoa deuseztatu. Hedabide patriarkalei ikuspegi iraultzailea interesatzen ez zitzaenez, hedabide nagusietan sekula ez zioten ildo horri erreparatu. Alegia, «emakumeen askapen»az jendearen iruditerian geratu zen eta oraindik ere badirauen ikuspegiaren arabera, gizonek zeukatena nahi zuten emakumeek. Eta ikuspegi horixe jasotzea zen errazena. Gure herrialdeko aldaketa ekonomikoen, krisi ekonomikoaren, enplegu-galeren eta abarren ondorioz, testuinguru egokia sortu zen gure herrialdeko herritarrek langileen arteko genero-berdintasuna onar ezaten.

Arrazakeria errealitate bat zenez, ulergarria da gizon zuriak borondate hobea izatea emakumeen eskubideak kontuan hartzeko orduan, baldin eta eskubideok bermaturik errazago eutsiko bazioten supremazismo zuriari. Ezin dugu inolaz ere ahaztu emakume zuriak eskubide zibilen aldeko borrokaren ondotik hasi zirela beren askatasuna aldarrikatzen; hain zuzen, arraza-diskriminazioa azkenetan zegoenean eta beltzak —batez ere gizon beltzak— gizon zuriekiko berdintasuna lor zezaketenean langile gisa. Feminista erreformisten pentsamoldeak —hots, langile gisa gizonetikiko berdintasuna lortzea lehenesten duen pentsamoldeak— itzalpean utzi zituen feminismo garaikidearen hasierako oinarri erradikalak, hau da, gizarte osoa erreformatzea eta goitik behera berregituratzea gure herrialdea antisexista izan zedin.

Areago, emakume gehienek, bereziki emakume zuri pribilegiatuek, feminista iraultzaileen ikuspegiak baztertu zituzten behin botere ekonomikoa lortzen hasi zirenean orduko gizarte-egituraren barnean. Ironikoa bada ere, feminista iraultzaileen pentsamoldeak testuinguru akademikoan izan zuen harrera eta

onespen onena; nolana ere, testuinguru horretan teoria feminista iraultzailea lantzen jarraitu arren, teoria hori ez zen iritsi jendearengana. Alegia, jende irakurri, ongi hezi eta ekonomikoki pribilegiatuarentzako diskurtso bilakatu zen, eta hala da gaur egun ere. *Feminist Theory: From Margin to Center* liburuak eta, azken batean, eraldaketa feministaren ikuspegi askatzailea ematen dutenek sekula ez dute lekurik izan hedabide nagusietan. Jende askok eta askok ezagutu ere ez du egiten liburu hori. Kontua ez da jendeak haren mezua baztertu duela, baizik eta ez dakiela zein den mezu hori.

Nagusi zen patriarkatu kapitalista zuri supremazistaren helburua pentsamolde feminista aurrerakoa azpiratzea zen, hau da, gizonen aurka egiten ez zuen edo emakumeak gizonen berdinak izateko eskubidea helburu ez zuen ikuspegia mendeant hartzea, baina feminista erreformistek ere irrikatzen zuten indar horiek isilaraztea. Feminismo erreformista klase-mugikortasunerako bide bat zen; lan-munduko gizonen nagusikeriatik askatu, eta beren bizitzan autodeterminazio handiagoa izateko aukera ematen zien. Sexismoak bere horretan iraun arren, albait askeen bizi zitezkeen sistemaren barnean, eta beti egongo zen emakume menderatu esplotatuen klase baxuago bat berek egin nahi ez zuten lan zikina egiteko. Emakume pobreen eta langile-klasekoen mendekotasuna onartuz eta are defendatuz, patriarkatuarekin eta haren ondoriozko sexismoarekin bat egin zuten, baina ez hori bakarrik, bizimodu bikoitza izateko eskubidea ere aitortu baitzioten beren buruari: gizonen berdinak izatea lanean nahiz etxean, berek hala nahi zutenean. Lesbianismoa aukeratuz gero, lanean gizonen berdinak izateko pribilegioa eskuratzen zuten, eta, aldi berean,

klase-boterea erabiltzen zuten etxe barneko bizimoduan, gizonekin harreman gutxi edo batere ez izanda.

Bizimodu-feminismoaren funtsa zera da: emakumeak adina feminismo mota egon daitezkeela. Bat-batean, politika feminismotik desagertzen hasi zen, pixkana-pixkana. Ez zuen axola zer ideia politiko zituen emakume batek —izan kontserbadorea, izan liberala—, berdin-berdin txertatuko baitzuen feminismoa bere ohiko bizimoduan. Pentsatzekoa denez, halako pentsamoldeari esker, feminismoa errazago onartu da, bereziki azpimarratzen delako emakumeak feministak izan daitezkeela beren burua edo are kultura ere zalantzan jarri gabe eta aldatu gabe. Esate baterako, har dezagun abortuaren gaia. Mugimendu feministaren helburua baldin bada zapalkuntza sexista deuseztatzea, eta emakumeei ugalketa-eskubideak ukatzea zapalkuntza sexistatzat hartzen bada, ezinezkoa da aukeratzeko eskubidearen aurka egotea eta aldi berean feminista izatea. Emakume bat, behin eta berriz errepikaturik ere berak ez lukeela sekula aukeratuko abortatzea, izan daiteke feminismoaren aldeze, eta, are, babestu dezake emakumeek aukeratzeko eskubidea izatea. Baina ezin da abortuaren aurka egon eta aldi berean feminismoa defendatu. Era berean, ezin da «botere-feminismo»rik egon botere hori beste pertsona batzuk esplotatuz eta zapalduz lortua bada.

Feminismoa sostengua galtzen ari da mugimendu feministak galduak dituelako definizio argiak. Baina badauzkagu definiziook. Aldarrikatu ditzagun. Partekatatu ditzagun. Has gaitezen berriz. Sor ditzagun kamisetak, pegatinak, postalak eta hip-hop musika, teledibista- eta irrati-iragarkiak, esloganak eta kartelak, eta feminismoa munduan barrena zabaltzeko orotariko

argitalpenak. Zabaldu dezagun feminismoaren mezu sinple baina boteretsua: feminismoa zapalkuntza sexista deuseztatzeko mugimendu bat da. Has gaitzen hortik. Sor dezagun mugimendua berriro.

BI

KONTZIENTZIA HARTZEA JARRERA ETENGABE ALDATZEN

Feministak egin egiten dira; ez dira hala jaiotzen. Ez dugu feminismoa aldarrikatzen soilik emakume jaiotzeko pribilegioa izan dugulako. Jarrera politiko guztietan bezala, hautuz eta ekitez hasten gara feminismoan sinesten. Emakumeak lehen aldiz elkar-tu zirenean sexismoaz eta gizonen nagusikeriaz hitz egiteko, argi zeukaten emakumeok gizonak bezalaxe sozializatzen gintuztela pentsamolde eta balio sexistak barneratzeko; desberdintasun bakarra zen gizonen etekina ateratzen ziotela sexismoari, emakumeok ez bezala; ondorioz, ez zuten halako beharrik pribilegio patriarkalei aurre egiteko. Emakumeok patriarkatua aldatzeko, baina, guk geuk aldatu behar genuen lehen-bizi; alegia, kontzientzia hartu behar genuen.

Feminista iraultzaileek kontzientzia hartu zute-larik, nabarmen geratu zen agerian zein garrantzitsua den ohartzea patriarkatua menderakuntzazko sistema bat dela, ohartzea nola instituzionalizatu den, nola betiketzen eta mantentzen den. Gizonen nagusikeria eta sexismoa eguneroko bizitzan nola

azaleratzen diren ulerturik, emakumeok kontzientzia hartu genuen gure aurkako biktimizazioaz, esplotazioaz eta, kasurik makurrenetan, zapalkuntzaz. Mugimendu feminista garaikidearen hasieran, kontzientziatze-taldeak emakumeek biktimizazioaren ondorioz pilaturiko etsaikeria eta amorrua askatzeko bideak izan ziren maiz, eta esku hartzeko eta eraldatzeko estrategiek leku gutxi zuten, edo batere ez. Funtsean, emakume kaltetu eta esplotatu askok terapia gisa baliatu zituzten kontzientziatze-taldeak, hau da, beren barreneko zauriak azaleratzeko eta bes-teen aurrean erakusteko. Aitorkizun modu hori erritu sendagarri gisa baliatu zen. Kontzientzia hartzearen poderioz, emakumeek kemena bildu zuten indar patriarkalei aurre egiteko, hala lanean nola etxean.

Dena dela, garrantzitsua da kontuan hartzea emakumeok pentsamolde sexista aztertzearekin eta gure jarrerak eta usteak aldatzeko estrategiak asmatzearekin batera hasi zela kontzientziatze-taldeen lana, pentsamolde feministara konbertitu eta feminismoarekiko konpromisoa hartzearen bidez. Kontzientziatze-taldeak feminismora konbertitzeko guneak izan ziren batik bat. Masa-mugimendu feminista bat eraikitzeko, emakumeek antolatu beharra zeukaten. Kontzientziatze-saioak norbaiten etxean egiten ziren beti (toki publikoetan baino gehiago, halakoak errentan hartu behar izaten baitziren, edo norbaitek dohainik utzi). Hala, pentsalari eta aktibista feminista zailduak konbertitu berriak erakartzeko guneak ziren.

Aipatzekoa da komunikazioa eta elkarrizketa zirela kontzientziatze-saioetako ardatz nagusiak. Talde askoren araua zen edonork izatea hitz egiteko aukera. Emakumeek txanda hartzen zuten hitz egiteko, denen ahotsa entzun zedin. Eztabaidarako eredu

ez-hierarkiko bat eratzeko saiakera hark aukera eman zigun emakume guztioi hitz egiteko, baina, zenbaitean, ez zen lortu elkarrizketa konprometitu baterako testuingururik sortzea. Hala eta guztiz ere, gehienetan, eztabaida eta elkarrizketa sortzen zen emakume parte-hartzaile guztiek gutxienez behin hitz egin eta gero. Kontzientziazte-taldeetan, ohikoak ziren argudioetan oinarrituriko eztabaidak, gizonen nagusikeriaren jatorria era kolektibo batean ulertzea baitzen gure helburua; azken batean, soilik eztabaidatuz eta desadostasunak agertuz erdietsiko genuen ikuspuntu errealista bat genero-esplotazioari eta -zapalkuntzari heltzeko.

Pentsamolde feminista talde txikitik landu zen hasieran, eta, askotan, parte-hartzaileak elkarren ezagunak ziren (lankideak edo lagunak); gero, argitalpenen bidez teorizatzen hasi ziren, hartzaile gehiagorengana iristeko, eta, orduan, taldeok desegin ziren. Emakume-ikasketak diziplina akademiko gisa sorturik, bestalde, emakumeek beste esparru bat erdietsi zuten pentsamolde eta teoria feministei buruz informatzeko. Emakume-ikasketak unibertsitateetan txertatzeko ahalegina egin zuten emakumeetako asko aktibista erradikalak izanak ziren eskubide zibilen aldeko borroketan, gayen eskubideen alde eta hasierako mugimendu feministan. Haietariko asko ez ziren doktoreak ere; alegia, beste diziplina batzuetako lankideek baino soldata baxuagoak eta lanordu gehiago zituztela sartu ziren instituzio akademikoetan. Graduatu berriek ikerketa feministak unibertsitatean legitimatzeko ahaleginarekin bat egin zuten erako, bagenekien garrantzitsua zela maila goragoko titulazioak lortzea. Gutariko gehienok ekintza politikotzat hartu genuen emakume-ikasketekiko konpromisoa; alegia, prest

geunden sakrifizio bat egiteko mugimendu feminista-
rentzako oinarri akademiko bat lortzearren.

1970eko urteen amaierarako, emakume-ikaske-
tak diziiplina akademiko gisa onartzeko bidean ziren.
Garaipen horren ifrentzu gisa, baina, emakume-ikas-
ketak instituzionalizatzeko bidea ireki zuten emakume
asko kaleratu zituzten, master-ikasketak zituztelako,
eta ez doktoregokoak. Orduan, gutariko asko unibertsita-
tatera itzuli ginen doktoregoa erdiesteko asmoz, baina
ez denak: gure arteko emakume on eta bikainenetari-
ko batzuk etsiak jota geratu ziren unibertsitatearekin,
lan-zama handiarekin gainezka eginda, eta are desen-
gainuak jota eta amorratuta ere, ikusirik erreformismo
liberalak hartua zuela emakume-ikasketen oinarriko
politika erradikalaren tokia. Handik gutxira, emaku-
me-ikasketek hartua zuten denontzako irekiak ziren
kontzientziazte-taldeen tokia. Hala, kontzientziazte-
taldeetan, askotariko jatorrietako emakumeak biltzen
ginen, hala etxeoandreak eta zerbitzuen sektoreko
langileak nola lehen mailako profesionalak; uniber-
tsitatea, aldiz, klase-pribilegiorako esparru bat zen,
eta hala da orain ere. Erdiko klaseko emakume zuri
pribilegiatuak gehiengoa ziren kopuru aldetik, baina
ez ziren preseski mugimendu feminista garaikidearen
lider erradikalenak; hala ere, hedabideetan borrokaren
ordezkari gisa agertu ohi zirenez, haiek nabarmen-
du ziren batez ere. Mugimenduak hedabide nagusien
arreta bildu ahala, kontzientzia feminista iraultzaile-
ko emakumeek, asko lesbianak eta langile-klasekoak,
ikusgaitasuna galdu zuten. Areago, behin emakume-
ikasketak unibertsitateetan finkatu zirenean —kontuan
izanik egitura kontserbadore korporatiboak direla—,
gutziz baztertuta geratu ziren. Beraz, emakume-ikas-
ketak kontzientziazte-taldeak ordezkatu zituztenean

pentsamolde feminista eta aldaketa sozialerako estrategiak transmititzeko gune nagusi gisa, mugimenduak indarra galdu zuen masa-mugimendu gisa.

Handik berehala, gero eta emakume gehiago hasi ziren beren burua feministatzat hartzen edo genero-diskriminazioaren erretorika erabiltzen beren estatus ekonomikoa aldatzeko. Ikasketa feministak instituzionalizatzeko unibertsitatean eta argitalpen munduan zenbait lanpostu sortzea ekarri zuen. Aldaketa profesionalok oportunistoa ekarri zuten berekin, eta ordura arte masa-borroka feministarekin konpromisorik agertu ez zuten emakume batzuk feminismoaren jarrera eta hizkera bereganatzen hasi ziren, beren klase-mugikortasunaren mesedetan. Kontzientziatze-taldeak desegitearekin batera, funtsezko ikuspegi bat baztertu zen: feminismoaren alde egoteko beharrezkoa zela feminismoaz ikastea eta hautu kontziente bat egitea feminismoaren alde.

Emakumeak kontzientziatze-talderik gabe geratu ziren, hau da, emakumeek berek beste emakume batzuen aurka zerabilten sexismoari aurre egiteko esparrurik gabe, eta, horrenbestez, mugimendu feministaren norabidea lan-munduko berdintasunerantz eta gizonen nagusikeriaren aurkako borrokarantz aldatu zen. Gero eta gehiago, genero-berdintasunaren «biktima»tzat eta, beraz, erreparazioa merezi zuen pertsonatzat hartzen zen emakumea (izan lege diskriminatzaileak aldatuz, izan diskriminazio positiboko politikak abiaraziz), eta, ondorioz, emakumeek feminista bilakatzeko lehenbizi beren sexismo barneratuari aurre egin behar ziotelako ideiak indarra galdu zuen. Adin guztietako emakumeek, beraz, gizonen nagusikeria eta genero-berdintasuna kezka edo amorrur jorratzeari ekin zioten, hori nahikoa balitz bezala

«feminista» bilakatzeko. Sexismo barneratuari aurre egiten ez ziotenez, bandera feminista altxatu zuten emakumeek kausari traizio egiten zioten maiz beste emakumeekiko harremanetan.

1980ko hamarkadaren hasieran, ahizpata-sun politizatuaren aldarriak —zeina funtsezkoa izan baitzen mugimendu feministaren hastapenetan— esanahia galdu zuen; feminismo erradikala ahuldu, eta bizimoduan oinarrituriko feminismoa nagusitu zen, hau da, edozein emakume izan zitekeen feminista, haren iritzi politikoak gorabehera. Ez dago esan beharrik pentsamolde horrek teoria eta praktika feministak —alegia, feminismoa— higatu zituela. Egunen batean mugimendu feminista eraberritzen delarik, eta edonoren aurkako sexismoa eta esplotazio eta zapalkuntza sexista deuseztatuko dituen masa-mugimendu bat sortzeko estrategiak indartzen direlarik, orduan, kontzientzia hartzeak hasierako garrantzia berreskuratuko du. Alkoholiko Anonimoen bileren ereduari segituz, kontzientziazte-talde feministak komunitatetan biltzen hasi ziren, pentsamolde feministak denontzat behar duela aldarrikatzeko, klasea, arraza edo generoa zeinahi izanik ere. Identitate partekatuetan oinarrituriko talde espezifikoak agertu arren, norbanakoak talde mistoetan egongo ziren azkenean.

Gizonek kontzientzia feminista hartzea ere emakume-taldeak bezain funtsezkoa da mugimendu iraultzailearentzat. Gizon-taldeak sortu izan balira mutil eta gizonei esplikatzen zer den eta nola alda daitekeen sexismoa, hedabideek ez zuketena modurik aurkituko mugimendu feminista gizonen aurkako mugimendu gisa aurkezteko. Horretaz gainera, gizonek ez zuketena sortuko inongo mugimendu antifeministarik. Askotan, sexismoa eta gizonen nagusikeria

aintzat hartzen ez zituen feminismo garaikidearen lorratzari segituz sortu ziren gizon-taldeak. Bizimodu-
duan oinarrituriko feminismoan bezala, gizon-taldeok
bilgune terapeutiko bilakatu ziren maiz, non gizonek
beren zauriei aurre egiten baitzieten patriarkatua
kritikatu gabe edo gizonen nagusikeriaren aurkako
erresistentzia-plataformarik eratu gabe. Etorkizune-
ko mugimendu feministak ez du errepikatuko halako
akatsik. Adin guztietako gizonek beren espazioak
behar dituzte sexismoaren aurkako beren erresisten-
tzia berresteko eta balioesteko. Gizonak borrokara
batzen ez badira, mugimendu feministak ez du aurrera
egingo. Hori hala izanik, lan handia dugu egiteko fe-
minismoa gizonen aurkakoa delako ustea zuzentzeko,
sustrai sakonak baititu psike kulturallean. Feminismoa
antisexismoa da. Gizonen pribilegioei uko egin eta fe-
minismoa bere egiten duen gizona borrokarako burkide
baliotsu bat da, ez inolaz ere feminismoarako mehatxu
bat; mugimendu feministan pentsamolde eta jokamol-
de sexistaren arabera jarduten duen emakumea, aldiz,
bai, mehatxu arriskutsu bat da. Oso adierazgarria
da kontzientziatze-taldeen esku-hartze indartsue-
na izana aldarrikatzea emakume guztiek egin behar
diotela aurre beren sexismo barneratuari eta pentsa-
molde eta ekinbide patriarkalarekiko atxikimenduari,
eta konpromisoa hartu behar dutela feminismoarako
konbertsioarekin. Halako ekintzak beharrezkoak dira
oraindik ere. Feminismoa hautatzen duen orok eman
beharreko pauso bat da. Kanpoko etsaiari aurre egiteko,
barneko etsaia eraldatu beharra dago lehenbizi. Meha-
txua, etsaia, pentsamendu eta jokamolde sexistak dira.
Emakumeek feminismoaren bandera altxatzen segi-
tzen badute beren sexismoa landu eta eraldatu gabe,
mugimendua ahuldu egingo da.

HIRU

AHIZPATASUNA BOTERETSUA DA ORAINDIK

«Ahizpatasuna boteretsua da» goiburua lehenbizikoz erabili zenean, zirrara garria izan zen. Unibertsitateko bigarren mailan hasi nintzen mugimendu feministan bete-betean parte hartzen. Stanfordeko Unibertsitatean sartu aurretik, urtebete eman nuen emakumeentzako fakultate batean, eta lehen esku-tik nekien zer desberdintasun zegoen sexu bereko pertsonen ikasgelen eta ikasgela mistoen artean emakumeen autoestimuari eta asertibitateari dagokienez. Stanforden, gizonak nagusitzen ziren egunerokoan, eskola guztietan. Emakumeek gutxiago hitz egiten zuten; inizatiba gutxiago zuten, eta, askotan, hitz egiten zutenean, nekez entzuten zen zer ari ziren esaten. Haien ahotsetan ez zen sumatzen ez indarririk ez konfiantzaririk. Are okerrago, irakasle gizonak behin eta berriz esaten ziguten ez ginela gizonak bezain adimentsuak eta sekula ez ginela izango pentsalari edo idazle «handiak». Halako jarrerak asaldatu egiten ninduten; izan ere, emakume-ingurune batetik nentorren, eta, han, gure maila eta balio intelektuala etengabe berresten

ziren, irakasleek —gehienak emakumeak— guretzat zein beren buruarentzat ezarritako bikaintasun akademikoaren mailaren arabera.

Esan beharra daukat zorretan nagoela Ingeleseko nire irakasle begikoarekin —zuria eta emakumea—: berak zioenez, emakumeen unibertsitatean ez nintzen jasotzen ari orientabide akademiko egokia, han ez baitzegoen idazketa berariaz lantzeko programarik. Berak animatu ninduen Stanfordera joan nendin. Uste zuen pentsalari eta idazle garrantzitsua izango nintzela egunen batean. Stanforden, baina, nire gaitasuna etengabe jartzen zuten zalantzan. Neure buruaz duda egiten hasi nintzen. Orduan, mugimendu feministak campusa astindu zuen. Ikasle eta irakasle emakumeak ikasgela barneko zein kanpoko generodiskriminazioa deuseztatu behar zirela aldarrikatzen hasi ziren. Ene, a zer garai bizi eta zirrargarria. Han, emakume-ikasketetako lehen eskolak jaso nituen, Tillie Olsen idazlearekin: lehenik eta behin, langileklaseko emakumeen etorkizunaz pentsatzeko eskatu zigun ikasleoi. Han, Diane Middlebrook-ek —akademikoa eta Anne Sextonen biografoa— nire poema bat banatu zuen Poesia Garaikideko eskolan, norena zen esan gabe, eta galdetu zigun ea nork idatzia ote zen gure ustez: emakume batek ala gizon batek. Esperimentu hark gogoeta kritikoa egitera bultzatu gintuen, ohartu baikinena nolako eragina duten genero-aurreiritziek testuen balioa epaitzeko orduan. Han, nire lehen liburua idazten hasi nintzen, 19 urte nituela: *Ain't I a Woman: Black Women and Feminism* [Ez al naiz emakume bat? Emakume beltzak eta feminismoa]. Bada, mugimendu feministak emakumeen arteko solidaritaterako oinarri bat eratu izan ez balu, ez zatekeen inoiz gertatuko eraldaketa harrigarri haietariko bakar bat ere.

Oinari haren funtsa garai hartan «barneko etsaia» esaten genion horren kritika zen. Gure sexismo barneratuaz ari ginen. Emakumeok lehen eskutik genekien pentsamolde patriarkalaren arabera sozializatu gintuztela geure burua gizonak baino gutxiagozat hartzeko, geure burua beti beste norbaiten lehiatzailetzat hartzeko patriarkatuaren onespeneraren bila, elkarri jeloskortasunez, beldurrez eta gorrotoz begiratzeko. Pentsamolde sexistak inongo gupidarik gabe elkar epaitzera eta gogor zigortzera bultzatzen gintuen. Orduan, pentsamolde feministak emakumeon autogorrotoa desikasten lagundu zigun. Gure kontzientzian txertatua genuen pentsamolde patriarkaletik askatzeko modua eman zigun.

Gizonek elkar hartzea onartua eta finkatua zegoen kultura patriarkalean. Alegia, gauza jakintzat ematen zen gizonak, taldean egonez gero, bat egin da agertuko zirela beti, elkar babestuko zutela, talde berean jokatu zutela, taldearen onura bilatuko zutela banakoaren abantailen eta aitoren gainetik. Emakumeek elkar hartzea, berriz, ez zen posible patriarkatuaren barnean: traiziozko ekintza bat zen. Mugimendu feministak, baina, testuinguru bat sortu zuen emakumeek elkar har genezan. Eta ez genuen elkar hartu gizonen aurka, baizik eta emakumeon interesak babestearen alde. Irakasleei aurpegiatu genienean ez zutela emakumeek idatzitako libururik aipatzen eskolak ematean, ez zen izan irakasleok gogoko ez genituelako (kontrara, gogoko baikenituen haietariko asko), baizik eta ikasgelako eta curriculumeko genero-aurreiritziak deuseztatu nahi genituelako.

1970eko hamarkadaren hasieran gure unibertsitate mistoan gertatzen ari ziren eraldaketa feminista berak etxearen eta lanaren esparruetan ere ari ziren

gertatzen. Lehenik eta behin, geure burua eta gorputzak gizonen jabetzapean ez ikustera bultzatu gintuen mugimendu feministak. Gure sexualitatearen, metodo antikonzeptibo eraginkorren eta ugalketa-eskubideen gaineko kontrola aldarrikatzeko eta bortxaketa eta sexu-jazarpena deuseztatzeko, beharrezkoa genuen solidaritatez jokatzea. Emakumeen aurkako enplegu-diskriminazioa aldatzeko, beharrezkoa genuen presio-talde gisa indarra egitea politika publikoa aldatzearen alde. Emakumeen pentsamolde sexistari aurre egitea eta hura aldatzea lehen pausoa zen azkenerako gure herrialdea astinduko zuen ahizpatasun boteretsu bat eratzeko bidean.

Eskubide zibilen aldeko borrokaren urratsei jarraituz, mugimendu feministak gure herrialdearen aurpegia aldatu zuen 1970eko eta 1980ko urteetan. Aldaketok eragin zituzten aktibista feministek emakume guztion ongizatea babestu zuten. Ulertu genuen emakumeon arteko solidaritate politikoa ahizpatasunaren bidez adieraztea emakumeon bizipenak onestetik harago doala, eta emakume guztion sufrimenduarekiko sinpatia ere aldarrikatzen duela. Ahizpatasun feministaren oinarrian, injustizia patriarkalaren aurka borrokatzeko konpromiso partekatu bat dago, injustiziak zeinahi forma hartzen duela ere. Emakumeon arteko solidaritate politikoa sexismoa ahultzen du beti, eta patriarkatua eraisteko bidea prestatzen. Adierazgarria da ez genukeela sekula arrazaz eta klaseaz gaindiko ahizpatasunik lortuko baldin eta emakumeak berak prest egon izan ez balira emakume-talde subordinatuak menderatzeko eta esplotatzeko botereari uko egiteko. Izan ere, emakumeek klase- edo arraza-boterea baliatuz gero beste emakume batzuk mendean hartzeko,

ezinezkoa da ahizpatasun feminista bete-betekorik eratzea.

1980ko hamarkadan, gero eta emakume gehiago hasi ziren feminismoa oportunitate hutsez aldarrikatzen, beren sexismoari uko egiteko kontzientzia feministarik batere hartu gabe, eta, orduan, boteredunak ahula gobernatu behar duelako aurreritzi patriarkalaren arabera eraiki zituzten beste emakumeekiko harremanak. Emakume batzuk —berezi lehenago inongo eskubiderik ez zuten emakume zuri pribilegiatuak— beren sexismo barneratuari uko egin gabe ere klase-boterea eskuratzen hasi zirelarik, emakumeen arteko zatiketa areagotu zen. Koloreko emakumeak gizartearen arrazakeria kritikatzeko hasi zirelarik eta ohartarazi zutelarik arrazakeria zegoela teoria eta praktika feministen muinean eta izatean, emakume zuri askok bizkarra eman zioten ahizpatasun-ikuspegiari, beren buru-bihotzak itxiz. Eta gauza bera gertatu zen emakumeen arteko klasismoaren gaia lantzen hasi zirenean.

Gogoan dut nola emakume feministak —batik bat klase-pribilegioak zituzten emakume zuriak— eztabaidan aritzen ziren ea komeni zen etxeko zerbitzua kontratatzea, hartara pribilegio gutxiagoko emakumeen mendekotasuna eta deshumanizazioa ez bultzatzeko bideren bat aurkituko zutelakoan. Emakume haietako batzuek lortu zuten kontratatzen zituzten emakume haiekin harreman onuragarriak mamitzea; alegia, aurrerapausoak izan ziren, bi aldeetatik, desberdinkeriazko testuinguru zabal hartan. Izan ere, ikusirik ezinezkoa zela egoera utopikorik erdiestea, ez zioten uko egin ahizpatasun-ikuspegiari; aitzitik, ahizpatasun erreal bat eratu zuten, hau da, pertsona guztien premiak kontuan hartzen zituen ahizpatasun

bat. Horra emakumeen artean solidaritate feminista lortzeko lantegi gogorra. Tamalez, feminismoaren barnean oportunistoa indartu ahala, feminismoaren lorpenak ohiko bihurtu eta gauza ziurtzat jo ahala, emakume askok uko egin zioten solidaritatea sortzeko eta hari eusteko gogor lan egiteari.

Emakume ugarik ahizpatasunaren ikuspegia baztertu zuten. Patriarkatua kritikatu eta hari aurre eginak ziren zenbait emakume gizon sexistekin lerrokatu ziren. Emakumeen arteko lehia galgarri ankerraren ondorioz beren burua traizionaturik ikusi zuten emakume erradikalek erretira egin zuten maiz, besterik gabe. Ondorioz, mugimendu feminista, zeina emakume guztien bizitza hobetzeko sortua baitzen, areago estratifikatu zen. Ordura artean, ahizpatasuna mugimendu feministaren gerra-irrintzia izana zen, baina bazirudien emakume askori ez zitzaizela jada axola. Emakumeen arteko solidaritate politikoa ere, zeinari esker aldaketa onuragarri ugari izan baitziren, ahulduta eta mehatxupean geratu zen, eta hala dirau gaur egun ere. Ondorioz, solidaritate politikoarekiko konpromisoa eraberritu beharrean gaude, mugimendu feminista garaikidea sortu zenean bezalaxe.

Mugimendu feminista garaikidearen hastapenetan, ahizpatasun-ikuspegiak jarduten genuenean ez genekien zehazki zer lan egin behar genuen solidaritate politikoa egikaritzeko. Arian-arian, eta, bai, gure hutsune eta akatsetatik ikasiz, orain badugu teoria- eta praktika-corpus komun bat, eta, hartara, badugu modua feminismora konbertitu berriei irakasteko zer egin daitekeen eta zer egin behar litzatekeen gure arteko solidaritatea sortzeko, babesteko eta iraurarazteko. Emakume gazte askok eta askok deus gutxi dakite feminismoaz, eta askok, gainera, uste dute —okerki

uste ere— sexismoa ez dela arazo bat gaur egun; hortaz, kontzientzia kritikoa esnatuko bada, heziketa feminista etengabe landu behar da. Pentsalari feminista zaharragoek ezin onartu dute emakume gazteek helduarora gerturatu ahala jasoko dutela, berez, feminismoari buruzko ezagutza. Laguntza behar dute. Oro har, gure gizarteko emakumeek ahaztuak dituzte ahizpatasunaren balioa eta boterea. Mugimendu feminista eraberritu behar dugu, berriz ere lau haizeetara zabalteko «ahizpatasuna boteretsua dela».

Emakume erradikalen taldeetan, ahizpatasuna eraikitzeko eta emakumeen arteko solidaritate politiko feminista egia bihurtzeko konpromisoari eutsi diogu. Gure artean arrazaz eta klaseaz gaindiko loturak finkatzeko lanean ari gara. Pentsamolde eta praktika antisexistak aplikatzen segitzen dugu, sinesten baitugu emakumeok gai garela autorrealizatzeko eta arrakasta lortzeko elkar menderatu gabe. Eta zorionekoak gu, gure bizitzetan egunero ikasten dugulako ahizpatasuna ezbairik gabe posible dela, ahizpatasuna boteretsua dela oraindik.

LAU

HEZIKETA FEMINISTA, KONTZIENTZIA KRITIKOA GARATZEKO

Emakume-ikasketak abiatu baino lehen, literatura feminista abiatu baino lehen, emakume batzuek taldetan ikasi zuten feminismoaz. Taldeotako emakumeak izan ziren lehenak teoria feminista sortzen, sexismoa analizatuz, patriarkatuari aurre egiteko estrategiak landuz eta gizarte-harremanetarako eredu berriak garatuz. Bizitza honetan egiten dugun guztiak oinarri teoriko bat izaten du. Kontzienteki aztertuko bagenu zer arrazoi dauzkagun ikuspegi jakin bat hartzeko edo ekintza jakin bat aurrera eramateko, pentsamendua eta praktika antolatzeako sistema bat aurkituko genuke oinarrian. Teoria feministaren has-tapenetan, helburu nagusia izan zen emakume eta gizon guztiei esplikatzea nola funtzionatzen duen pentsamolde sexistak eta zer egin genezakeen hari aurre egiteko eta aldatzeko.

Garai hartan, pentsamolde sexista onartzeko sozializatuak gintuzten gutariko gehienok, bai gurasoek, bai gizarteak. Ez genuen denborarik hartzen gure pertzepzioen jatorria aztertzeke. Pentsamolde eta

teoria feministak bultzatu gintuzten horretara. Hasieran, ahoz aho, egunkari merkeen eta panfletoen bidez zabaldu zen teoria feminista. Gero, emakumeen argitaletxeei esker hedatu zen pentsamolde feminista; argitaletxeotan, emakumeek idazten eta argitaratzen zuten dena, ekoizpenaren maila guztiak kontrolatuz, baita marketina ere. Nire lehen liburua, *Ain't I a Woman: Black Women and Feminism*, 1970eko hamarkadan idatzi eta 1981ean argitaratua, kolektibo sozialista xume batean argitaratu zen, South End Press-en: hango kideen erdiak gutxienez emakume feministak ziren, eta kolektiboko kide guzti-guztiak ziren antisexistak.

Literatura feministaren corpus bat sortzea eta emakumeen historia berreskuratzeko aldarrikatze izan zirena feminismo garaikidearen esku-hartzeko indartsu eta arrakastatsuenetako batzuk. Historiari begiratzen badiogu, ikusiko dugu emakumeek idatzitako lanek toki gutxi edo batere ez zutela literaturaren eta ikerketa akademikoaren esparruan, genero-diskriminazioaren ondorioz. Mugimendu feministak agerian utzi zituenean curriculumeko aurreiritzi horiek, ordura arte ahaztu eta bazterrean utzitako lan haietako asko zabaldu ziren. Fakultate eta unibertsitateetan emakume-ikasketen programak sortu zirenean, emakumeen lanek legitimitate instituzionala lortu zuten ikuspuntu akademikotik. Beltz-ikasketen ildo beretik, emakume-ikasketak generoaz eta emakumeaz ikasteko esparrua bilakatu ziren, betiere aurreiritzirik gabeko ikuspegi batetik.

Ohiko estereotipoez aldentuz, emakume-ikasketetako irakasleek ez zuten eta ez dute kritikatzeko gizonak egindako lana; guk pentsamolde sexistan eragin nahi dugu, erakutsiz emakumeen lana gizonena bezain ona eta interesgarria dela, edo are hobea eta

interesgarriagoa ere izan daitekeela. Gizonen literatura handia deritzona kritikatzan dugu balio estetikoak ebaluatzean erabiltzen diren aurreiritziak agerian utzi nahi ditugunean, besterik ez. Emakume-ikasketetan, sekula ez dut irakurri edo entzun gizonak egindako lanak garrantzitsuak edo beharrezkoak ez direnik. Ikerkuntzako eta literaturako kanon maskulinoen gaineko kritika feministak generoan oinarrituriko aurreiritziak uzten ditu agerian. Hori guztia oso garrantzitsua izan da emakumeen lana berreskuratzeko eta emakumeen eta emakumeei buruzko lan berrientzako esparru berri bat sortzeko.

Mugimendu feministak akademian sartzearekin batera hartu zuen indarra. Gazteek herrialde osoko ikasgeletan ikas zezaketen pentsamolde feministari buruz, hari buruzko teoria irakurri eta beren ikerketa akademikoetan erabili. Graduondoko ikaslea izaki eta tesia idazten ari nintzelarik, pentsamolde feministari esker aukera izan nuen garai hartan oso ezaguna ez zen emakume idazle beltz bati buruz ikertzeko: Toni Morrison. Mugimendu feminista sortu aurretik, oso literatura-ikerketa sakon gutxi egiten zen unibertsitatean emakume idazle beltzen lanari buruz. Alice Walker ospetsu egin zenean, Zora Neale Hurston idazlearen lana berreskuratzen lagundu zuen: handik gutxira, hain zuzen, Estatu Batuetako literaturako emakume idazle beltz kanonizatuena bilakatu zen. Mugimendu feministak iraultza bat eragin zuen eskatu zuelarik emakumeen lan akademikoa errespetatzeko, haien lana —iraganekoa zein orainaldikoa— aintzat hartzeko eta curriculumeko eta pedagogiako generoaurreiritziak deuseztatzeko.

Emakume-ikasketak instituzionalizatu ondotik, lau haizeetara barreiatu zen feminismoaren ahotsa.

Hala, etengabe pentsaera irekiko jende multzo bat eskainiz, esparru legitimo bat ireki zen konbertsiorako. Emakume-ikasketetako ikasleak ikastera joaten ziren. Gehiago jakin nahi zuten pentsamolde feministaz. Eta eskola haietan ernatu ginen gutariko asko politikoki. Ni neu gure familia patriarkaleko gizonen nagusikeriari aurre eginez iritsi nintzen pentsamolde feministara. Baina sistema esplotatzaile edo zapaltzaile baten biktima izate hutsak edo, are, haren aurka erresistentzia egiteak ez du esan nahi ulertzen dugunik zergatik gertatzen den hori edo zer egin genezakeen hori aldatzeko. Ni neu feminismora konbertitua nintzen unibertsitate sartu baino askoz lehenagotik ere, baina eskola feministetan ikasi nuen zer ziren pentsamolde feminista eta teoria feminista. Eta han jaso nuen emakume beltzen esperientziaz kritikoki pentsatzeko eta idazteko behar nuen pizgarria.

1970eko hamarkadan, pentsamolde eta teoria feministak lankidetzan jorratzen ziren: emakumeok etengabe eztabaidatzen genuen ideien inguruan, gure paradigmatik aztertuz eta moldatuz. Orduan, emakume beltzek eta koloreko beste emakume batzuek arraza-aurreiritzien gaia mahai gainean jarri zutenean feminismoa itxuratzeko faktore gisa, hasieran, halako erresistentzia bat egon zen klase pribilegiatuetako emakumeen aldetik, ikusi baitzuten okerra izan zitekeela berek ordura arte emakume-izatearen funtzat hartua zutena; denbora baten buruan, ordea, teoria feminista aldatu egin zen. Emakume pentsalari zuri asko gai ziren arren beren aurreiritziak aitortzeko are birpentsatzeko ariketarik egin gabe, aldaketa garrantzitsua izan zen. 1980ko urteen amaierarako, ikerketa feminista gehienetan islatzen zen arraza- eta klasesberdintasunen gaineko kontzientzia. Mugimendu

eta solidaritate feministarekin erabat engaiatuta zeuden emakume akademikoek gogo bizia zuten emakume gehienen errealitateei helduko zien teoria bat lantzeko.

Legitimitate akademikoa funtsezkoa zen pentsamendu feministak aurrera egiteko, baina beselako zailtasun batzuk ere ekarri zituen. Bat-batean, gutxiago erreparatzen zitzaion teoriatik eta praktikatik zuzenean eraturiko pentsamolde feministari teoria metalinguistikoari baino, eta hizkera eskusibo bat sortu zen, soilik mundu akademikoarentzat idatzia. Bazirudien pentsalari feminista multzo bat elkartu eta eliteko talde bat sortua zutela «barneko»ek ez beste inork ulertzeko moduko teoria bat idazteko.

Esparru akademikotik kanpoko emakume eta gizonak ez ziren jadanik hartzaile garrantzitsutzat jotzen. Pentsamolde eta teoria feministak ez zeuden hain lotuta mugimendu feministarekin. Politika akademikoak eta karrera profesionala lehenesteko joerak itzalpean utzi zuten feminismoa. Teoria feminista ghetto akademiko murrizt batean zokoratuta geratu zen, kanpoko munduarekiko ia loturarik gabe. Akademian egindako lana aurrerakoia zen (eta da) maiz, eta zaila izaten da halako ezagutzak jende askorengana iristea. Ondorioz, pentsamolde feminista era horretan akademizatzeak mugimendu feminista ahuldu zuen, despolitizazioaren bidez. Desradikalizaturik, beste edozein diziplina akademikoren maila berean geratu zen, desberdintasun bakarra genero-ikuspegia izanik.

Literatura, lagungarri izango bada jendea informatzeko eta jendeari pentsamolde feminista eta feminismoa ulertarazteko, estilo eta formatu askotan idatzi behar da. Bereziki gazte-kulturari zuzenduriko lanak behar ditugu. Giro akademikoan, ordea, inork ez du halakorik egiten. Ez ditugu, noski, alde batera

utzi behar emakume-ikasketen programak —zeinak dagoeneko arriskuan baitaude fakultate eta unibertsitateetan, genero-justiziaren aldeko borroketan lorturiko aldaketak desegin nahi baitituzte kontserbadoreek—, baina oinarri komunitarioko ikasketa feministak behar ditugu. Imajinatu masa-mugimendu feminista bat zeinetan jendea atez ate ibiliko bailitzateke testuak banatzen (talde erlijiosoen antzera) eta jendeari azaltzen zertan datzan feminismoa.

Mugimendu feminista garaikidearen garai opa-roenean, haurren liburuetakoa aurreiritzi sexistak kritikatu ziren. «Haur libreentzako» liburuak idatzi ziren. Zaindari kritiko izateari utzi genionean, baina, sexismoa berehala azaleratu zen berriz. Kontzientzia kritikoa eratzea helburu izanik, haur-literatura esparrurik funtsezkoenetako bat da heziketa feministarentzat, sinesmenak eta identitateak eraikitze-bidean izaten baitira oraindik haurtzaroan. Eta, sarri askotan, generoari buruzko pentsamolde itxia nagusitzen da jolastokietan. Aktibista feministek, horrenbestez, lan handia egin behar dute haurren hezkuntza publikoaren esparruan, aurreiritzirik gabeko curriculum bat sortzeko.

Etorkizuneko mugimendu feministak nahitaez ulertu behar du heziketa feminista oso garrantzitsua dela edonoren bizitzan. Zenbait emakume feminista aliatuk lortu badute ere ekonomikoki gora egitea edo aberastasuna metatzea, edo onartu badute ere gizon aberatsek emandako laguntza, ez dugu ideia feministetan oinarrituriko eskolarik sortu neska-mutilentzat eta emakume-gizonentzat. Alegia, ez dugu lortu hezkuntzaren arloan masa-mugimendurik sortzea feminismoa irakasteko; horrenbestez, onartzen ari gara jendeak hedabide patriarkal nagusien eskutik ikas-

tea feminismoari buruz, eta bide horretatik ikasitako gehiena kalterako izaten da. Pentsamendu eta teoria feminista mundu guztiari irakasteak esan nahi du akademiak eta testu idatziez harago iritsi behar dugula. Jende askok ez dauka gaitasunik liburu feministak irakurtzeko. Audioliburuak, kantak, irratia eta telebista bide apartak dira jakintza feminista zabaltzeko. Eta, jakina, telebista-kate feminista bat behar dugu; ez emakumeentzako telebista-kate bat, ez baita gauza bera. Telebista-kate feminista bat sortzeko funtsak bilduz gero, munduan barrena zabalduko genuke pentsamolde feminista. Eta, halakorik lortu ezin badugu, ordaindu dezagun beste telebista-kateren batean toki bat izateko. Ms. aldizkariak urte anitz eman ditu gizonen jabetzapean —eta denak ez ziren antisexistak—, baina, gaur egun, ideia feministekin guztiz engaiaturiko emakumeen eskuetan dago. Horra noranzko egokian emandako pauso bat.

Saiatzen ez bagara denontzako —emakume zein gizon— heziketa feminista bat eskaintzen duen masamugimendu bat sortzen, hedabide nagusietan ematen den informazio kaltegarriak etengabe ahulduko ditu teoria eta praktika feministak. Halako lorpenak nabarmentzen ez baditugu, nekez jakingo dute herrialde honetako herritarrek zer ekarpen onuragarri egin dizkien mugimendu feministak gure bizitzetara. Askotan, kultura menderatzaileak bere egiten ditu gure komunitate eta gizartearen ongizatearen alde egindako ekarpen feminista konstruktiboak, eta, gero, irudi ezkorra ematen du feminismoaz. Jende gehienak ez daki zenbat eta zenbat arlotan aldatu duen —onerako, betiere— feminismoak gure bizitza. Pentsamolde eta praktika feministak partekatzeak arnasa ematen dio mugimendu feministari. Jakintza feminista denon kontua da.

BOST

GEURE GORPUTZAK, GU GEU UGALKETA-ESKUBIDEAK

Mugimendu feminista garaikideak, hasieran, goi-mailako ikasketak zeuzkaten (eta, gehienetan, ekonomikoki pribilegiatuak ziren) emakume zurien esperientziekin loturiko gaiak lehenetsi zituen. Feminismoak eskubide zibilen eta sexu-askapenaren aldeko borroken ildoari segitu zion heinean, garai hartan egokitzen zen emakumeen gorputzarekin loturiko gaiari lehentasuna ematea. Hedabideek munduaren aurrean ematen zuten irudian ez bezala (hasieran, mugimendu feministaren jarraitzaileak Miss Amerika lehiaketetan bularretakoak erretzen erakusten zituzten, eta, gero, abortuaren aldeko emakumeen irudiak), sexualitatea izan zen mugimendua eratzeko prozesuan katalizatzaile gertatu ziren gaietako bat, hau da, emakumeok sexu-harremanak noiz eta norekin izan nahi ditugun erabakitzeak daukagun eskubidea. Ordu-rako, emakumeon gorputzen sexu-esplotazioa ohiko gaia zen justizia sozialaren aldeko mugimendu erradikalean (sozialistetan, eskubide zibilen aldekoetan eta abarretan).

Sexu-iraultza deritzona puri-purian zegoela, amodio askearen gaiak (zeinak normalki esan nahi baitzuen norberak nahi beste sexu-harreman izatea norberak nahi zuenarekin) nahi gabeko haurdunaldien gaia ekarri zuen berekin. Amodio askearen inguruan genero-ekitate lortu baino areago, emakumeek antikonzeptibo eta abortu seguru eta eraginkorrak behar zituzten. Eskuar-ki, klase-privilegioak zituzten emakume zuriak eskura zeuzkaten bi aukerok, baina emakume gehienek ez. Askotan, klase-privilegioak zituzten emakume zuriak lotsatu egiten ziren beren nahi gabeko haurdunaldiekin, eta, horrenbestez, ez zuten osasun-zerbitzuetara jotzen, nahiz horretarako aukera izan. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan abortua aldarrikatu zuten emakumeek bazekiten nahi gabeko haurdunaldien ondorio zirela hala legez kanpoko abortuen tragedia nola ezkontza behartuen zoritxarra. Emakume talentudun eta sortzaileen espero gabeko seme-alabak gara gutariko asko. Espero gabeko eta nahi gabeko haurdunaldiek goitik behera aldatu zuten emakume haien bizitza, eta guk bertatik bertara ezagutu genuen haien samintasuna, haien amorrua, haien etsipena suertatua zitzaaien patuarekin. Eta garbi geneukan: antikonzeptibo hoberik eta segururik izan ezean, legearen barnean eta era seguru batean abortatzeko eskubiderik izan ezean, ez zen izango egiazko sexu-askapenik, ez emakumeentzat, ez gizonentzat.

Gaur egungo ikuspegitik, abortua ugalketa-eskubideen gainera nabarmentzeak agerian uzten du zer klase-aurreiritzi zituzten mugimenduaren lehen lerroan ziharduten emakumeek. Abortuaren gaia garrantzitsua zen —eta hala da gaur egun ere— emakume guztiontzat, baina baziren ugalketarekin loturiko beste kontu batzuk abortua bezain funtsezkoak zirenak eta arreta

merezi zutenak eta jendea ekintzara bultzatzeko baliagarri zirenak; esate baterako, oinarritzko sexu-heziketa, haurdunaldiko zaintza eta osasun-laguntza prebentiboa (emakumeek uler zezaten nola funtzionatzen zuten beren gorputzek), edo esterilizazio behartua, zesarea eta histerektomia debaldekoak eta haien ondorioz sorturiko arazoak. Gai horien guztien artean, klase-pribilegioak zituzten emakume zuriak nahi gabeko haurdunaldien saminarekin identifikatu ziren gehien. Eta abortuaren gaia lehenetsi zuten. Ez ziren, noski, abortu seguru eta legezkoen premian zeuden emakume bakarrak; izan ere, dagoeneko esan dudan bezala, emakume pobreek eta langile-klasekoek baino errazago aborta zezaketen. Garai hartan, emakume pobreek —emakume beltzak barne— legez kanpo abortatzen zuten maiz. Abortatzeko eskubidea ez zen soilik emakume zurien eskubide bat; besterik gabe, estatubatuar emakume asko eta askorentzat ez zen ugalketarekin loturiko kezka bakarra edo garrantzitsuenak.

Aborturako eskubideak baino gehiago, pilula antikonzeptibo eraginkor baina ez guztiz seguruek (zientzialari gizonek sortuak, haietariko asko anti-sexistak ez ziren arren) zelaitu zuten emakumeen sexu-askapenerako bidea. Lehenbizikoz pilulak arazorik gabe eskuratzeko aukera izan zenean, nerabezaroaren amaierara iritsiak ginen emakumeok nahi gabeko haurdunaldien lotsa eta beldurra uxatzea lortu genuen. Emakume asko —ni neu barne—, nahiz preseski abortuaren aldekoak izan ez, askatasunez aukeratzearen alde geunden, eta, metodo antikonzeptibo arduratsuei esker, abortatzea saihestu ahal izan genuen. Nik neuk sexu-askapenaren sasoirik gorenean ere ez nuen sekula izan nahi gabeko haurdunaldirik, baina nire adiskideetako askok nahiago zuten

abortatu pilula antikonzeptiboak kontzienteki eta arduraz hartu baino. Areago, metodo antikonzeptibo gisa erabiltzen zuten abortua. Pilula antikonzeptiboak hartzeak esan nahi zuen emakumeek berek erabaki zezaketela sexualki aktiboak izan ala ez. Gizonek, bestalde, sexualki lotsagabetzat hartzen zituzten metodo antikonzeptiboekin kontzientzia handiagoa zuten emakumeak. Hala, emakume batzuentzat, errazagoa zen sexu-harremanek beren bidea egitea eta gero «arazoa» konpontzea abortuaren bidez. Orain, badakigu behin eta berriz abortatzea edo estrogeno askoko pilula antikonzeptiboak luzaroan hartzea arriskutsua izan daitekeela, baina garai hartako emakumeak prest zeuden halako arriskuak hartzeko, sexu-askatasunaren eta aukeratzeko eskubidearen truke.

Abortuaren gaiak, pentsamolde kristau fundamentalistaren aurka jotzen zuen heinean, hedabideen arreta bildu zuen. Izan ere, abortuak zuzen-zuzenean arbuizatzen zuen emakumeak haurrak izateko jaioko zirela. Ordura arte sekula ez bezala, herrialdea emakumeen gorputzari begira jarri zen. Eliza bera ere zalantzan jartzen zen. Pentsalari feministek aldarrikaturiko beste ugalketa-gai guztiek, ordea, ez zuten lekurik izaten hedabideetan. Zesareen eta histerekto-mien ondoriozko askotariko arazo medikoak ez ziren gai erakargarriak hedabideentzat; eskuarki, gizonen mendeko sistema mediko kapitalista patriarkalean jartzen zuten arreta, zeinak emakumeen gorputzak kontrolatu eta haiekin nahi zutena egiten baitzuen. Arretagunea genero-injustizia izatea erradikalegia zatekeen gaur egun ere hain kontserbadore eta hain antifeminista diren hedabideentzat.

1960ko eta 1970eko hamarkadetako aktibista feministek ez zuketean sekula pentsatuko 1990eko

hamarkadan oraindik ere emakumeen ugalketa-eskubideen alde borrokatu beharko ginenik. Mugimendu feministak iraultza kulturala bultzatu zuenean, nola-baiteko arriskurik gabeko antikonzeptiboen erabilera onartzea eta abortu seguru eta legezkorako eskubidea lortu zen, eta emakumeek ziurtzat jo zuten eskubide horiek sekula ez zirela berriz zalantzan jarriko. Baina, masa-mugimendu feminista politiko erradikal antolatua desagertzearekin eta kutsu erlijioso fundamentalistako fronte politiko eskuindar antolatu baten kontraeraso antifeminista agertzearekin, abortuaren gaia agenda politikora itzuli zen. Ondorioz, emakumeek aukeratzeko duten eskubidea zalantzan jartzen ari da gaur egun.

Tamalez, abortuaren aurkako plataformak jomuga hartu ditu abortu finantzatuak, merkeak eta, behar izanez gero ere, doakoak. Ondorioz, klase-pribilegioak dituzten emakumeek, arraza batekoek zein bestekoek, badute abortu seguruak izateko aukera, hau da, badute aukeratzeko eskubidea; maila ekonomiko baxuagoko emakumeek, aldiz, ez dute halakorik. Gobernuak dirurik jartzen ez duenean ugalketa-eskubideak bermatuko dituen osasun-zerbitzu baterako, emakume pobreek eta langile-klasekoek aborturako aukera galtzen dute. Klase-pribilegioak dituzten emakumeentzat, abortatzeko dirua behar izatea ez da mehatxu bat, dirua daukatenez eskura baitaukatete abortatzea ere. Beste emakume askok, baina, ez dute klase-botererik. Inoiz baino emakume gehiago dago pobrezia- eta txirotasun-egoeran. Abortu seguru, merke eta doakorako eskubiderik ez dutenez, galdua dute beren gorputzen gaineko kontrol guztia. Abortatzeko aukera dirua daukaten emakumeei soilik emanaz gero, arriskua dago abortua legez kanpo utziko duten

politika publikoetara itzultzeko. Eta hala ari da gertatzen estatu kontserbadore askotan. Klase guztietako emakumeek behar dute abortu segurua, legezkoa eta ordaintzeko modukoa.

Emakumeek abortatzeko edo ez abortatzeko duten eskubidea ugalketa-askatasunaren ertz bat besterik ez da. Emakumearen adinaren eta egoeraren arabera, ugalketa-eskubideen gaineko kezka aldatu egiten da. Baliteke 20 edo 30 urteko emakume sexualki aktibo batek pilula antikonzeptiboak segurutzat ez jotzea eta egunen batean nahi gabeko haurdunaldi bati aurre egin behar izatea; orduan, abortu seguru, legezko eta merkea izango da berarentzat ugalketa-eskubide behinena. Menopausiara iritsi eta medikuek histerektomia egitera bultzatuz gero, aldiz, ugalketa-eskubide horrixek emango dio lehentasuna.

Masa-mugimendu feministaren garrak bizitu nahi baditugu, ugalketa-eskubideek agenda feministaren ardatzean egon beharko dute. Emakumeok eskubiderik ez badaukagu gure gorputzetan zer gertatzen den aukeratzeko, gure bizitzako beste esparru batzuetako eskubideak ere galtzeko arriskuan egongo gara. Mugimendu feminista eraberritzeko, ugalketa-eskubideen gaiak lehentasuna izango du beste gaien gainetik. Horrek ez du esan nahi abortu seguru, legezko eta merkeen aldeko borroka ardatz izango ez denik; kontua da ez dela izango gai bakarra. Emakume guztiei eskainiz gero sexu-heziketa, osasun-laguntza prebentiboa eta antikonzeptiboak eskuratzeko erraztasunak, emakume gutxiago geratuko gara haurdun hala nahi izan gabe, eta, ondorioz, abortu gutxiago egin beharko dira.

Abortu seguru, legezko eta merkea lortzeko borrokan atzera egiten badugu, atzera egingo dugu ugalketarekin loturiko beste arlo guztietan ere.

Erabakitzearen aurkako mugimendua mugimendu antifeminista bat da funtsean. Emakume batek erabaki dezake inoiz ez abortatzea, baina, feminismoarekin leialak izan nahi badugu, beharrezkoa da inoiz abortatuko ez duenak ere erabakitzearen alde egitea, hau da, abortatzeko beharra duten emakumeen erabakitze eskubidearen alde egitea. Antikontzeptibo eraginkorrak erabiltzeko aukera izan duten emakume gazteek —hau da, legez kanpoko abortuen ondoriozko tragediarik ezagutu ez dutenek— ez dakite zer den botererik ez izatea eta esplotazioaren aurrean zaugarri sentitzea ugalketa-eskubideak bermatzen ez zaizkielako. Beraz, adin guztietako emakumeak eta borroka-aliatu ditugun gizonak ugalketa-eskubideen garrantziaz jabetu daitezen, beharrezkoa da etengabe eztabaidatzea ugalketa-eskubideen aterki zabalaren azpian biltzen diren gai guztiez: horra ugalketa-eskubideak emakume guztien eskubide izatea lortzeko daukagun konpromisoaren oinarria. Gure askatasuna babesteko eta hari eusteko, beharrezkoa da ugalketa-eskubideen gaia feminismoaren lehentasuna izatea.

SEI

KANPOKO ETA BARNEKO EDERTASUNA

Emakumearen gorputzari buruzko pentsamolde sexistari aurre egitea mugimendu feminista garai-kidearen esku-hartzerik indartsuenetariko bat izan zen. Emakumeen askapenaren aurretik, pentsamolde sexistaren bidez sozializatzen gintuzten emakume guztiak —gazte zein adineko—, sinetsarazteko gure balioa itxuraren mende zegoela, bestek —batez ere gizonek— gu eder ala itsusi ikustearen mende. Onarturik emakumeok sekula ez genuela askapenik lortuko geure buruarenganako estimu eta maitasun osasungarririk garatu ezean, pentsalari feministek arazoaren muinera jo zuten zuzen-zuzenean: ikuspuntu kritiko batetik aztertu zuten nola sentitzen garen eta nola pentsatzen dugun gure gorputzei dagokienez, eta hori aldatzeko estrategia konstruktiboak proposatu zituzten. Atzera begiratu, ohartzen naizelarik zein eroso bizi izan naitzen azken urteotan bularretakoa janztea ala ez janztea libre erabakirik, gogora datorkit zein erabakigarria izan zen hori duela 30 urte. Emakumeok bularretako, geruntze, kortse, galtzari eta halako arropa kaltegarri,

deseroso eta estugarriak erantzi genituen: emakumeon gorputzaren osasuna eta loria erradikalki eta modu erritualizatu batean aldarrikatzeko ekintza bat izan zen. Halako mugarik bizi izan ez duten emakumeei esaten diegularik aldarrikapen hura erabakigarria izan zela, gurekin fidatzea besterik ez zaie gelditzen.

Sakonago joz gero, emakumeok erritual hari esker lortu genuen arropa erosoak janztea gure bizitzako arlo guztietan. Lantokira galtzak jantzita joatea lorpen ikaragarria izan zen etengabe makurtzen ibili behar izaten zuten emakumeentzat. Soinekoa eta gona jantzi behar izategatik ordura arte deseroso ibiliak ziren emakumeentzat ere, aldaketa itzela izan zen. Gaur egungo ikuspegitik, garrantzirik gabeko kontuak izan litezke txikitatik zer jantzi nahi duten askatasunez erabakitzeko aukera izan dutenentzat. Emakume heldu askok oinetako takoidunak erabiltzeari utzi zioten, hain baitziren galgarriak eta deserosoak. Ondorioz, oinetakoen industria emakumeentzako oinetako baxu erosoak diseinatzen hasi zen. Makillatzeko ohitura sexistak behartutik askaturik, emakumeok, geure buruari ispiluan begiratu, eta garen bezalakoak onartzen ikasi genuen.

Arropen aferari eta feministen ekintzek ekarri zuten iraultzari esker, emakumeok ederki ikasi genuen gure haragiak maitasuna eta mirespena merezi dituela bere horretan; ez da beharrezkoa deus ere eranstea, non eta emakumeok ez dugun aukeratzeko bestelako apaingarririk janztea. Hasieran, kosmetikaren eta modaren industriako inbertitzaile kapitalistak beldur izan ziren feminismoak ez ote ziren negozioia hondatuko. Orduan, emakumeon askapenari garrantzia kendu nahian, zenbait kanpaina bultzatu zituzten hedabideetan, feministak emakume lodi, hipermasku-

lino, zahar eta itsusiak zirela iradokitzen zuten irudiak erakutsiz. Egiaz, mugimendu feministan parte hartzen genuen emakumeok orotariko itxura eta neurritakoak ginen. Denetarik bazen gure artean. Eta ikaragarria zen libre izatea gure arteko desberdintasunak aintzat hartzeko inongo epai edo lehiarik gabe.

Feminismoaren hasieran, aktibista askok uko egin zioten modarekin eta itxurarekin zerikusia zuen guztiari. Askotan, gogor kritikatzeko zituzten emakume-arropa friboloak edo makillajea erabiltzen zituzten emakumeak. Aukeratu ahal izate hutsa ikaragarria zen gutariko gehienontzat. Askok, orduan, eroso eta laxo ibiltzeko hautua egin genuen. Emakumeontzat, sekula ez da erraza izan edertasuna eta estiloa erosotasunarekin eta laxotasunarekin uztartzea. Hortaz, modaren industriari —zeina garai hartan gizonen mendean baitzegoen osotara— eskatu behar izan genion arropa-estilo desberdinak sortzeko. Aldizkariak ere aldatu ziren: emakume gehiagok gai serioei buruzko artikulua idazteko eskatu zuten aktibista feministek. Gure herrialdearen historian lehen aldiz, emakumeok ohartarazita geunden nolako balioa zuten gure kontsumitzaile-dolarrek, eta botere hori baliatu genuen aldaketa onuragarriak lortzeko.

Moda sexistaren industriari aurre eginez, emakumeok gure bizitzan lehen aldiz aztertzen hasi ginen itxurarekiko obsesioak berekin dakartzan ezaugarri patologikoak, zeinek arriskuan jartzen baitzuten gure bizitza bera. Konpultsiboki jateko eta goseak egoteko gaitzak azaleratu ziren. Haiek era guztietako lookak sortzearekin batera, bizitza arriskuan jartzen zuten adikziook sortu ziren. Mugimendu feministak, orduan, halako arazoak aintzat hartzea behartu zuen garai hartako osasun-sistema sexista. Hasieran, ez zieten

jaramonik egin kritika feministei, baina, feministak berak osasun-zentroak sortzen hasi zirenean —soilik emakumeentzako osasun-arreta ematen zuten, doa-koa—, industria medikoan ohartu ziren modaren sektorean gertatu zen bezala emakume askok halako osasun-zerbitzuetara bideratuko zituztela beren kontsumitzaile-dolarrak, hau da, emakumeen gorputza hobeki zaintzen, mainatzen eta errespetatzen zuten lekuetara. Borroka feministari esker, beraz, osasun-sistemak jarrera aldatu zuen emakumeon gorputzari eta osasun-zaintzari dagokienez. Dena den, osasun-zaintzaren arloan, emakumeok oraindik ere aurre egin behar diogu industria medikoari, gure gorputzak seriocki har daitezen. Esparru gutxitan lortu du borroka feministak hainbeste emakume biltzea, izan feminismoarekin konprometituak, izan konprometitu gabeak. Emakumeon botere kolektiboa osasunarekin loturiko kontuetan azaleratzen da, batez ere ginekologiaz, emakumei gizonei baino gehiago erasaten dieten minbiziez (batik bat bularrekoa) eta, azkenaldian, bihotzeko gaixotasunez ari garenean.

Elikadura-nahasmenduen aurkako borroka feminista etengabekoa da, adin guztietako emakumeak itxuraren arabera epaitzeko obsesioa ez baita inoiz desagertu gure herrialdean. Areago, gure iruditeria kulturalaren parte da oraindik ere. 1980ko urteen hasieran, emakume asko feminismotik urrundu ziren. Denok baliatu genituen arren ekintza feministen onurak, edertasunari buruzko ikuspegi sexistak berriz bere egiten hasi ziren gero eta emakume gehiago. Mugimendu feminista garaikidearen hasieran hogeitau urte inguru zituzten emakumeetako batzuk berrogei eta berrogeitau hamar urteen bueltan zebiltzan. Feminismoak emakumeon gorputzari begiratzeko modua aldarazi zuen,

eta, horri esker, zahartzea bizipen positiboagoa izan da guretzat; hala eta guztiz ere, gizarte patriarkalean zahartzearen errealitateari —bereziki biologikoki hau-rik ezin izateari— aurre egin beharrak emakumeen edertasunarekin loturiko ikuspegi sexistak zaharretara bultzatu zituen berriz ere emakume asko.

Gaur egun, gure herrialdearen historian inoiz baino gehiago, berrogei urtetik gorako emakume heterosexual ezkongabe andana dago. Emakume ezkongabeok, gizonen arreta erakarri nahian, lehian sartzen dira emakume gazteagoekin (emakume gazte horietariko asko, gainera, ez dira feministak izaten, eta ez dira inoiz izango), eta emakumeen edertasunaren errepresentazio sexistak antzeratzen dituzte sarritan. Egiaz, modaren eta kosmetikaren industria suprema- zista zuri kapitalista patriarkalari biziki komeni zitzaion edertasunaren ikuspegi sexistei berriz glamourra emate- ta. Eta hedabideak ere joko berean sartu dira. Filmetan, telebistan eta publizitatean, arau bilakatu dira emaku- me ilehori tindatu ikaragarri argalak, zeinak irudi baitu prest leudekeela edonor hiltzeko otordu on baten truke. Emakumeen edertasunaren irudi sexistak mendeku- go- sez itzuli dira, erruz eta mehatxari, feministen ekintzek lorturiko aurrerapenak desegiteko prest.

Zoritxarrez, emakumeok sekula baino kon- zienteagoak garen arren zein hedatuta dagoen bizitza arriskuan jartzen duten elikadura-nahasmenduen arazoa gure herrialdean, askok —gazte zein zahar— jateari uko egiten diote argalak izatearren. Anorexia ohiko gai bihurtua da, bai liburuetan, bai filmetan, eta abarretan. Hala eta guztiz ere, emakumeek barneratua dute argala izateak edo ez izateak baldintzatzen ditue- la beren meritua, edertasuna eta balio intrintsekoa, eta alferrik da inongo aholkurik ematea hori saihesteko.

Gaur egungo moda-aldizkarietan, gerta daiteke anorexiaren arriskuei buruzko artikulu bat argitaratzea eta aldi berean irakurleak bonbardatzea gorputz gazte zargalduen irudiekin, edertasunaren eta desiragarritasunaren gailurra balira bezala. Mezu nahasgarri hori are kaltegarriagoa da sekula feminismoa aldarrikatu ez dutenentzat. Hala, azkenaldiko ekintza feministetan, emakume-gorputzen berezko edertasuna berresteko ahaleginak eraberritzea izan da helburua.

Gaur egungo neskek, askotan, beren gorputza gorrotatzen dute, feminismoaren aurretik bezalaxe. Mugimendu feministak emakumeen aldeko aldizkari mota ugari sortu zituen, baina ez zegoen moda-aldizkari feminista bakar bat ere emakumeoi edertasunaren gaineko ikuspegi alternatiborik eskaintzen zigunik. Irudi sexistak kritikatzeko horren alternatibarik eskaini gabe hankamotz geratzen da. Kritikak, bere-berez, ez dakar aldaketarik. Ildo horretan, edertasunaren gaineko kritika feminista askok emakumeak nahasi besterik ez dute egin aukera osasungarri bat zer den erabakitzeko orduan. Emakume heldua izaki eta nire bizitzan inoiz ez bezala gizentzen ari naizen heinean, kiloak galdu nahi ditut nire gorputzarekiko autogorroto sexistan erori gabe. Gaur egun, modaren munduan, kontsumitzaileen aldean batik bat, neska nerabeen gorputz ikaragarri argalentsat diseinatua dirudien arropa da araua; alegia, adin guztietako emakumeok kontzienteki edo inkontzienteki sozializatzen gaituzte gure gorputzen gainean antsietatea izan dezagun, gure haragia arazo gisa ikus dezagun. Zorionez, zenbait dendatan, neurri eta forma guztietako emakume-arropa polita saltzen dute; alabaina, askotan, halako arropa askoz garestiagoa izaten da moda-industriak jende gehienari eskaintzen dion arropa merkeagoa baino. Gaur egungo

moda-aldizkariak gero eta antz handiagoa dute garai bateko aldizkariekin. Sinatzaileak gizonak izaten dira, gero eta gehiago. Artikuluak gutxitan idatziak dira ikuspegi feminista batetik edo gai feministei buruz. Eta ordezkatzan duten moda motari sexismoa dario.

Aldaketa guztioi ez ikusiarena egin zaie jendarean, helduarora iritsiak diren emakume feminista askok aukeratzeko askatasuna baliatzen dutelako eta edertasun-eredu alternatibo osasungarriak bilatzen dituztelako. Hala eta guztiz ere, alde batera uzten badugu edertasunari buruzko ikuspegi sexistak guztiz deuseztatzeko borroka, gure gorputza eta geure burua onartzen eta maitatzen irakatsi ziguten esku-hartze feminista bikainak hondatzeko arriskuan egongo gara. Nahiz eta emakume guztiok kontzientegoak garen emakumeen edertasunaren gaineko ikuspegi sexistekin bat egiteak dakartzan arazo eta arriskuez, ez dugu nahikoa egiten arriskuok ezabatzeko eta alternatibak sortzeko.

Joera patriarkalek edertasunaren industria alderdi guztietatik gidatzea onartzen badugu, neska gazte eta nerabeek ez dute jakingo pentsalari feministok ere aintzat hartzen ditugula edertasunaren eta apainduriaren balioa. Emakumeek edertasunarekiko duten jaidura zorrozki gaitzesteak feminismoa ahuldu du. Hedabideek gaitzespen hori erakutsi ohi dute feministen pentsaeraren ezaugarritzat, nahiz ez den pentsaerarik ohikoena. Feministok edertasunaren industriara eta modara itzuli eta iraultza etengabeko eta iraunkor bat bultzatzen ez dugun bitartean, ez gara aske izango. Ez dugu jakingo nola maitatu gure gorputzak eta geure burua.

ZAZPI

KLASE-BORROKA FEMINISTA

Mugimendu feministako emakumeek aspaldi ekarri zuten hizpidera klase-desberdintasunaren gaia eta horrek nola banatzen dituen emakumeak, are arrazaren gaia baino askoz lehenago. Emakumeen askapenerako mugimendu sortu berrian, zeina batez ere emakume zuriek osatua baitzen, emakumeen arteko bereizketa nabarmenena klase-bereizketa zen. Langile-klaseko emakume zuriek ere onartu zuten mugimenduaren barnean bazirela klase-hierarkiak. Gatazka ikuspegi erreformistaren eta eredu erradikalagoaren edo iraultzailearen artean sortu zen: erreformistek gizonen eskubide berak eskatzen zituzten emakumeentzat, indarrean zegoen klase-egituraren barnean; erradikalek, berriz, egitura errotik aldatzea galdatzen zuten, mutualitate- eta berdintasun-ereduek ordezkatu zituzten paradigma zaharrak. Nolanahi ere, mugimendu feministak aurrera egin ahala eta emakume zuri ikasien talde pribilegiatuek gizon zuri pribilegiatuek bezala klase-boterea lortu ahala, klase-borroka feministak garrantzia galdu zuen.

Mugimenduaren hasiera-hasieratik, klase pribilegiatuetakoa emakumeek beren kezka mugimendu osoaren langai nagusi izatea lortu zuten, neurri batean berek biltzen zutelako publikoaren arreta gehiena. Hedabideak erakartzen zituzten. Emakume langileen eta beste emakume askoren arazoak, aldiz, sekula ez ziren agertzen hedabide nagusietan. Betty Friedan-ek, *The Feminist Mystique* [Mistika feminista] lanean, «izenik gabeko arazoa» identifikatu zuen: emakumeek atsekabea sentitzen zuten etxean etxekoandre gisa itxita eta menderatuta egoteagatik. Dena den, arazo hori emakume guztien krisia zela esaten zen arren, egiaz, emakume zuri ikasi gutxi batzuen arazoa besterik ez zen. Berak etxean itxita egotearen arriskuez kezkatzen ziren bitartean, herrialdeko emakume gehienak lanean ari ziren. Emakume langile haietako askok orduak eta orduak ematen zituzten lanean soldata txiki baten truke, eta, horretaz gainera, etxeko lanak ere egin behar izaten zituzten; haientzat, beraz, etxean geratzeko eskubideak «askatasuna» esan nahi zuteen.

Arraza guztietako emakume pribilegiatuak etxetik kanpo lanik ez egitearen arazoia ez zen genero-diskriminazioa edo zapalkuntza sexista, baizik eta soldata txikiko enplegu ez-espezializatueta jardun behar izatea, gainerako emakume langileak bezala. Goi-mailako ikasketak zeuzkaten eliteko emakumeak etxean geratzen ziren, beheko eta erdiko klaseetako eta langile-klaseko emakume asko eta asko aritzen ziren lan motetan aritu beharrean. Noizbehinka, haientariko batzuk, arauari aurre egin, eta etxetik kanpo lan egitera ateratzen ziren, beren prestakuntza-mailatik behar lanak egitera, beren senar eta familien aurkakotasunari buru eginda. Aurkakotasun hori dela eta, genero-diskriminaziozko afera bat bilakatu zen

etxetik kanpo lan egitea, eta, ondorioz, patriarkatuari aurre egitea eta klase bereko gizonen eskubide berak aldarrikatzea aukeratu zuen feminismoak plataforma politiko gisa, klase-borroka alboratuz.

Hasieratik, klase-pribilegioak zituzten emakume zuri erreformistek bazekiten beren klase bereko gizonen botere eta askatasun berak nahi zituztela berentzat. Etxeko esparruan gizonen nagusikeria patriarkalari aurre eginez, gizonen nagusikeriaz asper-tuta zeuden beste emakume batzuekin bat egin zuten, klaseez haraindi. Dena den, emakume pribilegiatuek soilik amestu zezaketen etxetik kanpo lan egin eta era horretan diru-sarrera nahikoak eskuratzea ekonomiki burujabeak izateko. Langile-klaseko emakumeek bazekiten berek jasotzen zituzten soldatek ez zieten askatasunik ekarriko.

Emakume pribilegiatuen taldeek ahalegin erreformistak egin zituzten lan-mundua aldatzeko, emakume langileek gehiago kobratzeko, eta genero-diskriminazioa eta -jazarpena gutxitzeko, eta horrek guztiak eragin onuragarria izan zuen emakume guz-tien bizitzan. Eta lorpenok garrantzitsuak dira. Hala eta guztiz ere, pribilegiatuek klase-boterea eskuratzen zuten bitartean, emakume askok eta askok oraindik ere ez zuten jasotzen gizonen soldata bera; alegia, garbi dago klase-interesak jarri zirela feministek lan-mundua aldatzeko eta lan beraren truke soldata bera jasotzeko egindako ahaleginen gainetik.

Pentsalari feminista lesbianak izan ziren lehen aktibistak klasearen arazoa mugimendu feministaren barnean azaleratzen: beren ikuspuntuak hizkuntza ulergarri batean azaldu zituzten. Haientzat, imajinae-zina zen senarren mende egotea ekonomikoki. Eta, askotan, emakume feminista heterosexualak baino

askoz ere kontzienteagoak ziren emakumeek lanean aurre egin beharreko zailtasunei buruz. 1970eko hamarkadaren hasieran, giro feministetan gai hori lantzen arituak ziren hainbat klasetako emakumeen lanak argitaratu ziren; besteak beste, Charlotte Bunch eta Nancy Myron-en *Class and Feminism* [Klasea eta feminismoa] antologia. Bada, antologia horretako artikulu guztietan nabarmentzen da klasea ez dela diru-kontua bakarrik. Rita Mae Brown-ek (idazle ospetsua garai hartan) honela dio «The Last Straw» [Azken tanta] testuan:

Klasea Marxek definituriko ekoizpen-bideekiko harremana baino askoz gehiago da. Klasean sartzen dira zure jokamoldea, zure oinarrizko ustekizunak, nola irakasten dituzten portatzen, zer espero duzun zeure buruarengandik eta besteengandik, nola ikusten duzun etorkizuna, nola ulertzen eta konpontzen dituzun arazoak, nola pentsatzen duzun, nola sentitzen zaren, nola jokatzeko duzun.

Aktibista haiek klase guztietako emakumeek osaturiko talde feministetan aritu ziren, eta lehenak izan ziren ikusten klasearen arazoari aurre egin arte ez zutela inongo ahizpatasun politikorik lortuko emakume guztiak elkartu eta patriarkatuaren aurka egiteko.

Klasearen arazoa agenda feministetan sartu zenean, esparru bat zabaldu zen klase —eta arraza— intersektionalitatea mahai gainera ateratzeko. Gure gizartean, arraza-, sexu- eta klase-sistema instituzionalizatuaren barnean, emakume beltzak hierarkia ekonomikoaren behe-behean zeuden, argi eta garbi. Hasieran, langile-klaseko emakume zuri ikasiek klase guztietako emakume beltzek baino ikusgaitasun handiagoa zuten mugimendu feministaren barnean. Gutxiengoak ziren mugimenduaren barnean, baina

berena zen esperientziaren ahotsa. Beren klase pribilegiatuko arraza guztietako burkideek baino hobeki zekiten zer kostu zekarren arraza-, klase- eta genero-nagusikeriari buru egiteak. Bazekiten, halaber, zer zen norberaren egoera ekonomikoa aldatzeko borroka egitea. Askotan, haien eta haien klase pribilegiatu bereko burkideen artean gatazkak sortzen ziren jokamolde egokiari buruz edo feminismoaren funtsezko kezka gisa aurkeztuko ziren gaii buruz. Mugimendu feministaren barnean, klase pribilegiatuko emakumeek, zeinak sekula parte hartu gabeak baitziren askatasunaren aldeko ezkerreko borroketan, klase-borroka politikaren oinarriak ikasi zituzten; horretarako, aurre egin zieten pribilegio gutxiagoko emakumeek jotako erronkei, eta, prozesuan zehar, asertiboak izaten eta gatazkak konpontzeko bide konstruktiboak eraikitzen ikasi zuten. Baina, jarrera konstruktiboak hartu arren, emakume zuri pribilegiatu askok feminismoa berei balegokie bezala eta beren ardurapean balego bezala jokatzeko segitu zuten.

Patriarkatu nagusiak ere berresten zuen klase pribilegiatuetako emakumeen kezka zirela aintzat hartu beharreko bakarrak. Feminismo erreformistaren helburua emakumeentzako berdintasun soziala lortzea zen, baina betiere indarrean zegoen egituraren barnean. Emakume pribilegiatuek beren klase bereko gizonetikiko berdintasuna nahi zuten. Klase horretan sexismoa nagusi bazen ere, ez zuten langile-klaseko gizonen patu bera nahi. Feministak, beraz, ahaleginean ari ziren emakumeek beren klase bereko gizonetikiko berdintasun soziala lor zezaten, eta, ildo horretatik, supremazismo zuri kapitalista patriarkala beldur zen zurien boterea ahulduko ote zen ez-zuriek botere ekonomikoa eta pribilegiarako aukera-berdintasuna

erdietsiz gero. Azkenerako botere zuriaren feminismo erreformista bilakatua zenari lagunduz, patriarkatu supremazista zuri nagusiaren boterea sendotu zen, eta, aldi berean, feminismoaren politika erradikala ahuldu.

Pentsalari feminista iraultzaileak izan ziren bakarrak sumina adierazi zutenak mugimendu feministaren kooptazio haren aurrean. Gure kritikak eta gure suminak oihartzuna izan zuten hedabide alternatiboetan. Mary Barfoot aktibista zuri erradikalak zera idatzi zuen, ausardiaz idatzi ere, *The Coming of Black Genocide* [Genozidio beltzaren etorrera] artikulu-bilduman:

Emakume zuri batzuek, minez eta suminez, pentsatzen zuten 1970eko urteetako emakumeen mugimenduak ahizpatasuna esan nahi zuela, eta traizionatuta sentitu ziren emakume gora-nahien aldetik, patriarkatuaren etxera itzuli zirenen aldetik. Baina emakumeen mugimenduak ez zuen inoiz alde batera utzi Aita Zakilaren alderdia... Ez zen gerrarik egon. Ezta askapenik ere. Genozidioaren onuren zati bat jaso genuen, eta pozik geunden. Patriarkatuaren Arrebak gara, eta babesten ditugu zapalkuntza nazionala eta klase-zapalkuntza. Mundu-mailako euroinperialismoa da patriarkatuaren aldaera gorena. Zakilaren arrebak bagara eta berak daukana nahi badugu, azken batean, berak daukan hori eman zion sistema babesten ari gara.

Izan ere, emakume feminista askorentzat, errazagoa zen eta errazagoa da pentsamolde supremazista zuritik askatzea beren klase-elitismotik baino.

Emakume pribilegiatuek beren klase bereko gizonekin batera botere ekonomikoa erdietsi ahala, klaseari buruzko eztabaida feministak asko urritu ziren. Horren ordez, emakume aberatsen irabazi ekonomikoak emakume guztien aldeko seinale on gisa ikustera bultzatzen gintuzten emakumeok. Baina,

egiaz, irabaziok ez zuten inolaz ere aldatzen emakume pobreen eta langile-klasekoen patua. Gizon pribilegiatuek, gainera, ez zituzten ardura berak bereganatu etxeko zaintza-lanetan; beraz, klase pribilegiatuko arraza guztietako emakumeen askatasunak emakume pobreak eta langile-klasekoak beti mendean egotea eskatzen zuen. 1990eko hamarkadan, indarrean zegoen gizarte-egiturarekin bat egitea izan zen «emakumeen askapen»aren truke ordaindu beharreko prezioa. Azkenean, klase-botereak agerian utzi zuen feminismoa baino garrantzitsuagoa zela. Eta azpikeria horrek mugimendu feminista desorekatu zuen.

Emakumeek gizonen jarrera bera hartu eta klase-estatus eta -botere handiagoa lortu zutenean, feminismoa ahuldu zen. Emakume asko traizionatuta sentitu ziren. Erdiko eta beheko klaseko emakumeek lan-munduan sartzera behartuta ikusi zuten beren burua, feminismoaren ethosak bultzaturik, eta, errealtate gogorarekin topo egin zutelarik, ez ziren askatuta sentitu, etxetik kanpo lan egiteak ez baitzuen esan nahi etxeko lanak berdin banatuko zirenik gizonen eta emakumeen artean. Adostasunezko dibortzioak etekin ekonomiko handiagoa zekarkien gizonen emakumeei baino. Emakume beltz eta koloreko askok ikusi zutelarik klase pribilegiatuetako emakume zuriek gainerakoek baino etekin ekonomiko handiagoa ateratzen zutela feminismo erreformistaren lorpenei esker, generoa arraza-diskriminazio positiboan txertatzeari esker, haien beldurrak berretsi ziren: feminismoaren egiazko asmoa zurien boterea areagotzea zen. Feminismoaren traizio handiena zera izan zen: masa-protesta feministarik ez antolatzea Gobernuak emakume ezkongabeen aurka egindako erasoan eta ongizate-sistema sunsitzeko ahaleginaren aurrean. Emakume pribilegiatuek,

askok beren burua feministatzat eduki arren, alde batera utzia zuten «pobreziaren feminizazio»aren afera.

«Botere-feminismo»aren ahotsek leku gehiago izan ohi dute hedabideetan klase-pribilegiorik ez dutenenganako solidaritateari traizio egin gabe klase-boterea lortu duten banakako emakume feministek baino. Feminismoarekin zintzoak izanda, gure helburua zera zen: ekonomikoki burujabeak izatea eta beste emakume batzuei laguntzea beren egoera ekonomikoa hobetzeko egiten ari ziren ahaleginean. Eta horixe da gure helburua gaur egun ere. Gure bizipenetatik abiatuta, ez dugu onartzen emakumeek irabazi ekonomikoak lortzeko modu bakarra izatea indarrean dagoen patriarkatu kapitalistarekin eskuz esku jardutea. Herrialde osoan zehar badira klase-boterea izanik aldaketa sozialaren gaineko ikuspegi iraultzailea duten feministak: baliabideak partekatzen dituzte, eta beren boterea erabiltzen dute emakumeon bizi-tza hobetzeko erreformak babesteko, emakumeon klasea zeinahi dela ere.

Askapen feministaren egiazko itxaropen bakarra klase-elitismoari aurre egiten dion aldaketa sozialaren ikuspegia da. Mendebaldeko emakumeek klase-boterea lortzea eta genero-desberdintasuna areagotzea patriarkatu supremazista zuri globalak hirugarren munduko emakume asko eta asko esklabo bihurtzeari edo menderatzeari zor zaio. Estatu Batuetan, kartzela-industria gero eta indartsuago baten eta *workfare*¹ ereduan oinarrituriko ongizate-sistema baten inda-

1 *Workfare: workfare* (edo *welfare to work*) eredia Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan garatu zen, nagusiki 1990eko hamarkadatik aurrera. Eredu horren helburua gizarte-laguntzen kostua gutxitzea eta langabeak ahalik eta azkarren lan-merkatuan sartzea da. Horretarako, dirulaguntzak murrizten dira, eta halakoak jasotzeko baldintzak zorrotzen. (Oin-ohar guztiak itzultzailearenak dira.)

rrak batuz, immigrazio-politika kontserbadore batekin batera, kontratupeko esklabotzarako baldintzak sortu eta onetsi dira. Ongizate-sistema deuseztatuz gero, emakume eta haurren beste azpiklase bat sortuko da, menderakuntzazko egiturek azpiratua eta esplotatua.

Ikusirik nola aldatu den klase-errealitatea gure herrialdean, nola areagotu den aberatsen eta pobreen arteko arrakala eta nola ari den pobrezia etengabe feminizatzen, hil edo bizikoa dugu masa-mugimendu feminista erradikal bat, iraganeko indarren gainean eraikia eta erreformei esker lorturiko onurak kontuan hartzen dituen baina gaur egungo teoria feministaren okerbideak zalantzan jartzen dituen eta estrategia berriak eskaintzen dizkiguna. Mugimendu aurrerakoi bat emakume pobreen eta langile-klasekoen baldintza konkretuetan oinarrituko litzateke. Horrek esan nahi du kontzientzia kritikoarekin hezteari bide ematen dion mugimendu bat sortu behar dugula, zeinean emakumeek —klase-boterea duten emakume feministek— etxebizitza merkeak eraikitzeko proiektuak jarri behar bailituzkete abian, emakume guztiek beren jabetzapeko etxea izan dezaten. Etxebizitza-kooperatibak sortuko balira printzipio feministetan oinarriturik, agerian geratuko litzateke zein garrantzitsua den borroka feminista emakume guztion bizitzan.

Klase-boterea duten emakumeek, oportunitate hutsez erabiltzen badute plataforma feminista eta, ondorioz, feminismoa ahuldu eta azkenerako berak ere mende hartuko dituen sistema patriarkal bat mantentzen laguntzen badute, ez diote traizio egiten feminismoari, baizik eta beren buruari. Klase-etabaidara itzuliz, emakume eta gizon feministek berrezarriko dituzte solidaritaterako beharrezkoak diren baldintzak. Orduan, errazago imajinatuko dugu

mundu bat non baliabideak partekatzen diren eta pertsona gisa hazteko aukerak ugaritzen diren denontzat, bakoitza zer klasetakoa den gorabehera.

ZORTZI

FEMINISMO GLOBALA

Askatasunaren aldeko mundu osoko emakume borrokalariak inoren laguntzarik gabe jardun dute patriarkatuaren eta gizonen nagusikeriaren aurka. Kontuan izanik planetako lehen biztanleak ez zirela zuriak, emakume zuriak ez ziren lehenak izango, seguruenik, gizonen nagusikeriaren aurka altxatzen. Mendebaldeko kultura supremazista zuri kapitalista patriarkalean, pentsamolde neokolonialistak gidatzen ditu praktika kultural asko. Pentsamolde horri axola zaiona zera da: nork konkistatu duen lurralde bat, norena den hau edo bestea, nork duen agintzeko eskubidea. Feminismo garaikidea, baina, ez zen sortu neokolonialismoaren aurkako erantzun erradikal gisa.

Klase pribilegiatuko emakume zuriak berehala hartu zuten mugimenduaren «jabetza», jarraitzaileen posizioan utziz langile-klaseko emakume zuriak, emakume zuri pobreak eta koloreko emakume guztiak. Ez zuen axola langile-klaseko zenbat emakume zuri edo zenbat emakume beltz izan ziren aitzindariak emakumeen mugimendua jarrera erradikaletara eramaten.

Azkenean, klase-boterea zuten emakume zuriak adierazten zuten mugimendua berena zela, berak zirela liderrak eta gainerakoak jarraitzaile husak. Neokolonialismo garaikidean, klase-harreman parasitarioek itzalpean utzi zituzten arrazarekin, nazioarekin eta generoarekin loturiko arazoak. Eta feminismoa ere ez zen geratu dinamika horretatik urruti.

Hasieran, Estatu Batuetako lider feministek genero-berdintasunaren beharra aldarrikatu zutenean, ez zuten ahaleginik egin jakiteko ea antzeko mugimendurik sortu ote zen emakumeen artean munduan barrena. Aitzitik, askatutzat jo zuten beren burua, eta, horrenbestez, iruditzen zitzaien bazutela zilegitasuna beren ahizpa dohakabeak askatzeko, bereziki «hirugarren mundu»koak. Paternalismo neokolonial hori baliatu zuten, hain zuzen, koloreko emakumeak bazterrean uzteko, emakume zuri kontserbadore eta liberalak ager zitezen feminismoaren benetako ordezkari gisa. Emakume zuri erradikalak ere ez dira «ordezkatuak» izaten, eta, ordezkatuak direnean, bazterreko elementu arraroak balira bezala agertzen dira. Horregatik, ez da harritzekoa 1990eko hamarkadako «botere-feminismo»ak emakume zuri heterosexual aberatsen irudia hartzea arrakasta feministaren adibidetzat.

Egia esan, berdintasunari buruzko erretorika feministaren bereganatze hegemoniko horrek klase agintariekiko atxikimendua mozorrotzen lagundu zien patriarkatu supremazista zuri kapitalistaren barnean. Feminista erradikalak lur jota geratu ziren ikusirik nola hainbat eta hainbat emakume (arrazaz guztietakoak) hizkera feministaz jabetzen ziren aldi berean Mendebaldeko inperialismoarekiko eta kapitalismo transnazionalarekiko konpromisoari eutsita.

Estatu Batuetako feministek arrazoi zuten aldarrikatzen zutelarik arreta jarri behar zela emakumeentzako berdintasun globalean; arazoa zen klase-boterea zuten feminista batzuek fantasia inperialistak proiektatzen zituztela munduko gainerako emakumeen gainean. Eta, fantasia horietatik handienaren arabera, Estatu Batuetako emakumeek munduko beste edozein emakume-taldek baino eskubide gehiago zituzten; «askeak» izango dira hala nahi badute, eta, horrenbestez, badute eskubidea mugimendu feminista gidatzeko eta munduko beste emakume guztien helburu feministak ezartzeko, batik bathirugarren munduko herrialdeetako emakumeena. Pentsamolde hori, baiki, Mendebaldeko gizon menderatzaileen sexismoaren eta arrazakeria inperialistaren ispilu hutsa da.

Estatu Batuetako emakume gehienek ez dituzte ez ezagutzen ez erabiltzen *kolonialismo* eta *neokolonialismo* terminoak. Iparramerikar emakume gehienek, bereziki emakume zuriek, ez dute beren pentsamoldea deskolonizatu arrazakeriarekin, sexismoarekin eta klase-elitismoarekin loturiko gaietan, halako jarrerei eusten baitiete botere gutxiagoko emakume-taldeen aurrean, bai gure gizartean, bai mundu-mailan. Pentsalari feminista ezjakinek neokolonialismoaren ikuspegitik heltzen zieten genero-esplotazioko eta -zapalkuntzako gai globalei, eta hala da gaur egun ere. Esanguratsua da emakume zuri erradikalek hauxe nabarmendu izana *Night-Vision: Illuminating War and Class on the Neo-Colonial Terrain* [Gaueko ikuspegia: esparru neokolonialistan gerra eta klasea argitara ateratzen] lanean: «Neokolonialismoa ez ulertzea orainean bete-betean ez bizitzea da». Feminista zuri ezjakinak ez zeuden prest onartzeko patriarkatu supremazista zuri inperialista kapitalistarekin eskuz esku jarduten

zutela eta jarduten dutela Estatu Batuetako bizitzako esparru batzuetan; hori dela eta, emakume beltzen eta kolorekoen eta gure ahizpa zuri erradikalen etengabe-ko protesta eta erresistentzia beharrezkoak izan ziren ukapenaren horma hausteko.

Nolanahi ere, aktibista feminista ugarik bere egin bazuten ere arraza, generoa, klasea eta nazionalitatea aintzat hartzen zituen ikuspegia, «b-tere-feminista» zuriak berenari eutsi zioten, hau da, emakumeen berdintasuna inperialismoarekin lotzen zituen feminismoaren irudi bat proiektatzen jarraitu zuten, eta hala jarraitzen dute gaur egun ere. Mundu osoko emakumeen arazoak garrantzitsuak dira, hala nola emakumeen ablazio behartua, Tailandiako prostituzio-etxeak, emakumeen buruko zapia (Afrikan, Indian, Ekialde Hurbilean eta Europan) eta Txinako neskatoen hilketak. Nolanahi ere, Mendebaldeko emakume feministek pentsamolde eta praktika feministak deskolonizatzeko borrokan dihardute oraindik ere, halako arazoei heltzeko Mendebaldeko inperialismoa erreproduzitu gabe. Errepara diezaiogun nola aurre egin dioten Mendebaldeko emakumeek, zuri zein beltz, Afrikako eta Ekialde Hurbileko emakumeen ablazioaren arazoari. Halako herrialdeak «barbarotzat eta ez-zibilizatutzat» hartzen dira askotan, eta hango sexismoa, Estatu Batuetakoa baino askoz basatiagotzat eta arriskutsuagotzat.

Ikuspegi feminista deskolonizatu batek lehenik eta behin aztertuko luke zer lotura dagoen mundu-mailan praktika sexisten eta emakumeen gorputzen artean. Adibidez: aztertuz gero zer lotura dagoen ablazioaren eta elikadura-nahasmendu larrien artean (zeinak argal egotea edertasun idealtzat inposatzen duen kultura baten ondorio zuzenak baitira), edo

ablazioaren eta kirurgia estetiko halaber arrisku-tsuaren artean, nabarmen geratuko litzateke halako praktiken atzean dauden sexismoa eta misoginia gure herrialdeko sexismo globalaren ispilu direla. Arzoei era horretan helduz gero, ez dugu Mendebaldeko inperialismoa erreproduzituko, eta kapitalismo transnazionalak ez du feminismoa irentsiko Mendebaldeko emakumeen luxuzko produktu bat balitz bezala eta beste kultura batzuetako emakumeek borroka egin behar balute bezala hura kontsumitzeko eskubidea lortzearren.

Estatu Batuetako emakume erradikalek aurre egiten ez badiete feministak balira bezala klase-oportunismoz jokatzten duten emakume-taldee, klase-botere nagusiak gidatuko du Mendebaldeko feminismo globala, aurreiritzi zaharrei eutsiz. Feminista erradikalek mundu zabalean barrena egiten duten lanak emakumeen arteko solidaritate politikoa sendotzen du egunez egun, arrazen, etnizitateen eta nazionalitateen gainetik. Hedabide nagusiek oso bakanka jartzen dute arreta halako esku-hartze onuragarrietan. Zillah Eisensteinek honako ideia hau dakar *Hatreds: Racialized and Sexualized Conflicts in the 21 st Century* [Gorrotokak: xxi. mendeko arraza- eta sexu-gatazkak] lanean:

Feminismo transnazionalak (edo transnazionalak) —hau da, arraza- eta genero-muga faltsuak eta «beste»aren eraikuntza faltsua ukatzen dituenak— aurre egiten die nazionalismo maskulinistari, estatu-komunismoaren distortsioei eta merkatu «libre»ko globalismoari. Banakoen aniztasuna onartzen du, baita askatasuna eta berdintasuna ere, eta Ipar/Mendebaldearen eta Hego/Ekialdearen arteko elkarrizketen bidez eta haietatik harago definitzen da.

Feminismo globalaren garapena aztertu duen inork ezin ukatuko luke zein lan garrantzitsua ari di-

ren egiten emakumeak gure askatasunaren alde. Inork ezin ukatuko luke Mendebaldeko emakumeek —batez ere Estatu Batuetakoek— ekarpen handia egin diotela borroka honi eta oraindik eta ekarpen handiagoa egin behar luketela. Feminismo globalaren helburua borroka globalekin kontaktatzea eta elkartzea da, sexismoa, esplotazio sexista eta zapalkuntza deuseztatzeko.

BEDERATZI

EMAKUMEAK LANEAN

Estatu Batuetan, emakume guztien erdiak baino gehiago ari dira lanean. Mugimendu feminista garai-kidea sortu zenerako, emakumeen heren bat baino gehiago ari zen lanean. Nire ingurune afro-amerikarra langile-klasekoa izaki, ezagutzen nituen emakume gehienak lanean ari ziren, eta, mugimendu feministaren hastapenetan pentsalari erreformistek proposaturiko ikuspegiaren aurrean, ni neu izan nintzen haren aurkako ahots gogorrenetako bat, emakumeak gizonen nagusikeriatik askatzeko bidea lana zela aldarrikatzen baitzuen. Duela hamar urte baino gehiago, zera idatzi nuen *Feminist Theory: From Margin to Center* liburuan:

Lana emakumeen askapenerako giltzat hartzen zenez, aktibista feminista zuri askok azpimarratu zuten lanean ari ziren emakumeak «askeak zirela». Baina, egiaz, zera esaten ari zitzaizkien emakume langile gehienei: «Mugimendu feminista ez da zuen kontua».

Baina nik lehen eskutik nekien soldata baxuen truke lan egiteak ez zituela emakume pobreak eta lan-gile-klasekoak askatuko gizonen nagusikeriatik.

Klase pribilegiatuko pentsalari feminista erreformisten helburu nagusia beren klase bereko gizonekiko berdintasun soziala lortzea zen, eta, lana eta askapena maila berean paratu zituztelarik, ongi ordaindutako lanak zituzten buruan. Baina haiek lanaz zuten ikuspegiak ez zuen ia baliorik emakume gehienentzat. Dena den, feminismoak ardaztat hartu zuen emakume guztiei zegokien eskaera bat: lan beraren truke, soldata bera. Protesta feministei esker, emakumeek eskubide gehiago lortu zituzten soldaten eta lanpostuen esparruan, baina genero-diskriminazioa ez zen guztiz desagertu. Gaur egun ere, unibertsitate askotako emakume eta gizon ugarik uste dute mugimendu feminista ez dela garrantzitsua, emakumeak berdintasunean bizi direlakoan. Ez dakite emakume gehienek oraindik ez dutela batez beste soldata bera jasotzen lan beraren truke: gizon batek jasotzen duen dolar bakoitzeko, hirurogeita hamahiru zentimo jasotzen ditugu guk, gutxi gorabehera.

Orain badakigu lanak ez dituela emakumeak gizonen nagusikeriatik askatzen. Badira diru asko irabazten duten emakume profesional asko, emakume aberats asko, gizonekin harremanak dituztenak baina betiere gizonen nagusikeria araua izanda. Zorionez, badakigu emakume batek ekonomikoki burujabea izateko aukera izan eta askapenaren bidea aukeratzen badu segur aski bertan behera utziko dituela gizonen nagusikeriaren araupean eraikitako harremanak. Bertan behera utziko ditu, ahal duelako. Pentsamolde feministarekin konprometitzen diren emakume askok askapenaren bidea aukeratzen dute, baina ekonomi-

koki lotuta daude gizon patriarkalekin, eta, horrela, zaila da —ezinezkoa ez esateagatik— halako harremanetatik ateratzea. Emakume gehienek orain badakite mugimenduaren hastapenetan gutariko batzuok ere bagenekien zerbait: lanak ez gaituela nahitaez askatuko baina horrek ez duela aldatzen burujabetza ekonomiko beharrezkoa izatea emakumeak askatzeko. Beraz, burujabetza ekonomiko aipatzen badugu —lana baino gehiago— askapenerako bide gisa, hurrengo pausoa izan behar litzateke zehaztea zer lan motak askatuko gaituen. Gauza ageria da ongi ordaindutako enpleguek eta ordutegi erosoak eskaintzen dituztenek askatasun handiagoa ematen dietela langileei.

Emakume asko eta asko suminduta daude, feminismoak sinetsarazia baitzien lanean hasiz gero askapena lortuko zutela. Haietariko gehienek ikusi dute lanordu asko egin behar dituztela etxean zein etxetik kanpo. Mugimendu feministak emakumeak etxetik kanpo lan egiteko adoretu aurretik ere, krisi ekonomikoaren beharrezanek dagoeneko ekarria zuten aldaketa hori. Mugimendu feminista garaikidea sortu ez balitz ere, emakumeok berdin-berdin sartuko ginatkeen lan-munduan, baina uste izatekoa da feministek genero-diskriminazioari aurre egin ez baliote ez genituzkeela izango orain ditugun eskubideak. Emakume askok pentsatzen dute feminismoa dela berek lan egin behar izatearen «erruduna», baina oker daude. Egiari zor, kapitalismo kontsumistak bultzatu zituen emakume gehienak lan-munduan sartzera. Krisi ekonomikoaren eraginez, erdiko klaseko familia zuriei ezinezkoa izango zitzaiekeen beren klase-estatusari eta bizimoduari eustea emakumeek etxekoandre soil izateko ametsari eutsi eta etxetik kanpo lan egitea aukeratu ez balute.

Ikerketa feministetan dokumentatu bezala, emakume askok eta askok lan-munduan sartzeari esker lorturiko onurek zerikusi handiagoa dute autoestimua hobetzearekin eta komunitatean gehiago parte hartzearekin. Klasea gorabehera, etxean lanean geratzen ziren emakumeak bakartuta, bakarrik eta depresioak jota egoten ziren askotan. Langileak, ordea —izan emakume, izan gizon—, nahiz lanean seguru ez sentitu, zerbait handiagoaren parte sentitzen dira. Etxeko arazoen estres handiagoa dakarte, eta zailak dira konpontzen; lanekoak, aldiz, edonori kontu dazkizkioke, eta konponbideak bilatzea ez dago pertsona bakar baten esku. Etxetik kanpo gehienbat gizonen lan egiten zutenean, emakumeek buru-belarri lan egin behar izaten zuten etxean, gizonen leku eroso eta lasai bat izan zezaten. Senarra eta seme-alabak etxean ez daudenean, etxea leku lasai bat da emakumeentzat, baina orduan bakarrik. Denbora guztian besteen beharrak asetzen ibili behar dutenez, etxea lantokia da etxean geratzen diren emakumeentzat, eta ez lasaitzeko, eroso egoteko eta gozatzeko leku bat. Etxetik kanpo lan egitea, beraz, askatzaileagoa izan da emakume ezkongabeentzat (haietariko asko bakarrik bizi dira, eta litekeena da gehienak heterosexualak ez izatea). Emakume gehienek ez dute lortu gogoko lan bat izatea, eta lan-munduan parte hartzeak beren etxeko bizitzaren kalitatea kamustu du.

Feminismoak enplegu-diskriminazioaren esparruan lorturiko aldaketei esker, goi-mailako ikasketak zeuzkaten emakume pribilegiatu batzuek, lehenago langabezia egonak edo lan prekarioetan arituak berak, lan gogokoagoetan aritzeko aukera lortu zuten, eta hori oinarrizkoa izan da burujabetza ekonomikorako. Dena den, horrek ez du aldatzen gainerako emakumeen

patua. Duela zenbait urte, gai horretaz idatzi nuen *Feminist Theory: From Margin to Center* lanean:

Kontuan izanik mugimendu feministaren helburu nagusietako bat emakumeen lan-baldintzak hobetzea izan dela, eta baita ongi ordaindutako enpleguak lortzea eta klase guztietako emakume langabeentzat enplegua bilatzea ere, emakume guztion kezkei aurre egiten dien mugimendu gisa ikusi behar genuke feminismoa. Feminismoak lehentasuna eman zionez karrera profesionalari eta emakumeek ongi ordaindutako lanetan jarduteari, mugimendu feministako emakume asko eta asko alienatuta sentitu ziren, baina ez hori bakarrik: aktibista feministak ez ziren ohartu gero eta emakume burges gehiago lan-munduan sartzeak ez zuela esan nahi emakumeen botere ekonomikoa areagotzen ari zenik. Emakume pobre eta langile-klasekoen egoera ekonomikoari erreparatu izan baliote, berehala ikusiko zuketena gero eta langabe gehiago eta klase guztietako gero eta emakume pobre gehiago zegoela.

Pobrezia emakumeen arazo nagusietako bat da gaur egun. Patriarkatu supremazista zuri kapitalista gure gizarteko ongizate-sistema suntsitzen ahalegindu da, eta horrek bizitzeko oinarritzko premiak ere ez asetzea ekarriko die emakume pobre eta behartsuei: etxebizitza eta elikadura. Horren aurrean, gizonen mendeko etxe patriarkalera itzultzea eta gizonak diru-iturri bakarra izatea proposatzen dute politikari kontserbadoreek konponbide gisa; bistan da ez dutela kontuan hartzen, batetik, zenbat emakume eta gizon dauden langabezian, eta, bestetik, ez dagoela diru-iturri bakarrarekin bizitzerik eta gizon askok ez dituztela beren emazte eta seme-alabak ekonomikoki mantendu nahi, soldata ona izanda ere.

Gaur egun ez dago egitasmo feministarik emakumeei irtenbiderik edo lanaren arazoa birpentsatzeko modurik eskaintzen dienik. Gure gizarteko bizi-kostua

altua izanik, lanak ez die ematen burujabetza ekonomikorik langile gehienei, emakumeak izan zein ez. Era berean, burujabetza ekonomikoa beharrezkoa da emakume guztiontzat, baldin eta aukeratzeko askatasuna izan nahi badugu gizonen nagusikeriaren aurrean eta guztiz autorrealizatu nahi badugu.

Burujabetza ekonomiko handiagoa lortzeko bideak nahitaez eraman behar gintuzke bizimodu alternatiboetara, hau da, hedabide patriarkal supremazista zuri kapitalistek bizitza onaz ematen diguten irudiaz bestelakoetara. Betetasunez eta ongi bizitzeko, batetik autoestimua eta geure buruarenganako errespetua eta bestetik bizitzeko soldata bat eskaintzen dizkigun lan bat izateko, enpleguak partekatzeko neurriak beharko ditugu. Irakasleek eta gizarte-langileek soldata altuagoak jaso behar lituzkete. Estatuak diru-laguntza bat eman behar lieke etxean geratu eta seme-alabak hazi nahi dituzten emakume eta gizonei, eta, horretaz gainera, etxean eskolatzeko programak sustatu behar lirateke, etxean bertan Batxilergoa amaitzeko eta unibertsitate-ikasketak egiteko. Teknologia aurreratua erabiliz, etxean geratu nahi dutenek aukera izan behar lukete unibertsitateko eskolak bidez ikusteko, eskola presentzialekin uztartuta. Gure gobernuak ongizatea lehenetsiko balu gastu militarra lehenetsi beharrean eta herritar guztiek legez aukera izango balute enplegurik aurkitu ezin dutenean Estatuaren laguntza jasotzeko urte batean edo bitan, gizarte-laguntzen gaineko estigma desagertuko litzateke. Eta, gizonek ere aukera bera izango balute halako laguntzak jasotzeko, generoaren estigma ere desagertuko litzateke.

Klaseen arteko arrakala gero eta handiagoak elkarrengandik banantzen ditu emakume pobreak eta emakume pribilegiatuak. Areago, eliteko emakumeek

beste emakume batzuen askatasunaren bizkar lortu dute klase-boterea gure gizartean, batik bat aberatsek. Klase-boterea duten emakume gutxi batzuk, baina, dagoeneko hasiak dira neurri ekonomikoak bultzatzeko zubiak eraikitzen, pribilegio gutxiagoko emakumeei laguntzeko eta babesa emateko asmoz. Zenbait emakume aberatsek, bereziki aberastasuna jarauntsi dutenek, konpromisoa agertu dute emakumeen askapenarekiko, eta ekonomia parte-hartzailerako estrategiak garatzen ari dira. Horrek erakusten du emakumeok badutela kezka eta solidaritatez jokatu nahi dutela klase-botererik ez duten emakumeekin. Gaur egun, oso gutxi dira hala jokatzen dutenak, baina, haien jarrera jendearen artean ezagunago egin ahala, gero eta eragin handiagoa izango dute.

Duela hogeita hamar urte, feministek ez zuten aurreikusi zer aldaketa izango ziren gure gizartean lan-munduari dagokionez. Ez ziren ohartu masa-langabezia arau bilakatuko zenik eta emakumeek berez existitzen ez ziren enpleguetarako prestakuntza jasoko zutenik. Ez zuten espero kontserbadoreek eta, batzuetan, liberalek halako erasorik egitea ongizatearen aurka, ezta dirurik ez zuten emakume ezkongabeei beren zailtasun ekonomikoen errua egoztea eta haiek laidoztatzea ere. Aurreikusi gabeko errealitate guztion kariaz, pentsalari feminista aurrerakoiak behar ditugu askapenaren eta lanaren arteko harremanaz berriro gogoeta egiteko. Ikerketa feminista askotan landu da zer rol duten emakumeek gaur egun lan-munduan eta nola aldatu duen horrek emakumeok beren buruaz duten pertzepzioa eta etxean duten rola; alabaina, oraingoz, inongo lanek ez du aztertu ea emakume gehiagok lan egiteak ezertan aldatu ote duen —onerako aldatu ere— gizonen nagusikeria. Gizon askok emakumeak jotzen dituzte

langabeziaren erruduntzat, hornitzaile patriarkalaren identitate egonkorra galarazteagatik, nahiz identitate hori fantasia hutsa izan egiaz, bai lehen, bai orain. Etorkizunera begira, feminismoaren helburu garrantzitsuenetako bat izan behar litzateke gizonei ikuspegi errealista batetik azaltzea zertan datzan emakumeen eta lanaren arteko harremana, ikus dezaten lan egiten duten emakumeak ez direla haien etsaiak.

Emakumeok aspaldi sartu ginen lan-munduan. Soldata altua izan zein baxua izan, emakume askoren ustez, lan egitea ez da ikuspegi feminista utopikoek zioten bezain esanguratsua. Emakumeok dirua irabazteko eta hartara gehiago kontsumitzeko lan egiten badugu, eta ez maila guztietan kalitate hobegoko bizitza bat izateko, lanak ez digu ekarriko burujabetza ekonomikorik. Diru gehiago izateak ez du esan nahi askeagoak izango garenik, ez behintzat diru hori gure ongizatea hobetzeko erabiltzen ez bada. Lanaren esanahia birpentsatzea zeregin garrantzitsua izango da etorkizuneko mugimendu feministarentzat. Mugimenduak arrakasta izan dezan, ezinbestekoa da, batetik, emakumeak pobreziatik ateratzeko bideak bilatzea, eta, bestetik, ongi bizitzeko estrategiak pentsatzea, oso baliabide gutxi eduki arren.

Mugimendu feministaren hastapenetan, burujabetza ekonomikoa ez zen lehentasun bat. Alabaina, emakumeen egoera ekonomiko larriari heltzea abiapuntu aparta izan liteke feministontzat, erantzun kolektibo bat hezurmamitzeko. Eta halaber izan liteke antolaketa kolektiborako esparru bat, topagune komun bat, emakume guztiok batuko gaituen kontu bat.

HAMAR

ARRAZA ETA GENEROA

Pentsalari feministek ezinbestean aintzat hartu behar izan zituzten arraza eta arrazakeria, eta horrek —beste ezerk baino gehiago— errotik aldarazi zuen Estatu Batuetako feminismoa. Herrialde honetako emakume zuriak badakite estatus desberdina dutela, emakume beltzena edo kolorekoena ez bezalakoa. Txikitatik dakite hori, telebista ikusten hasi eta emakume zurien irudiak bakarrik ikusten dituztenetik, aldizkariak irakurtzen hasi eta emakume zurien irudiak bakarrik ikusten dituztenetik. Badakite ez-zurien absentsia edo ikusezintasun horren arrazoi bakarra zuriak ez izatea dela. Herrialde honetako emakume zuriak badakite zurtasuna kategoria pribilegiatu bat dela. Emakume zuriak hori ezkutatzek edo ukatzeak ez du esan nahi ezjakinak direnik, baizik eta ukazioan ari direla.

Emakume zurien artean, eskubide zibilen alde borrokan jardun zuen kontzientzia politiko handiko talde bat izan da bere estatusaren eta emakume beltzenaren arteko desberdintasunak ongien ulertu di-

tuen taldea, Estatu Batuen historiako garai hari buruz emakume zuriek idatzitako eguneroko eta autobiografietan dokumentatu den bezala. Emakume haietariko asko eskubide zibilen borrokatik emakumeen askapenaren aldeko borrokara igaro ziren, eta, mugimendu feministaren buru bilakaturik, desberdintasunaren afera baztertu eta ukatu zuten, nahiz eta lehen eskutik ikusia eta entzuna zuten eskubide zibilen aldeko borrokan. Alegia, arrazakeriaren aurkako borrokan parte hartu izanak ez zuen esan nahi uko egiten ziotenik supremazismo zuriari eta uste ez zutenik emakume beltzen gaitetik zeudela eta haiek baino informatuago, ikasiago, prestatuago zeudela mugimendua «gidatzeko».

Neurri handi batean, emakume haiek beren aitzindari abolizionisten pauso berak ari ziren ematen; izan ere, abolizionistek boto-eskubidea eskatu zuten jende guztiarentzat (emakume zurientzat eta beltz guztientzat), baina, ikusi zutenean gizon beltzek bozkatzeko eskubidea lor zezaketela eta berek, genero-arrazoia tarteko, ez, gizon zuriekin bat egitea aukeratu zuten, supremazismo zuriaren babespean. Beltzentzako eskubide gehiagoren aldarrikapena bertatik bertara bizi izan zuten emakume zuri garaikideek une huraxe aukeratu zuten berentzat ere eskubide gehiago aldarrikatzeko. Emakume haietariko batzuek diote eskubide zibilen aldeko lanari esker garatu zutela sexismoaren eta zapalkuntza sexistaren gaineko kontzientzia. Argazki orokorra hori izanik, pentsa genezake desberdintasunaren gaineko kontzientzia politiko azaleratu berri horretatik eratorri zela mugimendu feminista garaikideaz teorizatze bidea.

Mugimenduan sartu zirenean, desberdintasuna ezabatu eta ukatu zuten; ez zituzten elkarren ondoan

jartzen arraza eta generoa, eta, areago, arraza paretik kendu zuten. Generoari lehentasuna emanaz gero, emakume zuriak protagonista bilakatuko ziren, eta berena balitz bezala aldarrikatuko zuten mugimendua, nahiz emakume guztiei eskatu zieten berekin bat egiteko. Hasieran, mugimendu feministak ez zituen serioski hartu arraza-desberdintasuna eta arrazakeriaren aurkako borroka; ahizpatasunari buruzko ikuspegi utopiko bat aldarrikatzen zen, eta horrek ez zituen emakume beltz eta kolorekoak erakarri. Hasieratik mugimenduan aktiboki parte hartu zuten emakume beltz gehienek, ordea, hantxe jarraitu zuten. Mugimendu feminista sortu zenean, arraza-integrazioa arraroa zen artean ere. Beltz asko beren bizitzan lehen aldiz ari ziren ikasten nola izan adiskidetasunezko harremanak zuriekin. Ez da harritzekoa feminismora lerraturiko emakume beltz batzuek arrazaren gaineko kontzientzia txertatzeari uko egitea. Txundituta egon behar zuten ikusirik nola aldarrikatzen zuten emakume zuriak ahizpatasuna, ordura arte esplotatzaile eta zapaltzailetzat hartuak zituzten eta.

1970eko hamarkadaren amaieran eta 1980koaren hasieran, emakume beltz eta kolorekoen belaunaldi gazteago batek aurre egin genion emakume zurien arrazakeriari. Gure aliatu beltz zaharragoak ez bezala, giro nagusiki zurietan heziak ginen. Gutariko gehienok sekula ez ginen egon emakume zurien mendeko posizio batean. Gutariko gehienok sekula lanean aritu gabeak ginen. Sekula gure lekuan egon gabeak. Baldintza hobekak genituen emakumeen mugimenduaren barnean arrazakeria eta supremazismo zuria kritikatzeko. Emakume zuri batzuek zapalkuntza orokorraren ideiarekin inguruan antolatuta nahi zuten mugimendua, eta aldarrikatzen zuten emakumeok klase edo kasta

sexual bat osatzen genuela; horrenbestez, ez zuten onartzen emakumeen artean desberdintasunik zegoenik eta desberdintasunok emakume guztionak ziren esperientziak iluntzen zituztenik. Arraza zen desberdintasunik nabarmenena.

1970eko urteetan, *Ain't I a Woman: Black Women and Feminism* lanaren lehen zirriborroa idatzi nuen. Hemeretzi urte nituen. Sekula ez nuen izan lanaldi osoko enplegurik. Arraza-segregazio handiko hiri txiki batekoa nintzen, Stanfordeko Unibertsitatearen hegoaldekoa. Pentsamolde patriarkalari gogor eginez hazia nintzen, eta unibertsitatean engaiatu nintzen feminismoan. Emakume beltz bakarra nintzen ikasgela feministetan eta kontzientziate-taldeetan, eta, orduan, arraza eta generoa teorikoki uztartzen hasi nintzen. Han hasi nintzen aldarrikatzen onartu beharra genuela aurreiritzi arrazistak ari zirela pentsamolde feminista taxutzen, eta aldaketarako deia egin nuen. Beste toki batzuetan ere, kritika bera ari ziren egiten zenbait emakume beltz eta koloreko.

Garai haietan, arrazakeriaren eta arrazadesberdintasunaren errealitateari aurre egin nahi ez zioten emakume zuriek traidore izatea leporatu ziguten, arrazaren gaia plazara ateratzeagatik. Esan ziguten, okerki esan ere, generoa alde batera uzten ari ginela. Egiaz, baina, eskatzen ari ginen emakumeen estatusari modu errealista batean begiratu behar zitzaiola eta ikuspegi errealista hori baliagarria izango zela benetako feminismo bat sortzeko. Gure asmoa ez zen ahizpatasunaren ikuspegiari garrantzia kentzea. Guk politika solidario jakin bat abiatu nahi genuen, egiazko ahizpatasun bat lortzeko. Bagenekien emakume zurien eta kolorekoen artean ez zela egiazko ahizpatasunik izango emakume zuriek supremazismo

zuriari uko egiten ez bazioten, hau da, mugimendu feminista arrazakeriaren aurkako mugimendu gisa planteatzen ez bazen.

Arrazaren inguruko esku-hartze kritikoek ez zuten emakumeen mugimendua suntsitu; indartu egin zuten. Behin arrazaren afera ukatzeari utzirik, emakumeok desberdintasunaren errealtateari aurre egin genion, maila guztietan. Azkenean, emakume pribilegiatuen —batez ere zurien— klase-interesak beste emakume guztien gainetik paratzen ez zituen mugimendubat abiarazten ari ginen. Gure ahizpatasunikuspegiari, gure errealtate guztiez hitz egin zitekeen. Pentsalari feministen artean, eztabaida dialektiko bat sortu zen arrazaren gaiaren inguruan, eta horrek, gero, teoria feminista eta praktika birpentsatzea ekarri zuen; justizia sozialaren aldeko beste ezein mugimendu garaikidetan ez da sortu halako eztabaidarik parte-hartzaileen artean. Mugimendu feministako kideek aurre egin zieten kritikei eta erronkei, betiere justiziaren eta askapenaren ikuspegiarekiko konpromiso irmoari eutsiz: horra mugimenduaren sendotasunaren eta indarraren erakusgarri bat. Horrek agerian uzten digu ez duela axola zein oker zeuden iraganeko pentsalari feministak, indartsuagoa izan baitzen egoera aldatzeko gogoia, borrokarako eta askapenerako tes-tuinguru bat sortzeko gogoia, eta ez ustekizun eta sineskizun okerretan trabatuta geratzekoa.

Hainbat urtean, bertatik bertara ikusi nuen nola uko egiten zioten pentsalari feminista zuriek arrazaren garrantzia kontuan hartzeari, nola muzin egiten zioten supremazismo zuria deuseztatzeari, nola ukatzen zuten mugimendu feministak arrazakeriaren aurkako mugimendu bat behar zuela izan baldin eta nahi baguenen oinarri politiko bat ahizpatasuna gauzatuko

zuena. Eta bertatik bertara ikusi nuen zer kontzientzia-iraultza bizi izan zuten emakumeek ukapenetik askatu zirenean, pentsamolde supremazista zuritik askatu zirenean. Aldaketa txundigarri guztioi esker, mugimendu feministarekiko fedea berreskuratu dut, eta emakume guztienganako sentitzen dudana solidaritatea indartu.

Oro har, pentsamolde eta teoria feministari on egin diote arrazaren gaineko esku-hartze kritiko guztiok. Arazo bakarra teoria praktikan jartzea izan da. Emakume zuri batzuek arrazaren gaineko analisia txertatzen dute beren ikerketa feminista gehienetan, baina ideia guztiok ez dute eragin handirik izan emakume zurien eta beltzen arteko eguneroko harremanetan. Zaila da emakumeen artean harreman antirrazistak sortzea, arraza-segregazioa oso nabarmena baita oraindik ere gizartean. Askotariko lan-esparruak sortu diren arren, jende gehiena bere taldeko jendearekin sozializatzen da bakarrik. Arrazakeria eta sexismoa uztartuz gero, harresi arriskutsuak sortzen dira emakumeon artean. Oraingoan, hori aldatzeko estrategia feministak ez dira izan oso baliagarriak.

Zenbait emakume zurik eta kolorekok lan handia egin dute zailtasunak gainditzeko eta maitasunerako eta solidaritate politikorako espazio bat sortzeko, baina beharrezkoa da metodo eta estrategia guztiok besteekin partekatzea, arrakastatsuak izan zaizkigun heinean. Ia erreparatu ere ez zaie egiten arraza desberdineko nesken arteko harremani. Aurreiritzi arrazistekin itsuturiko ikertzaile feministak frogatzen saiatzen dira neska zuriak koloreko neskek baino ahulagoak direla baldintzapen sexistaren aurrean, eta horrek ustekizun supremazista zuri bat betikotu besterik ez du egiten: emakume zurien kezkek eta arazoek arreta handiagoa

merezi dutela gainerakoenek baino. Koloreko neskek jokamolde desberdina agertzen badute neska zurien aldean, baldintzapen sexista barneratzen ariko dira, baina ez hori bakarrik: aukera gehiago izango dituzte sexismoaren biktima izateko, eta horrek ez du atzerabueltarik izango.

Mugimendu feministak, bereziki aktibista feminista aurrerakoien lanak, arrazaren eta arrazakeriaren gaia birplanteatzeko bidea zelaitu zuen, eta horrek, oro har, eragin onuragarria izan zuen gure gizartean. Kritika sozial nagusietan, baina, gutxitan aipatzen da hori. Feminismoaren barneko arrazaren eta arrazakeriaren auziaz luze-zabal idatzi duen teorialari feminista naizen aldetik, badakit asko dagoela borrokatzeko eta aldatzeko, baina garrantzitsua da orobat lorturiko aldaketa guztiak goraiatzea. Gure garaipenak ulertuz eta eredutzat hartuz, aldaketa horiek oinarri sendo bat izan daitezke masa-mugimendu feminista antirrazista bat eraikitzeko.

HAMAIKA

INDARKERIA DEUSEZTATZEA

Alde handiz, mugimendu feminista garaikidearen esku-hartze onuragarrienetako bat etxeko indarkeriaren gaineko kontzientzia kulturala handitzeko eta mantentzeko egin duen ahalegina izan da, eta, aldi berean, erakustea zer aldaketa egin behar genituzkeen gure pentsamolde eta ekinbideetan indarkeria hori deuseztatzeko. Gaur egun, toki askotan hitz egiten da etxeko indarkeriaz —hala hedabideetan, nola eskoletan—, eta, maiz, ahaztu egiten dugu mugimendu feminista garaikideak azaleratu eta bistaratu zuela, gordinki, etxeko indarkeriaren errealitatea, zeina puri-purian baitzegoen. Hasieran, gizonak emakumeen aurka indarkeria erabiltzen zutela nabarmendu zuen ikuspegi feministak, baina, mugimenduak aurrera egin ahala, ebidentziek argi utzi zuten bazela etxeko indarkeriarik sexu berekoen arteko harremanetan ere, emakumea abusuen biktima izan zitekeela eta izan daitekeela emakumeen arteko harremanetan ere, eta haurrak ere badirela emakume zein gizon helduen indarkeria patriarkalaren biktimak.

Etxeko indarkeria patriarkala ustekizun batean oinarritua dago: banako boteretsuago batek besteak larderiaz kontrolatzea onargarria dela. Definizio zabal horretan sartzen dira gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria, sexu berekoen arteko indarkeria eta helduek haurren aurka erabiltzen duten indarkeria. Alde horretatik, *indarkeria patriarkal* terminoa aski erabilgarria da; izan ere, *etxeko indarkeriak* ez bezala, adierazten du etxean gertatzen den indarkeria sexismoarekin eta pentsamolde sexistarekin dagoela lotuta, gizonen nagusikeriarekin. *Etxeko indarkeria* termino «leuna» luzaroan baliatu da, luzaroei, eta iradokitzen du indarkeria giro intimo pribatuetan azaleratzen dela eta ez dela kanpoan gertatzen den indarkeria bezain arriskutsua eta basatia. Baina hori ez da egia, emakume gehiago jotzen eta hiltzen baitituzte etxean etxetik kanpo baino. Horretaz gainera, jende gehienak uste du helduen arteko etxeko indarkeria desberdina dela eta bereizi beharra dagoela haurren aurkako indarkeriatik, baina ez da hala. Askotan, haurrek abusua sufritzen dituzte amak senarraren edo bikotekide gizonaren erasoren bat jaso eta hura babesten saiatzen direnean; beste batzuetan, kalte emozionalak izaten dituzte indarkeria eta abusua bertatik bertara ikusten dituztelako.

Herralde honetako herritar gehienek barneratua dute lan beraren truke soldata bera jaso behar litzatekeela, eta era berean barneratua dute gizonek ez litzuketela emakumeak eta haurrak jo behar. Hala eta guztiz ere, jende horri esanez gero etxeko indarkeria sexismoaren ondorio zuzena dela eta ez dela amaituko sexismoa amaitzen ez bada, ez dira gai jauzi logiko hori egiteko, horrek generoaren gaineko pentsamolde oso oinarritzko aurre egitea eta aldatzea eskatzen

duelako. Nik uste dut, teoriarari feminista gutxi bezala, funtsezkoa dela mugimendu feministaren helburu nagusietako bat horixe izatea; alegia, era guztietako indarkeria deuseztatzea. Emakumeen aurkako indarkeria patriarkalak lehentasunezko kezka izan behar luke ikuspegi feministarentzat. Hala ere, gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeriari soilik erreparatuz gero, esaten ari gara indarkeria mota hori ankerragoa dela indarkeria patriarkalaren gainerako aldaerak baino, eta hori ez da mugimendu feministaren interesekoa. Izan ere, jarrera horrek ezkutuan uzten du emakume zein gizon sexistek indarkeria patriarkala baliatzen dutela haurren aurka ere.

Pentsalari feminista erreformistek, hortzez eta haginez gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeriaz ohartarazteko ahaleginean, oraindik ere emakumeak jotzen dituzte beti indarkeriaren biktima bakartzat. Haurren aurkako eraso asko emakumeek eginak izatea ez dute hain garrantzitsutzat hartzen, ez eta indarkeria patriarkalaren erakusgarritzat ere. Orain badakigu haurrak indarkeriaren biktima direla ez bakarrik indarkeria patriarkalak zuzenean ukitzen dituenean, baizik eta baita indarkeriazko ekintzak bertatik bertara ikustera behartuak direnean ere. Pentsalari feministek sumina agertu izan balute emakumeen indarkeria patriarkalaren aurrean, paratu izan balute gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeriaren maila berean, jendearentzat zailagoa izango zatekeen (eta hala litzateke orain ere) indarkeria patriarkalari ez ikusiarena egitea, ez bailuke ikusiko gizonen aurkako helburu bat balitz bezala.

Emakumeen aldetik indarkeria patriarkala sufritu duten helduek badakite emakumeak ez direla ez-biolentoak, nahiz ikerketek dioten ohikoagoa dela

emakumeek indarkeriarik ez erabiltzea. Egiari zor, haurrek ez daukate ahots kolektibo antolaturik, eta, beraz, ez dakigu zenbateraino diren emakumeen indarkeriaren biktima. Hainbat eta hainbat haurrek laguntza medikorik eskatuko ez balute emakume eta gizonen eragindako indarkeria dela eta, ez genuke izango inongo frogarik emakumeen indarkeria dokumentatzeko. Halako kezkak *Feminist Theory: From Margin to Center* liburuko «Feminist Movement to End Violence» [Mugimendu feminista indarkeriaren aurka] kapitulu lanu nituen lehenbizikoz:

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako borroka feministan, funtsezkoa da borroka hori indarkeria deuseztatzeko mugimendu zabalago baten barnean ikustea. Orain arte, mugimendu feministak gizonen indarkerian jarri du arreta, eta horrek sinesgarritasuna eman die ezinbestean estereotipo sexistei; alegia, sinetsarazi dute gizonak oldarkorrek direla eta emakumeak, aldiz, ez; gizonak abusu-egileak direla eta emakumeak, aldiz, biktimak. Pentsamolde horrek ezkutuan uzten du gizarte honetako emakumeek (eta gizonen) zenbateraino onartzen eta gorpuzten duten alderdi edo talde menderatzailer batek boterea izatea menderatuen gainetik eta horretarako larderia erabiltzea. Horrek emakumeek besteen gainean erabiltzen duten larderiazko autoritateari edo indarkeriari berari gaingiroki begiratzea edo ez ikusiarena egitea dakar. Emakumeek indarkeria gizonen bezain maiz ez erabiltzeak ez du esan nahi emakumeek indarkeria baliatzen ez dutenik. Indarkeria deuseztatu nahi badugu, ohartu behar dugu gizarte honetan gizonen zein emakumeen baliatzen dutela indarkeria.

Gerta daiteke ama batek sekula ez jokatzea indarkeriaz baina bere seme-alabei —batez ere semei— irakastea indarkeria baliabide onargarria dela kontrol sozialerako; kasu horretan, ama hori indarkeria patriarkalarekin bat egiten ariko da. Haren pentsamoldea aldatu beharra dago.

Garbi dago emakume gehienek ez dutela indarkeria erabiltzen gizonak mendean hartzeko (nahiz badiren beren bizitzan zehar gizonak egurtzen dituzten emakume gutxi batzuk), baina emakume askok uste dute autoritatea duen pertsona batek eskubidea duela indarra erabiltzeko autoritate horri eustearren. Guraso gehienek erabiltzen dituzte eraso fisiko edo hitzezkoak haurren aurka. Gaur egun, emakumeak izaten dira haurren zaintzaile nagusiak; horrek (eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak) boterea ematen die menderakuntzako kulturaren barneko sistema hierarkiko horretan, eta, ondorioz, maizegi baliatzen dira larderiaz nagusikeria horri eusteko. Menderakuntzako kultura batean, indarkeria kontrol sozialerako baliabide onargarritzat hartzeko moduan sozializatzen gaituzte pertsona guztiok. Talde menderatzaileek mehatxu bidez lortzen dute botereari eustea (nahiz gero ez den beti betetzen): egitura hierarkikoak kolokan jarritz gero — izan emakume eta gizonen arteko harremanetan, izan guraso eta seme-alaben artekoetan—, abusuzko zigor bat etorriko da, fisikoa edo psikologikoa.

Gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeriak leku handia hartu izan du hedabideetan (besteak beste, epaiketa batzuek izandako garrantziagatik, hala nola O. J. Simpsonen aurkakoak), baina iparramerikarren artean ez da sortu nahikoa kontzientzia indarkeria horren sakoneko kausei aurre egiteko, patriarkatuari aurre egiteko. Pentsamolde sexistak gizonen nagusikeria babesten du oraindik ere, baita haren ondoriozko indarkeria ere. Gizon langabe eta langile-klaseko asko eta asko ez dira boteretsu sentitzen beren enpleguetan, patriarkatu supremazista zuriaren barnean, eta, orduan, guztizko autoritatea eta errespetua edukitzeko geratzen zaien esparru bakarra etxea dela sinetsarazten

diete. Klase menderatzaileko gizonak lan-esparru publikoan menderatuak izatea onar dezaten sozializatzen dituzte gainerako gizonak, eta etxeko esparru pribatuan eta harreman intimoetan berreskura dezaten maskulinitatearekin lotzen duten botere-sentipena. Gero eta gizon langile gehiago dagoenez eta gero eta gehiagok soldata baxuak dituztenez, eta gero eta emakume gehiago dagoenez lan-munduan, gizon batzuentzat indarkeria erabiltzea da boterea eta nagusikeria ezartzeko eta hari eusteko bide bakarra rol sexualen hierarkia sexistaren barnean. Beren pentsamolde sexista —hau da, eskubidea dutela emakumeen gainean agintzeko edozein baliabide erabiliz— desikasten ez badute, gizonak emakumeen aurka indarkeria erabiltzea ohikoa izango da aurrerantzean ere.

Pentsamolde feministaren hastapenetan, aktibistek ez zuten lortu maila berean paratzea gizonak emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria eta militarismo inperialista. Gizonen indarkeriaren aurka zeuden askok militarismoa onartzen eta are babesten zuten, ez zen halako loturarik egiten. Pentsamolde sexistak «hiltzaile» izateko sozializatzen ditu mutilak, izan onen eta gaiztoen arteko jolasen bitartez, izan inperialismoaren soldadu gisa gainerako herrialdeen gaineko botereari larderiaz eutsiz, eta, hori hala den bitartean, emakume eta haurren aurkako indarkeriak bere horretan iraungo du. Azken urteotan, askotariko klaseetako mutil gazte askok indarkeriazko ekintza ankerrak egin dituzte, eta, herrialde osoak gaitzetsi dituen arren, saiakera gutxi egin da indarkeria mota hori pentsamolde sexistarekin lotzeko.

Feminist Theory: From Margin to Center liburuko indarkeriari buruzko kapituluaren amaieran, nabarmendu nuen gizonak ez direla bakarrak indarkeria

onartzen, onesten eta gauzaten, indarkeriaren kultura sortzen. Emakumeek ere beren erantzukizuna onartu behar dute indarkeriaren onespenean jokatzeko duten rolagatik:

Soilik gizonen emakumeen aurka indarkeria erabiltzeari erreparatzen badiogu edo militarismoa gizonen indarkeriaren beste erakusgarri bat balitz bezala ikusten badugu, ez diogu behar bezala helduko indarkeriaren arazoari, eta zaila izango da erresistentziarako estrategia eta konponbide bideragarriak aurkitzea... Batetik, ezin diogu garrantzirik kendu gizonen emakumeen edo herrialdeen eta munduaren aurka indarkeria erabiltzeari, eta, bestetik, kontuan izan behar dugu gizonen emakumeen indarkeriaren kultura nagusi bilakatu dutela Estatu Batuetan eta elkarrekin lan egin behar dugula kultura hori eraldatzeko eta birsortzeko. Indarkeria kontrol sozialerako baliabide gisa erabiltzearen aurka agertu behar dute bai emakumeek bai gizonen, maila guztietan: gerra, gizonen indarkeria emakumeen aurka, helduen indarkeria haurren aurka, nerabeen indarkeria, indarkeria arrazista, eta abar. Feministek emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeko egindako ahaleginak indarkeria mota oro deuseztatzera bideratu behar dira.

Eta bereziki garrantzitsua da gurasoek beren seme-alabak indarkeria ezaren bitartez hezten ikastea. Gure seme-alabak ez dira indarkeriatik urrundu baldin eta indarkeria bada egoera zailei aurre egiteko ezagutzen duten modu bakarra.

Gure herrialdean, jende asko eta asko dago kezkatuta indarkeriarengatik, baina uko egiten zaio indarkeria hori pentsamolde patriarkalarekin edo gizonen nagusikeriarekin lotzeari. Pentsamolde feministak badauka horretarako konponbide bat, eta gure esku dago konponbide hori denon eskura jartzea.

HAMABI

MASKULINITATE FEMINISTA

Mugimendu feminista abiatu zenean, fakzio bortitz bat sortu zen gizonen aurka. Mugimendura batu ziren emakume heterosexualetako batzuk gizon krudel, zital, oldarkor eta desleialekiko harremanetatik zetozen. Gizon haietako asko pentsalari erradikalak ziren, justizia sozialaren aldeko mugimenduetan zebiltzanak eta langileen, pobreen eta arraza-justiziaren alde aldarri egiten zutenak. Alabaina, generoaren gaiari dagokionez, pentsalari kontserbadoreak bezain sexistak ziren. Emakume haiek haserre zetozen harreman haietatik, eta emakumeen askapenerako katalizatzaile gisa baliatu zuten haserre hori. Mugimenduak aurrera egin ahala eta pentsamolde feminista garatu ahala, mentalitate irekiko zenbait aktibista feminista konturatu ziren arazoa ez zirela gizonak, baizik eta patriarkatua, sexismoa eta gizonen nagusikeria. Zaila izan zen errealitate hori onartzea; alegia, arazoa ez zegoela soilik gizonengan. Teorizazio konplexuagoa behar zela errealitate horri aurre egiteko. Onartu beharra zegoela emakumeek ere laguntzen zutela sexismoari eusten

eta hura betikotzen. Zenbat eta emakume gehiago atera gizonetik harreman suntsitzaileetatik, orduan eta errazagoa zen argazki osoa ikustea. Agerian geratu zen gizon batzuk pribilegio patriarkaletatik askatuta ere bere horretan iraungo zutela patriarkatuaren sistemak, sexismoak eta orobat gizonen nagusikeriak, eta emakumeak berdin-berdin izango zirela esplotatuak eta zapalduak.

Hedabide kontserbadoreetan, gizon-gorrotatzaile gisa irudikatzen ziren emakume feministak, etengabe. Mugimenduaren barnean gizonen aurkako fakzio edo sentimenduren bat agertzen zen aldiro, hura hanpatu, eta feminismoa lohitzeko baliatzen zen. Bestalde, gizon-gorrotatzaileen irudia zela eta, esaten zen feminista guztiak lesbianak zirela. Homofobiaz baliaturik, beraz, hedabideek sentimendu antifeminista hauspotu zuten gizonen artean. Mugimendu feminista garaikideak hamar urte bete aurretik, pentsalari feministok aipatzen hasiak ginen nolako kaltea egiten zien patriarkatuak gizoni. Gizonen nagusikeria lehiatzen kritikatu jarraitzeari utzi gabe, feminismoaren ikuspegia zabaldu zen, eta hala onetsi zen patriarkatuak identitate maskulino sexistak bat inposatzen zirela gizoni eta horrek zenbait eskubidez gabetzen zituela.

Gizon antifeministen ahots publikoak indarra izan du beti. Pentsamolde feministari eta aktibista feministei beldur eta gorroto zieten gizonak azkar bai azkar batu zituzten beren indarrak, eta mugimenduari eraso zioten. Dena den, gizon gutxi batzuek hasieratik onartu zuten mugimendu feminista ere baliagarria zela justizia soziala lortzeko, gure herrialdearen historiako beste mugimendu erradikal batzuk baliagarriak izan ziren era berean, kontuan izanik gizonak berak ere parte hartuak zirela mugimenduotan. Gizon haiek

gure burkideak izan ziren gure borrokan, gure aliatuak. Maiz, mugimenduko emakume aktibo heterosexualek harreman intimoak izaten zituzten feminismoa barneratzeko borrokatzen ari ziren gizon haiekin. Maiz, pentsamolde feministarako konbertsioaren aurrean, gizonak aukeratu beharra zeukaten ea erronkari helitzen zioten ala harreman intimoak hausteko arriskua hartzen zuten.

Gizonen aurkako fakzioei deseroso zitzairen gizon antisexistak egotea mugimendu feministan, horrek ezeztatu egiten baitzuen gizon guztiak zapaltzaileak zirela edo gizon guztiak gorroto zietela emakumeei. Emakume eta gizonak polarizatzeak eta zapaltzaile/zapaldu kategorien arabera banatzeak mesede egiten zien klase-mugikortasun handiagoa lortu eta botere patriarkalaren egituretan sartu nahi zuten emakume feministen interesei. Gizon guztiak etsaitzat hartzen zituzten, emakume guztiak biktima gisa agertzeko. Arretagune nagusia gizonengan jarriz gero, ez zitzairen hainbeste erreparatzen aktibista feminista haien klase-privilegioei eta beren klase-boterea aragotu nahiari. Gizonak bazterten zituzten aktibista haiek ez ikusiarena egiten zieten emakume eta gizonen arteko zaintzako harremanei edo emakumeak gizon sexistekin lotzen zituzten harreman ekonomiko eta emozionalei (izan positiboak, izan negatiboak).

Gizonak burkide gisa onartzeko eskatzen genuen feministok ez genuen lekurik hedabideetan. Gizonenganako etsaigo hori kritikatzeko egin genuen lan teorikoak ere ez zituen aldarazi gizonen aurkako emakume haien ikuspegiak. Areago, erreakzio bat izan zen gizontasunaren irudikapen negatiboen aurrean: zenbait gizonak emakumeen aurkako mugimendu bat sortu zuten. «Gizonen askapenerako mugimendu»az

idatzi nuelarik, mugimendu haren oportunismoa nabarmendu nuen:

Gizon haiek sexismoaren biktimatzat zeukaten beren burua, eta gizonen askapenaren alde ziharduten. Rol sexual zurrunak beren biktimizazioaren iturburu nagusitzat jotzen zituzten, eta, maskulinitatearen ikuspegia aldatu nahi bazuten ere, ez zuten kezka berezirik emakumeen esplotazio eta zapalkuntza sexistarekin.

Neurri handi batean, gizonen mugimenduak emakumeen mugimenduaren alderdi makurrenak islatzen zituen.

Gizonen aurkako fakzioak urriak izan ziren arren mugimendu feministan, zaila izan da jendearen iruditerian emakume feminista gizon-gorrotatzailearen irudia aldatzea. Jakina, feminismoa gizon-gorrotatzaileen mugimendu gisa aurkeztuta, gizonentzat errazagoa zen arreta desbideratzea beren nagusikeriaren gainean zuten erantzukizunetik. Teoria feministak maskulinitatearen inguruko ikuspegi askatzaile gehiago eskaini balitu, ezinezkoa zatekeen inork mugimendua gutxiatea gizonen aurkako zelaiko. Mugimendu feministak huts egin zuen emakume eta gizon asko erakartzeko orduan; neurri handi batean, gure teoriak ez zuelako eraginkortasunez azaldu zer egin zezaketen gizonek antisexista izateko, baina ez horregatik bakarrik: ez ginen gai izan maskulinitate alternatibo bat zer izan zitekeen esateko. Askotan, mugimendu feministak edo gizonen mugimenduak maskulinitate patriarkalaren alternatiba bakarra proposatzen zuten: gizonak «femeninoago» bilakatzea. Femeninoaren gaineko ideia hori pentsamolde sexistatik zetorren, eta ez zen alternatiba bat harentzat.

Maskulinitatearen gaineko bestelako ikuspegi bat behar genuen, eta behar dugu, zeinean norberaren izate bakarrarenganako estimua eta maitasuna izango baitira identitatearen oinarriak. Menderakuntzazko kulturek autoestimua aurka jo ohi dute, eta, haren ordeztuz, gure izatearen zentzua besteak menderatzeari loturik dagoela sinetsarazten digute. Maskulinitate patriarkalak gizoni irakasten die besteak menderatzeko ahalmenean dagoela beren buruaren eta identitatearen zentzua, beren izateko arrazoia. Hori aldatzeko, gizonak gizonen nagusikeria kritikatu behar dute, hari aurre egin, izan munduaren gaineko nagusikeria, izan botere apalagoko gizonen gainekoa, izan emakume eta haurren gainekoa. Baina, horretaz gainera, garbi ikusi behar dute zer den maskulinitate feminista. Nolatan izango dira imajinatu ezin dezaketenez zerbait? Pentsalari feministok —bai gizonak, bai emakumeok— argi eta garbi zehaztu beharra daukagu ikuspegi hori.

Justizia sozialaren aldeko mugimendu iraultzaileetan maiz gertatu ohi den bezala, abilagoak gara arazoari izena jartzen konponbideak planteatzen baino. Badakigu maskulinitate patriarkalak patologikoki nartzizistak eta heldugabeak izatera eramaten dituela gizonak, eta, psikologikoki, gizon jaiotzeetatik berez jaso dituzten pribilegioen mendeko izatera, pribilegiok erlatiboak izan edo ez. Gizon askok sentitzen dute beren bizitzak mehatxupean leudekeela pribilegio horiek galduz gero, ez baitute mamitu inongo oinarriko identitate esanguratsurik. Hain zuzen, horrexetatik ahalegindu zen gizonen mugimendua gizoni irakasten nola bat egin berriz beren sentimenduekin, nola berreskuratu beren barreneko haur galdua, nola handitu beren arima, beren hazkuntza espiritualak.

Ez da testu feminista askorik idatzi mutilentzat; ez da askorik idatzi mutilei azaltzeko nola eraiki dezaketen sexismoan errotu gabeko identitate bat. Gizon antisexistek heziketa urria jaso dute mutilen gazarroaren eta bereziki mutil nerabeen garapenaren gaineko ikuspegi bat emango liekeen kontzientzia kritikoa lantzeko. Gabezia horren ondorioz, mutilen heziketari buruzko eztabaidak herrialde osora hedatu diren arren, ikuspegi feministak toki gutxi edo batere ez du izaten eztabaida horietan. Zoritzarrez, zenbait ustekizun misogino kaltegarri berpizten ari dira, hala nola amek ezin dutela seme osasuntsurik hezi edo mutilei «mesede» egiten dietela maskulinitatearen ikuspegi patriarkal militaristek, zeinek diziplina izatea eta autoritateari obeditzea goratzen baitute. Mutilek autoestimu osasungarria behar dute. Maitasuna behar dute. Eta feminismo zuhur eta maitekor batek eman lezake mutilen bizitzak salbatzeko oinarri bakarra. Patriarkatuak ez ditu sendatuko. Hala balitz, dagoeneko onbideratuta leudeke denak.

Identitatea arazo da herrialde honetako gizon gehienentzat. Patriarkatuari atxikitzen bazaizkio ere, sumatzen hasiak dira horixe dela arazoaren ertzetako bat. Enplegu faltaren, lan ordainduak berez dakarren asegabetasunaren eta emakumeen klase-boterearen gorakadaren ondorioz, aberatsak eta boteretsuak ez diren gizonei zaila egiten zaie jakitea non dauden. Patriarkatu supremazista zuri kapitalista ez da gai agindutako guztia emateko. Gizon asko larriminak jota daude ez dutelako bat egin kritika askatzaileekin, hau da, ez direlako gai izan konturatzeko agindutako hori injustizian eta menderakuntzan errotuta dagoela eta gizonek sekula ez dutela arrakastarik erdietsiko hari esker. Askapena gaitzesteak eta aldi berean arima

irentsi dien pentsamolde supremazista zuri kapitalista patriarkala erreproduzitzeak galbidera eraman ditu, mutil asko ere bezala.

Iparramerikar gizonak eraberritzeko, ikuspegi feminista berri bat behar dugu, maskulinitate feminista aintzat hartuko duena, mutilak eta gizonak maitatuko dituena eta haientzat ere neska eta emakume guztientzat nahi genituzkeen eskubide berak eskatuko dituena. Pentsamolde feministak bereziki justizia eta askatasuna maitatzen irakasten digu denoi, bizitza aberasteko eta sendotzeko. Garbi dago estrategia, teoria eta bide berriak behar ditugula maskulinitate feminista garatuko den mundu bat nola sortu ikasteko.

HAMAHIRU

GURASOTZA FEMINISTA

Mugimendu feminista erradikal garaikidearen ardatz nagusietako bat haurren gaia izan zen. Emakumeen itxaropena zen haurrak sexismorik gabe haziz gero ez zela mugimendu antisexista baten beharrik izango etorkizuneko munduan. Hasieran, rol sexual sexistei eta rolok haurrei jaiotzen direnetik inposatzeko moduei erreparatu zitzairen. Feminismoak neskatoengan jarri izan du ia beti arreta gehiena, aurreiritzi sexistei aurre eginez eta irudi alternatiboak sustatuz. Noizbehinka, mutikoei heziketa antisexista emateko beharra ere nabarmendu izan da, baina gehienbat gizonen patriarkatua kritikatzeari eta gizonen oro har emakumeek baino aukera hobeto dituztela azpimarratzeari eman zaio lehentasuna. Mutikoei neskatoek baino pribilegio gehiago eta botere handiagoa dutela onartzeak arreta nagusia neskatoengan jartzera bultzatu gintuen feministok.

Pentsalari feministok familia barneko sexismoa lantzean aurrez aurre izan genuen zailtasun nagusietako bat zera izan zen: gehienetan amek transmititzen

zutela pentsamolde sexista. Aita zaintzaile heldurik ez zen etxeetan ere, emakumeek pentsamolde sexista irakasten eta transmititzen zieten haurrei. Ironikoa irudi duen arren, jende askok uste du emakumeak buru dituzten familiak matriarkalak direla berez. Gaur egun, gizarte patriarkal honetan familiaburu diren emakumeak errudun sentitzen dira beren etxean gizonik ez dagoelako, eta balio sexistak irakasten dizkiete haurrei, hiperkontzienteki, batez ere mutikoei. Azkenaldian, klase eta arraza guztietako mutil gazteen ekintza biolento andanaren aurrean, hedabide nagusietako sasijakintsu kontserbadoreek iradoki dute emakume ezkongabeak ez direla gai seme osasuntsuak hezteko. Hori ez da egia inolaz ere, bai baitakigu ama ezkongabeek heziak direla gure gizarteko gizon maitagarri eta boteretsuenetako batzuk. Berriz errepikatuko dugu: jende gehienak uste du beren seme-alabak —bereziki semeak— bakarrik hezten dituzten emakumeek ez dutela asmatzen haurrak gizon patriarkal bihurtzen. Baina hori ez da egia.

Menderakuntzazko kultura supremazista zuri kapitalista patriarkaletan, haurrek ez dute eskubiderik. Justizia sozialaren aldeko mugimenduen artean, mugimendu feminista izan zen lehena aditzera ematen gure kulturak ez dituela haurrak maite, haurrak gurasoen ondasuntzat hartzen direla eta horrenbestez gurasoek nahi dutena egin dezaketela haiekin. Helduek haurren aurka indarkeria erabiltzea ohikoa da gure gizartean. Pentsalari feminista gehienek, baina, ez diote garrantzirik eman nahi izan errealitate horri, sarritan emakumeak baitira —alegia, guraso zaintzaile nagusiak— errudun nagusiak haurren aurkako eguneroko indarkeria horretan. Funtsezkoa eta iraultzailea izan zen mugimendu feministak aditzera ematea gizonek

etxean duten nagusikeriaren ondorioz batzuetan auto-krazia bat sortzen dela eta gizonak sexualki abusatzen dutela hurrez; baina, beste alde batetik, haur askok eta askok abusu fisiko eta hitzezkoak jasotzen dituzte egunero-egunero emakume zein gizonen aldetik. Amasadismoak hurrez emozionalki abusatzera bultzatzen ditu emakumeak askotan, eta teoria feminista egundaino ez da gai izan kritika eta esku-hartze feminista bat eskaintzeko emakume helduek haurren aurka baliatzen duten indarkeriaren aurka.

Hurrek eskubide zibilik ez duten menderakuntzako kultura batean, boteretsuek —hau da, emakume eta gizon helduek— beren botere autoritatikoa erabil dezakete haurren aurka. Txosten medikoetan egiaztatu denez, gure gizartean egunero izaten dira haurren aurkako abusu biolentoak. Are bizitza bera arriskuan jartzeraino. Haur asko hiltzen da. Emakumeek gizonak bezainbeste baliatzen dute indarkeria, edo gehiago. Pentsamolde eta praktika feministak hutsune handia izan du arlo horretan, uko egin baitio emakume helduek haurren aurka baliatzen duten indarkeriari aurre egiteari. Dena gizonen nagusikeriari egotziz gero, emakumeentzat —baita pentsalari feministentzat ere— errazagoa da ezkutatzea emakumeek hurrez abusatzen dutela guztiok sozializatu gaituztelako pentsamolde patriarkalaren arabera, menderakuntzaren etikaren arabera, non boteredunek eskubidea baitute boteregabeen gainean agintzeko eta edozein bide erabil baitezakete haiek mendea hartzeko. Patriarkatu supremazista zuri kapitalistan, onartzen da gizonak emakumeak beren mendea hartzea, baina baita helduek haurrak beren mendea hartzea ere. Eta inork ez die benetan erreparatu nahi ama abusu-egileei.

Askotan kontatu izan dut nola behin afari do-
tore batera joan nintzen eta emakume bat kontaktzen
hasi zen nola zigortzen zuen bere seme gaztea atximur
mingarriak eginez: haragia atximurkatzen zion, haren
gainean kontrola izatea lortu arte. Eta mundu guztiak
txalo egin zion, diziplina ezartzeko agertu zuen trebe-
tasunagatik. Orduan, jendaurrean adierazi nuen haren
jokamoldea abusu bat zela, beraren semea hazi ahala
emakumeez abusatzeke hazia ereiten ari zela poten-
tzialki. Horretaz gainera, entzuleen aurrean aipatu
nuen gizon batek kontatuko balu atximur egiten diola
emakume bati haren jokamoldea kontrolatzeko abu-
sutzat joko genukeela berehala. Baina, eraso haurren
aurkakoa denean, ontzat ematen da menderakuntza
negatiboa. Halakoak ez dira gertaera bakanak; gu-
rasoek askoz indarkeria bortitzagoa erabiltzen dute
egunerokoan seme-alaben aurka.

Herrialde honetako hurrek, beraz, krisi bati aurre
egin behar diote: pentsamolde patriarkalaren eta
aldaketa feministen arteko talkaren ondorioz, familia
gerrarako eremu bilakatu da, are gizonen nagusikeria
etxe guztietan arau zen garaian baino gehiago. Mugimendu
feminista katalizatzaile bat izan zen, itzalpetik
atera eta lau haizeetara zabaldu baitzuen zein larria
zen —lehen bezala, orain— gizonek hurrez sexualki
abusatzea familia patriarkaletan. Hasieran, tratamendu
terapeutikoa jaso zuten mugimendu feministako
zenbait emakume helduk kontatu zuten abusuaren
biktimak izanak zirela, hau da, gaia terapiaren esparru
pribatutik atera, eta diskurtso publikora ekarri zuten.
Lekukotasun haiek testuinguru etiko eta moral positibo
bat eratu zuten hurrek gaur egun abusuari aurre egi-
teko. Hala eta guztiz ere, besterik gabe esatea gizonek
hurrez sexualki abusatzen dutela ez da aski jendeak

uler dezan abusua gizonen nagusikeriarekin lotuta dagoela eta patriarkatua deuseztatzea dela modu bakarra arazoa konpontzeko. Gizonek emakumeek baino sarriagotan abusatzen dute sexualki haurrez, eta halako abusuak sarriago salatzen dira emakumeek egindakoak baino, baina gizonen abusua bezain ankerztat hartu behar litzateke emakumeek sexu-larderiak jokatzea haurren aurka. Eta, mugimendu feministari dagokionez, gizonen abusuak kritikatzeko dituen bezain zorrotz kritikatu behar lituzke emakumeenak ere. Sexu-abusuen gaiak harago, haurren aurkako indarkeria era askotara agertzen da, eta ohikoenak abusu psikologikoak eta hitzezkoak dira.

Abusuzko umiliazioa beste abusu mota batzuen oinarria da. Mutikoen, askotan, abusuak sufritzen dituzte maskulinitatearen ikuspegi sexisten arabera ez jokatzeagatik; heldu sexistek (berezi amek) eta beste haur batzuek umiliatzen dituzte. Aita zaintzaileek pentsamendu eta jokamolde antisexistak gorputzen dituztenean, ordea, neska-mutilek aukera izaten dute feminismoa ekinean ikusteko. Pentsalari eta aktibista feministek haurrei eskaintzen dizkieten heziketa-esparruetan, haien jokamoldea ez da epaitzen aurreiritzi antisexisten arabera, eta, horri esker, neska-mutilek autoestimua osasungarria garatzen dute.

Mugimendu feministak haurren alde egindako esku-hartze onuragarrienetako bat izan zen kontzientzia kulturala zabaltzea eta ohartaraztea gizonen berdintasunez parte hartu behar dutela gurasotzan, ez bakarrik genero-ekitatearen mesedetan, baizik eta baita haurrekiko harremanak hobetzeko ere.

Etorkizuneko ikerketa feministetan, dokumentatuta geratuko da nola hobetzen den haurren bizitza aita antisexistei esker. Era berean, gehiago jakin

beharra daukagu gurasotza feministari buruz eta orobat haur bat testuinguru antisexista batean heztearen praktikotasunari buruz, eta garrantzitsuena da gehiago arakatu beharra daukagula etorkizunean nolako pertsonak izango diren halako heziketa jasotzen duten haurrak.

Aktibista feminista aurrerakoiok sekula ez dugu ukatu zenbaterainoko garrantzia eta balioa duten aita zaintzaileek, eta, aldi berean, lanean segitzen dugu amatasunak eta ama diren emakumeek egiten duten lanak aitortza kultural handiagoa izan dezaten. Gizonek gurasotzan parte hartzea goretsi eta amen zaintza-lana on mespretxatzen badugu eta balioa kentzen badiogu, mesede eskasa egingo diegu emakumeei. Mugimendu feministaren hasieran, feministek gogor kritikatzeko zuten amatasuna, beren karrera profesionalen kontra zihoalakoan, karrera horiek baliagarriagozat jotzen baitzituzten askapena eta autoafirmazioa lortzeko bidean. Nolanahi ere, 1980ko hamarkadaren erdialdean, zenbait pentsalari feministak aurre egin zieten feministak amatasunaren gainean hedatzen ari ziren mespretxuari eta etxetik kanpoko lanaren balioespen gehiegizkoari. Gai horri buruz, zera idatzi nuen *Feminist Theory: From Margin to Center* liburuan:

Emakumeek sexismoa arautzat duen testuinguru sozial batean lan egiten dute, alferrikako lehia eta norbanakoen arteko inbidia, mesfidantza, etsaitasuna eta makurkeria sustatzen dituen testuinguru batean, eta horrek estresagarri, etsigarri eta, maiz, guztiz esker txarreko bilakatzen du lana... Soldatapeko lana gogoko izan eta hartaz gozatzen duten emakume askoren iritziz, denbora gehiegi kentzen die lanak, tarte gutxi geratzen baitzaie bestelako denbora-pasa asebetegarrietarako. Lanak independentzia edo are burujabetza ekonomikoa lortzen laguntzen dien arren, emakume

gehienen aburuz ez da modu egokia pertsona gisa dituzten premiak asetzeko. Ondorioz, emakumeek giro zainduetan egindako lan atsegingarriak bilatzen dituzte; alegia, berriz ere, familiaren eta amatasunaren alderdi onuragarrien garrantzia azpimarratzen ari gara.

Ironikoa bada ere, pentsalari feministak amatasunaren irudi orekatuago bat sortzeko ahaleginean ari zirela, kultura nagusi patriarkalak kritika kru-
del bat abiarazi zuen emakumeak buru zituzten familia gurasobakarren aurka. Kritika hura bereziki gogorra izan zen ongizatearen gaiari dagokionez. Kritika patriarkalak ez zuen aintzat hartu —nahiz datuak baziren— nolako gaitasuna zuten ama ezkongabeek maitatzeko, are diru-sarrera urriak izanda ere, estatuaren laguntzez baliaturik edo soldata baten truke lan eginda; horren ordez, emakumeak buru zituzten familia disfunczionaletan jarri zuten arreta, ohikoena halako egoerak suertatzea balitz bezala, eta, areago, iradoki zuten arazoa aise konpon zitekeela gizonek halako egoeretan hornitzaile patriarkal eta familiaburu gisa parte hartuz gero.

Ama ezkongabeen desohore soziala kontraeraso antifeministen artean kaltegarriena izan da haurren ongizaterako. Bi gurasok osaturiko familia patriarkala gainerako aukeren aldean lehenesten duen kultura batean, haurrek desoreka emozionala izaten dute beren familia eredu estandarretik kanpo dagoenean. Familia patriarkalaren gaineko ikuspegi utopikoak bere horretan iraun du, nahiz eta frogatuta dagoen haurren ongizatea ez dela handiagoa gizonak buru dituzten familietan emakumeak buru dituztenetan baino. Haurrak maitasun-giroetan hezi behar dira. Menderakuntza agertuz gero, maitasuna falta izaten da. Guraso maitekorrek —ezkongabe zein bikote, homosexual zein

heterosexual, emakume zein gizon— aukera handia-
goa dute haur osasuntsu, zoriontsu eta autoestimu
altukoak hazteko. Etorkizuneko mugimendu feminis-
tan, lan gehiago egin behar dugu gurasoei erakusteko
sexismoa deuseztatzeak aldaketa onuragarriak da-
karzkiola familia-bizitzari. Mugimendu feminista
famiariaren aldekoa da. Haurren gaineko nagusikeria
patriarkala deuseztatzea (eta berdin du emakumeak
ala gizonak nagusitzen diren) da bide bakarra familia
esparru seguru bat izan dadin haurrentzat, aske izan
daitezen esparru horretan, maitasuna zer den jakin
dezaten.

HAMALAU

EZKONTZA- ETA BIKOTE-HARREMANAK ASKATZEN

Mugimendu feminista garaikidea goren-gorenean zegoelarik, ezkontzaren instituzioa gogor kritikatzan zen. Emakume heterosexual asko sartu ziren mugimenduan gizonen harreman intimoetan zeukaten nagusikeriak akuilaturik, bereziki iraupen luzeko ezkontzetan, non genero-inekitatea araua baitzen. Hasiera-hasieratik, mugimenduak sexualitate-arau bikoitzari aurre egin zion; izan ere, batetik, birjinak ez ziren emakumeak edo leialak ez ziren maitale eta emazteak gaitzesten ziren, baina, bestetik, gizonen jokamoldea ontzat jotzen zen beti, sexualki egiten zutena egiten zutela ere. Sexu-askapenaren aldeko mugimenduak ezkontzaren aurkako kritika feminista hauspotu zuen, bereziki metodo antikonzeptibo seguru eta merkeak eskatuz.

Hasieran, aktibista feministek harreman pribatuetan eta etxe barneko harremanetan jarri zuten arreta, esparru horietan igartzen baitzuten klase eta arraza guztietako emakumeek gizonen nagusikeriaren oldarra, izan guraso patriarkalena, izan ezkontide

patriarkalena. Gerta zitekeen emakume batek aser-tibitatez aurre egitea lantokiko ugazaba sexistari edo bera menderatzen saiatzen zen ezezagun bati, eta gero etxera joan eta beraren bikotekidearen mende jar-tzea. Feminista garaikideek —bai ezkontza luzeetatik zetozen emakume heterosexualak, bai borroka-aliatu lesbianak— esklabotza sexualerako esparrutzat har-tzen eta kritikatzten zuten ezkontza. Nabarmentzen zuten harreman sexista tradizionalak ezkontza zekar-tela berekin eta ezkontza horietan intimitatea, zaintza eta errespetua sakrifikatzen zirela gizonak gainetik egon zitezen beti, hau da, aginte-makilaren jabe ziren patriarkak izan zitezen.

Hasieran, emakume feminista asko ezkor agertu ziren gizonen aldetaren aurrean. Emaku-me heterosexual batzuek zelibatua edo lesbianismoa aukeratu zituzten, nahiago baitzuten hori gizon se-xistekin desberdintasunezko harremanak izan baino. Beste batzuen arabera, gizonekiko sexu-monogamiak emakume baten gorputza beraren bikotekide gizona-ren jabetzapekoa izatea indartzen zuen. Guk harreman ez-monogamoen alde egin genuen, eta, askotan, uko egin genion ezkontzeari. Gure ustez, gizarte patriarka-laren barnean estatuak onarturiko ezkontzarik tartean izan gabe bikotekide gizon batekin bizitzeak emaku-meen autonomia era osasungarri batean errespetatzen laguntzen zien gizonei. Feministek esklabotza sexua-la deuseztatzeko eskatu zuten, eta halaber ohartarazi ezkontza barneko bortxaketa oso zabaldua zegoela. Era berean, emakumeok gure sexu-desira adierazteko, sexu-harreman bati ekiteko eta sexualki asebateak iza-teko dugun eskubidea defendatu zuten.

Gizon heterosexual askok, hain zuzen, pen-samolde feministarekin bat egin zuten ez zeudelako

sexualki aserik beren bikote-harremanetan, haien bikotekideek ongi ikasia zutelako emakume bertutetsuak ez zirela sexualki aktiboak eta horrenbestez ez zutelako inongo interesik sexuan. Gizon haiek biziki eskertu zuten mugimendu feministak paradigma sexual askatzaile bat eskaintzea emakumeei, horrek sexu-bizitza asebetegarriagoa ziurtatuko baitzien berei ere. Pentsalari feministek ez zuten onartzen emakume baten bertutea beraren sexu-praktiken araberakoa izatea; hala, birjina ez izatearen estigma deuseztatu, eta gizonen maila berean paratu zuten emakumeen sexu-ongizatea. Emakumeei eskatu zieten sexualki asetzen ez baziren ez zezatela horren itxurarik egin, eta, hala, gizonen gabezia sexualak agerian uzteko mehatxua egin zuen mugimendu feministak.

Mehatxu hura indargabetu nahian, gizon sexistek behin eta berriz errepikatzen zuten feminista gehienak lesbianak zirela edo «txortaldi on bat» behar zutela zegokien tokira itzularazteko. Egiaz, matxindada feministak agerian utzi zuen emakume askok ez zutela sexu-harreman asegarririk izaten gizonen harreman patriarkaletan. Harreman intimoei dago kienez, gizon gehienek errazago onartzen zituzten feminismoak emakumeen sexualitatean eragindako aldaketak —hau da, emakumeak sexualki aktiboagoak izatea— beren sexu-jokamoldea aldaraziko zieten aldaketak baino. Feministen xedeak heterosexualitateari begira jarri zirenean, sexu-jolasik eza izan zen gairik eztabaidatuenetariko bat. Emakume heterosexualak aspertuta zeuden gizonen sexu-larderiez eta emakumeen plazerarekiko erakusten zuten interes faltaz. Feminismoak sexu-plazeraz ematen zuen ikuspegiak gizonen sexu-jokamoldea kritikatzeko eta zalantzan jartzeko hizkuntza egoki bat eman zien emakumeei.

Emakumeek aurrerapauso handiak eman zituzten sexu-askatasunaren esparruan. Monogamiaren kritika alde batera geratu zen, zeren sexu-transmisioko gaixotasunak ugaritzearen ondorioz emakumeentzat zailagoa bilakatu baitzen sexu-promiskuitatea aukeratzeari. Emakume heterosexualek oztopoak izan dituzte bikotekide bat baino gehiago aukeratzeko orduan; izan ere, bizitza arriskuan jartzen duten gaixotasunak zabaltzen hasi ziren (hiesa, adibidez), batez ere gizonek emakumeei kutsatuak, gizonek emakumeei gezurra esatea aski onetsia zen kultura patriarkal batean. Zailtzarik gabe, patriarkatuaren barneko harreman heterosexual monogamoetan, bikoteei zailagoa zaie paradigma sexistak haustea. Era berean, emakume feminista askok ikusi zuten patriarkatuaren barneko harreman ez-monogamoek botere gehiago ematen zieten gizonei eta aldi berean emakumeak ahultzen zituztela. Emakumeak aske ziren sexu-harremanak izateko beste bikotekide bat —emakumea— zuen gizon batekin, baina, alderantziz, gizonek ez zuten inongo sexu-interesik bikotekidea zuten emakumeekin. Areago, halakoetan, boterea emango zioten emakumearen bikotekideari, inoiz beraren onespena bilatzeraino. Zailtasunak zailtasun, emakumeok aske garen arren ez-monogamo izateko —askatasun horretaz baliatu edo ez—, oraindik ere aurre egin behar zaio emakumeen gorputza gizonen jabetza izateari. Kritika feministak aldaketa onuragarri ugari ekarri ditu sexu-plazeraren gaineko ikuspegi sexistaren esparrura, eta emakume eta gizonek sexu-harreman asegarriagoak izateko mundu bat sortu du.

Hasieran, irudi zuen sexu-harremanen izaera aldatzeak bestelako aldaketa batzuk ekarriko zituela etxe barneko harremanetara, hau da, etxeko lanak eta

seme-alaben zaintza berdin banatuko zirela gizon eta emakumeen artean. Gaur egun, gizon askok onartzen dute berek ere egin behar lituzketela etxeko lanak (beste kontu bat da hori betetzen duten ala ez), eta emakume gazteek ez dute beharrezkotzat jotzen etxeko lanak banatzeari buruz hitz egitea; besterik gabe, arautzat hartzen dute. Jakina, errealitateak erakusten digu sekula ez dela arau bihurtu eta etxeko lanak eta haurren zaintza batez ere emakumeen ardura direla oraindik ere. Oro har, gizonek errazago onartu eta berretsi izan dute logela barneko berdintasuna etxeko lanen eta haurren zaintzaren esparruko berdintasuna baino. Ez da harritzekoa emakumeek klase-boterea lortu ahala haietariko asko inekitatean erortzea eta zerbitzariak kontratatzea ez berek ez beren bikotekide gizonek egin nahi ez dituzten lanak egiteko. Nolanahi ere, bikote heterosexual batek beste norbaiti ordaintzen dionean pentsamolde sexistak «emakumeen lan»tzat hartzen dituen horiek egin ditzan, emakumeak aukeratzen du normalki nor kontratatu, eta bera arduratzen da haren lana ikuskatzeaz.

Feminismoak, beraz, amatasuna emakume baten bizitzako helburu asebetegarri bakarra izatea kritikatu zuen, eta horrek beste ezerk baino gehiago aldarazi zituen ezkontza barneko harremanak eta bikote-harreman iraunkorrak. Emakumeen balioa haurrak izatearen eta haztearen arabera neurtzeari utzi zitzaionez geroztik, posible da bikote batean biek etxetik kanpo lan egitea eta seme-alabarik ez izatea eta, horrenbestez, ezkontza-harremana parekideen arteko harreman gisa ikustea. Seme-alabarik gabe, errazagoa da parekideak izatea; izan ere, gizarte patriarkalak berez barneratuta dauka zenbait lan amek egingo dituztela ia beti, eta, horregatik, zailagoa da emakumeek

genero-ekitatea lortzea seme-alaben zaintzaren esparruan. Adibidez: adierazgarria da nola mugimendu feminista loratu zenean osasun-sistema patriarkala bat-batean hasi zen edoskitzearen onurak goraiatzan eta are hura aldarrikatzen, nahiz ordura arte garrantzirik ez eman. Izan ere, seme-alaben zaintzaren alderdi horren bitartez, erantzukizun handiagoa ematen zaio, berez, haurraz erditu den emakumeari, izan heterosexuala, izan lesbiana. Emakume asko ohartzen dira gizonetik harremanetan rol sexistagoak hartzen direla bat-batean, haur bat jaio bezain laster. Baina, bikoteak ahalegina eginez gero esparru guztietan ekitateari eusteko —batez ere seme-alaben zaintzaren esparruan—, lor daiteke: gaia gogotik lantzea da gakoa. Eta gizon gehienek ez dute aukeratu seme-alaben zaintzaren gaia gogotik lantzea.

Zorionez, feminismoak entzutea eman zien aitek haurren ongizatean eta genero-ekitatean zeukaten balioari eta garrantziari. Gizonek berdintasunez parte hartzen dutenean gurasotzan, emakume eta gizonen arteko harremanak hobeak izaten dira; ez du axola ezkondata dauden, elkarrekin bizi diren ala banatuta. Mugimendu feministari esker, gero eta gizon gehiagok eta inoiz baino gehiago parte hartzen dute gurasotzan, baina horrek ez du esan nahi genero-ekitaterik lortu dugunik, inondik ere. Badakigu berdintasunez parte hartuz gero gurasotza askoz hobe eta betegarriagoa izango dela denontzat. Eta badakigu, halaber, lanbaldintzak oztupo izaten direla maiz guraso langileek —batez ere aitek— parte-hartze handiagoa izan dezaten seme-alaben zaintzan. Zinezko aldaketarik ikusten ez badugu lanaldien antolaketan, ez dugu lortuko gizonek gurasotzarako denborarik eta espaziorik izatea. Hori lortuko bagenu, gizonek gogo handiagoa izango

lukete seme-alabak zaintzeko. Alabaina, gizon langile asko leher eginda daude lanagatik; soldata baxuak dituzte, eta, horrenbestez, gogo onez onartzen dute emakumeek haurren zaintzaren ardura osoa hartzea, haiek ere leher eginda bukatu eta soldata baxua badute ere. Patriarkatu supremazista zuri kapitalistaren lan-munduan, zailagoa da emakumeek dedikazio osoa eskaintzea gurasotzari. Areago, errealitate horrek lan egiteari uko egitera eta etxean geratzera bultzatzen ditu emakumeak. Emakumeak beldur dira ez ote garen «gurasorik gabeko» haurren gizarte bat eratzen ari, eta horrexek bultzatzen ditu etxetik kanpo lanik ez egitera eta etxean geratzera, gizonen nagusikeriaren inguruko pentsamolde sexistak baino gehiago. Emakume asko ohartzen dira lehia profesionalak denbora gutxi uzten duela maitasunezko harremanak lantzeko. Inork ez du esaten gizonek lana utzi behar dutenik seme-alabak denbora osoz zaintzeko; alegia, horrek garbi erakusten du zenbateraino nagusitu den roletan pentsamolde sexistak. Gure gizarteko jende gehienak oraindik ere pentsatzen du emakumeek hobeki zaintzen dituztela haurrak gizonen baino.

Emakumeek, alde batetik, amatasuna kritikatzeko zuten, baina, bestetik, gozagarri zitzaizkien amatasunak ematen zizkien estatus berezia eta pribilegioak (batik bat ama-haurren arteko loturari dagokionez); neurri handi batean, ez zeuden prest gurasotzaren ohorezko ardura gizonen esku uzteko, ez behintzat pentsalari feministek espero bezainbeste. Bestalde, esparru guztietako determinismo biologikoa kritikatzeko zuten pentsalari feminista batzuek determinismo hutsez jokatzeko zuten amatasunari dagokionez. Ez zuten onartzen aitak amak bezain garrantzitsuak direla eta haiek bezain ongi zaindu

ditzaketela beren seme-alabak. Halako kontraesanek, pentsamolde sexistarekin batera, nabarmen ahuldu zituzten feministek haurren zaintzan genero-ekitatea aldarrikatzeko eginiko eskaerak.

Gaur egun, hedabideek behin eta berriz zabal-tzen dute ezkontzea indarrean dela berriz. Ezkontza sekula ez da egon modaz kanpo. Askotan, jendeak esaten duenean berriz indarrean dela, egiaz esan nahi du ezkontzaren gaineko ikuspegi sexistak «hemen» direla berriro. Hori kezkarria da mugimendu feministarentzat, gaur egun —lehen ere bezala— argi baitago oinarri sexisten gainean eraikitako ezkontza-harremanek arazo ugari dakartzatela eta gutxi irauten dutela. Ezkontza-harreman sexista tradizionalak boladan daude, gero eta gehiago. Etxeko harremanetako miseria eta asegabetasuna katalizatzaile izan ziren matxinada feministarentzat, eta, hain zuzen ere, ezkontzak miseria eta asegabetasun horren hazia ereiten baitu, halako loturen iraupen laburra izaten da maiz tradizioa urratzen duena. Jendea gazterik ezkontzen da, eta gazterik dibortziatzen.

Gure gizartean, dibortzio eta hausturen arrazoi nagusia gizonak ezkontza- eta bikote-harremanetan duten nagusikeria patriarkala da. Ezkontza arrakastatsuei buruzko azken aldiko ikerketen arabera, genero-ekitateak testuinguru egokia sortzen du bikoteko bi kideak errealizatuta senti daitezen. Horri esker, zoriontasuna areagotzen da, eta, ezkontzak betiko iraun ez arren, harremanaren oinarrian dagoen parekideen arteko laguntasunak bere horretan iraungo du. Nabarmentzekoa da etorkizuneko mugimendu feministan denbora gutxiago eman beharko dugula ezkontza-lotura patriarkalak kritikatzeko eta ahalegin handiagoa egin beharko dugula alternatibak

eskaintzeko, parekideen arteko harremanen eta berdintasunaren eta errespetuaren printzipioen gainean eraikitakoen balioa agerian uzteko, betiere sinetsirik elkarrentzat asegarri izatea eta elkarrekin haztea beharrezkoa dela bikote-harremanak asebetegarriak eta iraunkorrak izan daitezzen.

HAMABOST

SEXU-POLITIKA FEMINISTA ELKARREKIKO ASKATASUNEAN OINARRITURIKO ETIKA

Mugimendu feministaren aurretik, sexu-askapenaren aurretik, emakume gehienentzat zaila zen, are guztiz ezinezkoa, burujabetza sexual osasungarri bati eustea. Pentsamolde sexistak jaiotzetik irakatsi digu emakumeoi sexu-desira eta -plazera gizonen kontuak direla bakarrik, sexu-premia edo -gosea aldarrikatzen duten emakumeak ia bertuterik gabeak edo guztiz bertuterik gabeak direla. Pentsamolde sexistaren eraginez birjinaren edo emagalduaren rolen artean erdibiturik, emakumeok ez geneukan inongo oinarririk sexu-identitate osasungarri bat eraikitzeko. Zorionez, mugimendu feministak berehala aurre egin zien sexu-estereotipo sexistei. Garai hartan, gainera, metodo antikonzeptibo fidagarriak denon eskura zeuden gure herrialdean, eta hori lagungarria izan zen mugimendu feministarentzat.

Metodo antikonzeptibo fidagarrien aurretik, emakumeen sexu-assertibitateak nahi gabeko haurdunaldien eta legez kanpoko abortuaren arriskuaren «zigorra» ekar zezakeen beti berekin. Ez dugu

nahikoa lekukotasun bildu munduari azaltzeko zer sexu-patologia eta lazgarrikeria jasan behar izan zituzten emakumeek metodo antikontzeptibo fidagarriak izan aurretik. Ikarak goitik behera hartzen nau imajinatzen dudalarik zer litzatekeen emakumeontzat sexu-harreman bat daukagun aldiro haurdun geratzeko arriskua izatea, zer litzatekeen gizonen sexu-harremanak izan nahi izatea eta emakumeok horren beldur izatea. Mundua halakoa balitz, emakumeek, desira izanez gero, desira horren eta beldurraren arteko gurutzaketa bilatu behar lukete. Ez daukagu nahikoa lekukotasun jakiteko zer egiten zuten emakumeek gizonen sexu-proposamenei muzin egiteko, nola borrokatzen ziren ezkontza barneko bortzaketa errepikatuen aurka, nola moldatzen ziren heriotza-arriskuaren aurka eta nahi gabeko haurdunaldien aurka egiteko. Baina badakigu emakumeen sexualitatearen mundua behin betiko aldatu zela sexu-iraultza feministarekin batera.

Gutariko batzuok bertatik bertara bizi izan genuen gure amen oinaze eta garraztasun sexuala, sexualitateari zioten erabateko beldurra eta gorrotoa; horregatik, guretzat zoragarria izan zen ikustea nola agertu zen mugimendu bat askatasuna, plazera eta gozamena agintzen zizkiguna, hain justu ere gure sexualitatea garatzen ari ginen unean. Gaur egun, emakumeek oso oztopo gutxi dituzte beren sexu-desira adierazteko, eta, ondorioz, badago arriskua patriarkatuak emakumeon gorputzei eta sexualitateari egin dien eraso gure kulturaren memoria historikotik ezabatzeko. Ahanzturaren eremu horretan, gerta daiteke abortua legez kanpo uzteko ahaleginetan ari direnek gai bakar batera bideratzea eztabaida, hau da, ea bizitza bat akabatu behar den ala ez, zalantzan jarri

ere egin gabe zer ondorio galgarriak izango lituzkeen emakumeon sexualitaterako legezko abortua debekatzek. Oraindik ere, belaunaldi askotako emakumeek ez dakite zer den sexu-plazera: sexuak galera, mehatxua, arriskua, suntsipena esan nahi du berentzat.

Emakumeen sexu-askatasunak beharrezko ditu metodo antikonzeptibo fidagarri eta seguruak. Bestela, emakumeek nekez izango dituzte kontrolpean beren sexu-jardueraren ondorioak. Baina emakumeen sexu-askatasunak beharrezko du, halaber, emakumeok gure gorputza ezagutzea, osotasun sexuala zer den ulertzea. Sexualitatearen inguruko aktibismo feministaren hastapenetan, lehentasunez aldarrikatzen zen beharrezkoa zela politika bat sortzea emakumeok nahi dugunean eta nahi dugunarekin sexu-harremanak izateko aukagun eskubidearen alde, eta, ondorioz, alde batera utzi zen kontzientzia kritikorako heziketa feminista, hau da, ez genuen ikasi nola errespetatu gure gorputza antisexismotik abiatuz, ez genuen ikasi nolakoa izan litekeen sexualitate askatzailea.

1960ko hamarkadaren bukaeran eta 1970ekoaren hasieran, sexu-askatasuna eta sexu-promiskuitatea elkarren sinonimotzat hartzera bultzatzen gintuzten maiz emakumeok. Garai hartan, eta baita, neurri batean, gaur egun ere, gizon heterosexual gehienen ustez sexualki askaturiko emakumeak ziren istilurik sortu gabe sexu-harremanak izateko prest zeuden bakarrak, hau da, deus eskatuko ez zutenak, batik bat arlo emozionalean. Eta ikuspegi oker berekoak ziren feminista heterosexual asko eta asko ere, gizon patriarkalen eredu arabera jokatzeko baitzuten. Hala eta guztiz ere, emakumeak berehala konturatu ziren sexu-promiskuitatea eta sexu-askapena ez zirela eta ez direla gauza bera.

Mugimendu feminista «bero-bero» zegoela, ak-tibista lesbiana erradikalek etengabe aldarrikatzen zuten emakume heterosexualek birplanteatu behar luketela zer-nolako harremanak dituzten gizonekin; hala, berriz azaleratu zen ea posible ote zen emakumeek bizipen heterosexual askerik izatea testuinguru patriarkal batean. Zalantza hori oso erabilgarria izan zen mugimenduarentzat. Izan ere, batetik, beren praktika heterosexualak etengabe eta ikuspegi kritiko batetik aztertzeraz bultzatu zituen emakume heterosexualek; bestetik, agerian geratu zen nolako indarra zuten lesbianekek, baina baita zer ahulgune zituzten ere. Zenbait emakumek, gizonekin harremanak izateari utzi, eta emakumeak aukeratu zituzten, harako eslogan ospetsuak erakarririk: «Feminismoa teoria da; lesbianismoa, praktika». Nolanahi ere, berehala konturatu ziren harreman lesbikoek ere, beste guztiek bezala, asko eskatzen zirela emozionalki eta zailak zirela.

Harreman lesbikoak harreman heterosexualak bezain onak edo hobeak zenbateraino ziren esateko, kontua ez zen harremaneko bi kideak sexu berekoak izatea, baizik eta kideok konpromisoa hartzea menderakuntza sadomasokistaren kulturaren oinarrituriko harremanen eta erromantikotasunaren ikuspegiak bertan behera uzteko, hau da, harreman guztietan menderatzaile bat eta menderatu bat egotea ezinbestekoa dela baztertzeko. Lesbianen sexu-promiskuitatea ezin zen sexu-askapenaren parean jarri, ezta praktika heterosexualaren parean ere. Beren sexu-aukera gorabehera, biok maila berean jartzeagatik sufritu zuten emakumeek etsia hartu zuten sexualitateari dagokionez. Eta, gizonen nagusikeriaren eta sexu-indarkeriaren arteko loturaz ari garela, ez da

harritzekoa batik bat harremanak gizonekin zituzten emakumeek adieraztea gehien beren zoriontasun sexualik eza.

Sexu-askatasunaren ametsarekiko etsipen horren ondorioz, pentsalari feminista askok uko egin zioten halako bizipenei edo beren emakume lagun edo burkideek jasandako ondorio kaltegarriei aurre egiteari, eta horrek halako erresumin bat eragin zien sexu-jarduera ororen aurka, bereziki gizonetako kontaktu sexualaren aurka. Garai batean, lesbiana erradikalak izan ziren ahotsa altxatu zuten bakarrak emakumeak «etsaiarekin oheratu» ez zitezen, eta, gero, emakume heterosexualek haiekin bat egin zuten, zeren sexu berekoen arteko harremanak aukeratzen hasi ziren, gizonekin guztiz etsia harturik. Bat-batean, sexualitateari buruzko eztabaidetan —bereziki sexu-harremanei buruzkoetan—, bazirudien koito oro sexu-larderiatzat hartzen zela, gizon batek emakume bati zakila sartzea bortxaketa zela beti. Halako teoriak eta teoriok zabaltzen zituzten emakume karismatikoek eragin sakona izan zuten emakume gazteen kontzientzian, sexu-identitate berri eta ezberdinak taxutzen saiatzen ari ziren heinean. Emakume gazte haietako askok bisexualitatea aukeratu zuten azkenean, baita gizonekin harremanak izatea ere, betiere baldintza gisa jarrita emakumeak erabakiko zuela beti nolakoa izango zen sexu-jarduera bakoitza. Emakume gazte asko eta asko, ordea, pentsamolde feministatik aldentu ziren, eta berriz heldu zieten sexu-askatasunari buruzko ikuspegi sexista zaharkituei, are mendekuz ere, batzuetan.

Ez da harritzekoa gero eta kontraesan eta gatazka gehiago sortzea sexu-plazeraren eta arriskuaren edo sexu-askatasunaren eta sexu-esklabotzaren arte-

ko tentsioaren eraginez; ondorioz, erakargarria gertatu zen sexu-sadomasokismoa probatzeko aukera. Azken batean, feministek sexualitatearen inguruan planteatzen zituzten zalantzak boterearekin lotuta zeuden. Ez zuen axola pentsalari feministek berdintasunari buruz hainbeste hitz egitea; sexu-desirari eta sexu-grina gorpuzteari dagokienez, sexualitatearen esparruko boterearen eta botere-gabeziaren dinamikek hankaz gora jarri zituzten zapaltzailearen eta zapalduaren ikuspegi sinplistik. Feminista lesbianek sexu-sadomasokismoaren alde egitea, kontuan izanik hura menderatzailez eta menderatuz beteriko mundu bat zela eta onargarritzat hartzen zituela boteredunaren eta boteregabearen posizioak, beste ezerk baino gehiago harrotu zituen hautsak heterosexualitatearen aurkako kritika feministaren barnean.

Mugimenduko emakumeak eztabaidatzen hasi zirenean ea bateragarriak ote ziren emakume askeak izatea —izan lesbiana, izan heterosexuala— eta sexu-sadomasokismoa praktikatzea, sexualitateari buruzko eztabaida feminista erradikalak eten egin ziren ia. Horrekin lotuta, iritzi desberdinak zeuden pornografia patriarkalaren esanahiaren eta garrantziaren inguruan. Halako gaiei heltzeak mugimendua zatitzea eta hondatzea ekar zezakeenez, feminista erradikalen elkarizketa gehienek publiko izateari utzi zioten 1980ko hamarkadaren bukaerarako, eta esparru pribatura igaro ziren. Sexualitateaz jendaurrean hitz egiteak mugimendua erraustu zuen.

Sexualitateaz jendaurrean hitz egiten segitu zuten emakume gehienak kontserbadoreak ziren; batzuetan, are puritanoak eta sexuaren aurkakoak ere. Mugimendua errotik aldatu zen: emakumeen sexu-askapena aldarrikatzeko eta goratzeko gun bat izatetik

sexu-indarkeria eta biktimizazioa ardatz hartuta sexualitateaz jendaurrean eztabaidatzeko gune izatera igaro zen. Adineko betiko feminista batzuk, zeinak emakumeen sexu-askatasunaren aldele sutsuak izanek baitziren garai batean, sexu-plazerari garrantzia kentzen hasi ziren, zelibatuari balioa emanek. Sexu-desiraz eta -praktikaz luze eta zabal hitz egin eta idatziak ziren emakume askok, gero eta gehiagok, sexu-politika feminista baztertu eta hartatik aldentzea erabaki dute gaur egun. Eta, inoiz baino gehiago, sexuaren aurkako mugimendu gisa ikusten da oroz gain mugimendu feminista. Sexu-grinari eta sexu-plazerari buruzko diskurtso feminista aurrerakoia baztertuta geratu da, kasik ahaztua. Ondorioz, emakume-gizonek sexu-askatasunaren eredu patriarkalen mende segitzen dute.

Sexu-iraultza eta mugimendu feminista gorabehera, badakigu emakume heterosexual askok sexu-harremanak dituztela gizonek hala nahi dutelako, emakume zein gizon homosexual gazteek oraindik ez daukatela babes publiko edo pribaturik beren sexu-aukera berresteko, «birjina edo emagaldua» ikonografia sexistak bizirik dirauela emakume zein gizonen iruditeria erotikotan, pornografia patriarkala nagusi dela hedabide guztietan, gero eta nahi gabeko haurdunaldi gehiago dagoela, nerabeek sexu-harreman asegabeak eta arriskutsuak izaten dituztela maiz, emakumeek ez dutela sexu-harremanik izaten iraupen luzeko ezkontza eta harremanetan —sexu berekoen zein heterosexualen artekoetan—. Begien bistakoa da, beraz, beharrezkoa dugula sexualitateari buruzko diskurtso feminista eraberritu bat. Oraindik ere, ikasi beharra daukagu zertan datzan sexualitate askatzailea.

Elkarrenganako errespetua funtsezkoa da sexualitate askatzaile baterako, eta ziurtzat eman behar

dugu sexu-plazera eta sexu-betetasuna aiseago lortzen direla elkarrekin adostuz eta borondatez aukeratzuz gero. Gizarte patriarkalean, emakume eta gizonen beren pentsamolde sexistari uko egin ezean, ezin zaio zorientasun heterosexualari eutsi. Emakume eta gizon askok oraindik ere uste dute gizonen sexu-jarduna beren zakilen gogortasunaren eta erekzioen iraupenaren mende dagoela. Ikuspegi hori ere pentsamolde sexistarekin loturik dago. Gizonen, beraz, bertan behera utzi behar dituzte beren ideia sexistak; esate baterako, emakumeen sexualitatearen funtzioa beren premien zerbitzura egotea eta berei gozamina ematea dela. Aldi berean, baina, emakume askok sarketaz harago begiratzen jakin behar dute.

Sexu-askapenaren eta mugimendu feminista garaikidearen une gorenean, emakumeak ohartu ziren gizonak askotan prest zeudela berdintasuna sexualitatean ez beste arlo guztietan onartzeko. Gizon askok sexu-desira handiko emakumeak nahi zituzten ohean, plazera emateko eta partekatze gogoia zutenak, baina, azken batean, ez zioten uko egiten emakumeen sexu-jarduna (sexu-harremanak izateko gogoia izan zein ez izan) gizonen desiraren mende zegoelako ideia sexistari. Dibertigarria zitzaien sexu-harremanak izatea emakume beroti eta askatuekin, baina ez zitzaien hain dibertigarria iruditzen emakumeok leku bat eskatzea sexualitateaz haragoko eremuetan ere. Horren ondorioz, askotan, gizon heterosexualek argi utzi zuten berek beste nonbait askatu beharra zutela beren sexu-irrika; horrek emakumeon gorputzaren gaineko jabegoaren paradigma sexista indartu zuen, eta, horretaz gainera, berretsi gizonen aski zutela edozein emakume-gorputz. Harreman heterosexual edo homosexual askatzailetan, bi kideek aske behar lukete

izan erabakitzeke noiz eta zer maiztasunekin izan nahi dituzten sexu-harremanak, inongo zigorrik jasotzeko beldurrik gabe. Gizon guztiek burutik kendu beharra daukate beste norbait behar dutela beti beren sexu-beharrak asetzeko; bestela, beren bikotekideei sexualki mendeko izateko eskatzen segituko dute.

Egiazko sexu-politika feminista askatzaile batean, ardatza beti izango da emakumeon burujabetza sexuala aldarrikatzea. Baina, emakumeok uste badugu gure gorputz sexualak beste norbaiten zerbitzura egon behar duela beti, sekula ez dugu halakorik erdietsiko. Askotan, prostituta profesionalek eta orobat emakumeek beren askapenaren adierazgarritzat hartzen dute beren alua ondasun edo zerbitzuen truke eskaintzea. Ez dute onartzen dirua irabazteko beste modurik ez duten emakumeak prostituitzea arriskutsua dela beren osotasun sexualerako, hau da, beren gorputza kontrolatzeko.

Emakume heterosexual askok eta askok oraindik ez dute lortu alde batera uztea uste sexistak hau: beren sexualitateari balioa eta esanahia emateko ezinbestekoa dela gizonen hura beti irrikatzea. Horretarako, sinetsi beharra daukate sexu berekoen arteko sexu-harremanak, masturbazioa eta zelibatua gizonetikiko sexu-harremanak bezain beharrezkoak eta onuragarriak direla kultura patriarkal batean. Adineko emakumeak, behiala aldaketa feministaren alde egin bazuten ere, askotan ohartzen dira feminitatearen eta sexu-desiragarritasunaren ikuspegi sexistak onartu behar dituztela gizonekin sexu-harremanak izateko eta berak beste emakume gazteago bat bilatuta ez ordezteko. Neurri batean, pentsalari feminista erradikalek arrazoi zuten duela zenbait urte esaten zutelarik emakumeok egiazko sexu-askapena erdiesteko

beharrezkoa genuela geure burua gai ikustea balio eta burujabetza sexuala izateko gizonen desiraren objektu izan gabe. Berriz ere, beharrezkoa dugu teoria feministak irakastea nola adierazi gure sentimendu eta identitate sexuala oraindik ere nabarmen patriarkalaren gizarte honetan.

Diskurtso feministak mugak dauzkan arren sexualitateaz hitz egiteko orduan, feminismoa da oraindik ere justizia sozialaren aldeko mugimendu bakarra teoriaren eta praktikaren bidez elkarrenganako ongizatea eskaintzen duena. Erotismoaren oinarritzko printzipioa gorputzak hala eskatzen digunean sexu-desira adierazteko eskubidea izan behar litzateke, baita sexu-plazerean bizitzari eusteko *ethos* bat bilatzekoa ere. Harreman erotikoen komunitateko bakardadetik eta alienaziotik ateratzen gaituzte. Sexu-irrikaren adierazpen positiboek elkarrengana lotuko gaituzten mundu batean, denok aske izango gara aukeratzeko zer sexu-praktika nahi ditugun pertsona gisa hazteko. Aukeratu genezake promiskuitatea edo zelibatua; aukeratu genezake sexu-identitate eta -hautu jakin bat, edo desira ezezagunak txandakatzea soilik pertsona jakin batzuekin harremanak izanez eta haiekin konprometitz, erotismoaren txinparta sentituz, haien sexua, arraza, klasea eta are sexu-aukera gorabehera. Mahai gainean jarri behar ditugu sexualitateari buruzko diskurtso feminista erradikalak, sexu-askatasunaren aldeko mugimendua berriz abian jar dadin.

HAMASEI

ZORION BETEA LESBIANISMOA ETA FEMINISMOA

Batzuetan, zaila da jakitea zer izan zen lehenago: emakumeen askapenerako mugimendua ala sexu-askapena. Aktibista batzuen iritziz, aldi berean gertatu ziren biak, nahasian. Hala pentsatzen zuten lehen abangoardia feminista garaikidean parte hartu zuten emakume bisexual eta lesbiana askok. Emakume haiek ez ziren feminista egin lesbianak zirelako. Lesbiana asko ez ziren politikan «sartzen»; areago, kontserbadoreak ziren, eta ez zuten erradikalki jokatu nahi inolaz ere. Baina emakumeen askapenerako abangoardia eratzen lagundu zuten emakume lesbiana eta bisexual batzuk feminista egin ziren ordurako konpromisoa zeukatelako ezkerreko politikarekin eta klase-, arraza- eta sexualitate-mugen aurka egiten ari zirelako. Alegia, emakumeen askapena psikologikoki dagoeneko aldarrikatua zuten zerbait zen, generoaren eta desiraren ikuspegi tradizionalen aurka agertuz.

Lesbiana izate hutsak ez du inor feminista egiten, ezta politiko ere. Talde esplotatu bateko kide izateak ez du inor bultzatzen erresistentziara. Hala balitz, ema-

kume guztiek (lesbiana guztiak barne) parte hartuko zuketean emakumeen mugimenduan. Esperientzia, kontzientzia eta borondatea izan ohi dira emakumeok ezkerreko politikara eramaten gaituzten faktoreak. Askotariko ibilbideetako emakume erradikal batzuk, giro sozialistetan eta eskubide zibilen alde edo Black Power mugimendu militantean lan astunak egin eta isilean pentsamolde erradikala landu ondoren, prest zeuden berentzako justizia lortzeko, hau da, prest zeuden mugimendu feministarako. Eta emakume lesbianak ziren egiazko aurrerakoien eta ausartenen artean prestatue-nak, gaur egun ere bezala.

Ni neu nire lehen sexu-esperientzia izan aurretik iritsi nintzen feminismora. Nerabea nintzen. Emakumeen eskubideez deus jakin aurretik, banekien zerbait homosexualitateaz. Hegoaldeko fundamentalismo erlijiosoaren mundu itxian, arraza-apartheidean, gay jendea ezaguna zen gure komunitate beltzean; askotan, bazuten estatus berezi bat; askotan, klase-boterea zuten gizonak izaten ziren. Gizonen homosexualitatea hobeki onartzen zen lesbianismoa baino. Lesbianak ezkonduak ziren maiz gure komunitate beltz segregatu txikian. Baina berek bazekiten zer ziren. Ate itxien atzean, topaketa eta festa sekretuetan azaleratzen zuten beren egiazko izatea. Lesbiana izateaz akusaturiko emakumeetako bat nire mentorea izan zen. Emakume profesionala zen, irakurzalea, pentsalaria, parrandazalea: miretsi egiten nuen. Nire aitak ez zuen begi onez ikusten gu bion arteko harremana, neska hura «arra-roa» baitzen beraren ustetan, baina nire amak aurka egin zion, esanez «jendeak eskubidea duela den bezalakoa izateko». Behin, mutil nerabe batzuek ankerki iraindu eta laidoztatu zuten gure kalearen beste aldean bizi zen gizon gay bat, eta nire amak, orduan, protes-

ta egin zuen, guztioi esanez gizon hura arduratsua eta bihotz onekoa zela, errespetatu eta maitatu behar genuela.

Feminismo hitza ezagutu aurretik ere, gayen eskubideen alde aritua nintzen. Nire familia beldur zen lesbiana izango ote nintzen, are sekula ezkonduko ez nintzen beldur izan baino askoz lehenago ere. Egiazko elementu arraro bat izateko bidean nengoen, oso argi bainekukan beti aukeratuko nuela barrenak eskatzen zidan tokira joatea, edozein tokitara, toki guztietara. Nire lehen liburua idatzi nuenerako (*Ain't I a Woman: Black Women and Feminism*), mugimendu feministara engaiatua nintzen, beste emakume heterosexual, bisexual eta publikoki gay batzuekin batera. Gazteak ginen. Eta, garai hartan, gutariko batzuok halako presio bat sentitu genuen, gure politikak eta gure gorputzak emakumeekin partekatuz erakutsi behar baikenuen erradikalki konprometituta geundela mugimenduarekin. Garai hartan denok ikasi genuen irakaspena izan zen sexu-praktika transgresoreak izateak ez zekarrela nahitaz politikoki progresista izatea. Nire lehen liburua argitaratu zenean, zenbait emakume beltz lesbianak kritikatu ninduten, eta zur eta lur geratu nintzen. Homofobia izateaz akusatu ninduten, nire liburuan ez nuelako lesbianismorik aipatu. Baina lesbianismoa ez aipatzeak ez du esan nahi homofobia naizenik. Liburuan ez nuen sexualitateaz hitz egin. Ez nengoen horretarako prestaturik. Artean ez nekien nahikoa gaiari buruz. Eta, gehiago jakin eta gaia liburuan landu izan banu, inork ez nindukeen homofobotzat hartuko.

Haurra nintzela, bihotz oneko lesbiana indartsuek irakatsi zidaten emakumeok ez dugula zertan gizonen mende egon ongizatea eta zoriontasuna er-

diesteko, ez eta zorion sexuala erdiesteko ere. Eta irakaspen horrek gaurdaino iraun dit. Aukera mordo bat zabaldu zitzaigun emakumeoi. Aukerak eta hau-tuak. Ez dugu sekula jakingo zenbat milioika emakume bizi diren gizon menderatzaile sexistekiko harremanetan, besterik gabe ezin dutelako imajinatu zoriontsu izan daitezkeela gizonik gabe, beren bizitzan gizonekin sexualki eta emozionalki asebeteta egon zein ez. Emakume batek sentitzen badu bere buruaz haragoko beste zerbait behar duela bere existentzia legitimatzeko eta zentzua emateko, bere burua definitzeko ahalmena eta bere burujabetza saltzen ariko da. Emakume lesbianek haurra nintzenetik eman zidaten arnasa neure burua definitzeko espazio bat aldarrikatzeko.

Jakinduria horixe ekarri zuten pentsalari lesbiana erradikalek mugimendu feministara. Era berean, baziren emakume heterosexual miresgarri batzuk teoriar bazekitenak zoriona lor genezakeela gizonen oniritzia jaso gabe ere, gizonen baiespen erotikorik izan gabe ere; nolana ere, ez zuten horren zuzeneko lekukotasunik ekarri mugimendura. Mugimendu feminista hasi zenean, «emakumeekin identifikatzen den emakumea» edo «gizonekin identifikatzen den emakumea» esapideak baliatzen genituen lesbianak ez ziren baina beren burua emakumeekin identifikatzen zuten aktibisten artean bereizketak egiteko; horrek esan nahi zuen ez zutela beren existentzia ontologi-koa uzten gizonen baiespenaren mende. Gizonekin identifikatzen ziren emakumeen kasuan, printzipio feministek interferentziarik eraginez gero erromantikotasun heterosexualean, berehala alboratzen zituzten printzipiook. Emakume haiek gizonen alde agertzen ziren emakumeen alde baino gehiago, eta gizonen ikuspegitik begiratzen zieten beti gauza gutxiei. San

Frantziskon emakume-ikasketen lehen eskolak ematen hasi nintzenean, aurrez aurre izan nuen ikasle lesbiana erradikalen talde bat, jakin nahi baitzuten ea zergatik «nengoen» oraindik gizonekin. Egun batean, eskolak amaitu ondoren, liskar bat sortu zen aparkalekuan: ikasle lesbiana beltz heldu bat, sexu-industrian lan egindakoa eta gizonekin sexu-harreman ugari izandakoa nahiz garbi zeukan bera lesbiana zela, nire ohore feministaren alde agertu zen zera esanez: «Emakumeekin identifikatzen den emakume bat da; sexu-harremanak ditu gizonekin, baina eskubidea dauka horretarako, eta kausarekin konprometituta jarraitzen du».

1980ko hamarkadaren erdialdean, feminismoari leial izatea eztabaidagai nagusietako bat izan zen giro feministetan, emakume asko giro horietatik ateratzen hasia baitzen. Emakumeek gero eta eskubide gehiago lortu ahala, pentsalari eta aktibista feminista aurrerakoiek mugimenduaren erradikaltasuna itxuratu zuten; hala eta guztiz ere, haien presentzia eta haien ekarpenak ahaztuta geratzen ziren maiz. Mugimenduko lesbiana erradikal eta adoretuenak langile-klasetik zetozen. Alegia, ez zeukaten titulazio nahikorik esparru akademikoetan gora egiteko. Feminismoaren akademizazioak hierarkia heterosexistak erreproduzitzen zituen: goi-mailako tituluak zeuzkaten emakume heterosexualek errespetu eta begiramen handiagoa izaten zuten, akademiatik kanpo emakumeen mugimenduan sekula parte hartu gabeak baziren ere.

Desberdintasunarekin eta teoria eta praktika feministan arraza eta klasea txertatzearekin loturik, pentsalari lesbiana aurrerakoiek prestutasun handiagoa izaten zuten beren ikuspegiak aldatzeko. Askotan, beren bizipenetan oinarrituta, bazekiten zer zen arau

nagusiak ez betetzeagatik esplotatuak edo zapalduak izatea. Lesbiana aurrerakoi haiek beren burkide heterosexualak baino prestutasun handiagoa zuten supremazismo zuria zalantzan jartzeko. Eta, seguraski, gizonetik loturak indartu nahi zituzten. Emakume heterosexual gehienak, aldiz, feminista aktiboak izan edo ez izan, kezkatuago zeuden gizonekin zituzten harremanekin.

Emakumeok askatasuna lortu dugu nor maitatu nahi dugun eta gure gorputzak eta gure bizitza norekin partekatu nahi ditugun aukeratzeko, eta hori emakume lesbiana erradikalak gayen eta emakumeen eskubideen alde borrokatu izanari zor zaio neurri handi batean. Mugimendu feministan, bai lehen, bai orain, lesbianeek homofobiari aurre egin behar izan diote, koloreko emakumeek arrazakeriari nola, beren sexu-aukera edo -identitatea gorabehera. Feminismoa aldarrikatu eta aldi berean homofobia sustatzen duten emakumeak oker daude, hipokritak dira, ahizpatasuna aldarrikatu eta aldi berean pentsamendu supremazista zuria sustatzen dutenak bezain hipokritak.

Hedabide nagusiek emakume heterosexualak aukeratzeko dituzte beti mugimendu feminista irudikatzen: zenbat eta heterosexualago, hainbat hobeki. Zenbat eta glamour gehiago, hainbat eta erakargarriago gizonentzat. Baina, emakumeekin identifikatzen diren emakumeontzat —izan heterosexualak, izan bisexuak, izan lesbianak—, gizonen oniritzia jasotzea ez da lehentasuna. Horregatik gara mehatxu bat patriarkatuarentzat. Mentalitate patriarkala daukaten emakume lesbianak ez dira emakume feministak —gayak zein heterosexualak— bezain mehatxu handia gizonentzat; izan ere, feministok patriarkatutik eta gizon sexistengandik urrundua dugu gure begirada, gure desira.

Gaur egun, lesbiana gehienek, emakume heterosexualek bezala, ez dute politika erradikalean parte hartzen. Mugimendu feministan aktiboki jarduten duten pentsalari lesbianeiei, askotan, zaila egiten zaie ulertzea emakume lesbianak emakume heterosexualek bezain sexistak izan daitezkeela. «Feminismoa teoria da; lesbianismoa, praktika» ikuspegi utopikoak talka egiten zuen etengabe errealitatearekin: supremazismo kapitalista patriarkalean bizi ziren lesbiana gehienek emakume heterosexualen menderakuntza- eta sumisio-paradigma berak erabiliz eraikitzen zituzten beren bikote-harremanak. Oso zaila zen bi aldeentzako harreman asebetegarriak eraikitzea bietariko bat bestearen mende egon gabe, bai harreman lesbikoetan, bai heterosexualetan. Agerian geratu zelarik harreman lesbikoetan ere bazela etxeko indarkeria, lehen aldiz konturatu ginen sexu berekoen arteko harremanetan ere ez zela bermatzen emakumeen arteko berdintasuna. Era berean, lesbiana feministek askoz ere prestutasun handiagoa zuten jendaurrean beren sexu-jarduera sadomasokistaz hitz egiteko emakume feminista heterosexualek baino.

Sexualitatearen ikuspegi kontserbadorea zuten feministek —bai gayek, bai heterosexualek— desegokitzat jotzen zituzten (eta gaur egun ere jotzen dituzte) menderakuntzazko eta sumisiozko sexu-erritu adostuak, are askatasun-ideal feministen traiziotzat jotzeraino ere. Gaur egun, mugimendu feminista gehien ahultzen duen jarrera feminista kontserbadoreon epai apelaezina da, hots, nola ukatzen duten emakumeek eskubidea izatea gehien asebetetzen dituzten sexu-praktikak aukeratzeko. Emakume askok inoiz ez dute ulertuko bi emakumek sexu-harremanak izatea, inoiz ez dute sexu-desirarik sentituko beste emaku-

me batengana; alabaina, emakumeek aukeratzeko eta lesbiana zein bisexual izateko duten eskubideen alde daude. Eta, era berean, emakume lesbiana eta heterosexual batzuk emakume eta pertsona gehienek parte hartu nahi ez luketen sexu-jardueretan aritzen dira, eta berdin-berdin merezi dute aukeratzeko eskubidea. Feminista kontserbadoreek sadomasokismo lesbikoaz egiten zuten kritikaren atzean, homofobia dago. Emakume bat homofobia sustatzen ariko da baldin eta pentsatzen badu lesbianek beti arau moral zorrotzak bete behar lituzketela onartuak izateko edo heterosexualak eroso sentitzeko. Dena den, emakume heterosexualek aitortu ahala berek ere sexu-sadomasokismoa praktikatzen zutela, kritika feminista asko leundu eta bigundu zen, halako jarduerak soilik lesbianen kontua zirela bazterturik.

Homofobiari aurre egitea beti izango da mugimendu feministaren ardatz bat. Beraz, emakume heterosexualek emakume lesbianak errespetatu ez eta beren mendekotzat hartzen badituzte, ez dugu lortuko emakumeen arteko ahizpatasunik. Mugimendu feminista aurrerakoiak oso aintzat hartzen du aktibista feministen lana. Lesbiana erradikalen ekarpenik gabe, teoria eta praktika feminista ez zatekeen ausartuko heterosexismoaren mugen aurka egiten eta nahi dugun eran aske izateko espazioak sortzen emakume guztiontzat, gure sexu-identitateari edo -aukerari begiratu gabe. Haien ekarpena etengabe aitortu eta eskertu behar litzateke.

HAMAZAZPI

BERRIZ MAITATZEA FEMINISMOAREN BIHOTZA

Gizon eta emakumeok maitasuna zer den jakin nahi badugu, feminismoa irrikatu behar dugu. Izan ere, pentsamolde eta praktika feministarik ezean, ez dugu izango oinarririk maitasunezko harremanik eratzeko. Hasieran, harreman heterosexualek sorturiko desengainuak bultzaturik hartu zuten emakume askok askapenaren bidea. Haietariko asko traizionatuta sentitzen ziren: beren gizonak, maitasunezko promesak eginik eta betiko bizitza zoriontsua agindurik, ezkondu ondoren berehalakoan aldatu, eta printze xarmagarri izatetik etxeko jaun patriarkal izatera igarotzen ziren. Emakume heterosexualok garratzasuna eta amorrua ekarri zituzten mugimendura. Haien larriminak bat egin zuen emakume lesbianenarekin, zeinak babilio patriarkaletan oinarrituriko lotura erromantikoek traizionatuta sentitzen ziren halaber. Ondorioz, maitasunaren gaiari dagokionez, mugimenduaren hasierako feministen aburuz emakumeok maitasun erromantikoari uko egitea zen askatasuna lortzeko modu bakarra.

Kontzientziatze-taldeetan esaten zigutenez, maitasuna irrikatzea sedukziozko iruzur bat besterik ez zen: maitale —emakume zein gizon— patriarkal batekin maitemintzera bultzatuak ginen, baina maitaleok gu azpiratzeko eta menderatzeko baliatzen zuten gero maitasun hori. Ni gizon batekin lehen sexu-harremana izan aurretik sartu nintzen mugimendu feministan, eta zur eta lur geratu nintzen emakume haiek gizonengana adierazten zuten gorroto eta amorru bizia ikusirik. Hala eta guztiz ere, ulertu nuen nondik zetorren amorru hura. Nire kasuan ere, nerabezaroan pentsamolde feministara konbertitzea aitak gure etxean denon gai netik zeukan nagusikeriari emandako erantzun bat izan zen. Militarra zen, atleta, elizako diakonoa, diru-hornitzailea, gonazalea: arau patriarkala gorpuzten zuen. Bertatik bertara ezagutu nuen nire amaren samina, eta altxatu egin nintzen. Amak sekula ez zuen adierazi ez haserrerik ez amorrurik genero-injustizia harengatik, aitaren umiliazio gogorren eta indarkeriaren despit.

Lehen aldiz kontzientziatze-talde batera joan eta nire amaren adineko emakumeei entzun nielarik beren mina, sufrimendua eta amorrua adierazten, zentzuzkoa iruditu zitzaidan azpimarratzea emakumeok maitasunetik aldendu beharra genuela. Nik, ordea, gizon on baten maitasuna nahi nuen, eta sinetsita nengoen aurkituko nuela. Nolanahi ere, garbi neukan gizon horrek konprometituta beharko zuela egon feminismoarekin. 1970eko hamarkadaren hasieran, gizonekin harremanak izan nahi zituzten emakumeek ahalegina egin zuten gizonak pentsamolde feministara konbertitzeko. Gizonak feministak ez baziren, bagenekien zoriontasunak ez zuela iraungo.

Kultura patriarkalean jende gehienak maitasun erromantikotzat hartzen duen horrek kontzientzia

ezero garmatza, eta boterea eta kontrola galtzera. Pentsalari feministek nabarmendu zuten maitasunaren ikuspegi hori gizon eta emakume patriarkalen interesen zerbitzura zegoela. Izan ere, ikuspegi horren arabera, pertsona batek edozer gauza egin dezake maitasunaren izenean: beste norbait jo, haren mugimenduak mugatu, eta are «pasiozko krimen» batean hil eta gero esan «hainbeste maite nuen, hil behar izan bainuen». Kultura patriarkalean, jabegoarekin, menderakuntzarekin eta sumisioarekin lotzen zen maitasuna, eta onartzen zen pertsona batek maitasuna ematea eta beste batek jasotzea zela kontua. Patriarkatua, harreman heterosexisten oinarria zen emakumeek zaintzarako sena zeukatela eta horrenbestez maitasuna eman behar zietela gizonei, eta gizonek, aldiz, boterea eta indarra izanik dirua eta babesa eman behar zietela emakumeei. Dena den, familia heterosexual askotan, gizonek ez zuten behar bezala erantzuten zaintzaren aurrean: beren boterea emakumeak larderiaz zapaltzeko eta kontrolatzeko erabiltzen zuten tiranoak ziren. Hasieratik, emakume heterosexualak beren bihotz-minak gainditzeko etorri ziren emakumeen askapenerako mugimendura, hau da, maitasunaren lokarriak eteteko.

Bestalde, emakumeok berriz ere azpimarratu zuten garrantzitsua zela erabat seme-alabei begira ez bizitzea. Haien ustez, seme-alaben kontua maitasunaren beste trikimailu bat besterik ez zen, emakumeak guztiz autorrealizatzea eragozteko. Feminismoak ohartarazi zigun beren seme-alaben bitartez bizitzen ahalegintzen ziren amak munstro inbaditzaile menderatzaileak zirela eta gai zirela zigor anker eta bidegabeak ezartzeko. Feminismoan engaiatzen ziren neska gazteak beren ama menderatzaileen aurka

altxatzen ziren maiz. Guk arras bestelako bizitza bat nahi genuen. Eta horretarako modu bat zen, hain zuzen, seme-alabarik ez izatea.

Hasieran, feminismoak maitasunari egiten zion kritika ez zen behar bezain konplexua. Maitasunari buruzko ustekizun patriarkal okerrak berariaz zalantzan jarri beharrean, maitasuna bera hartzen zen arazotzat. Maitasunari uko egin, eta haren ordezkubideak eta boterea lortzeko borrokatzen ginen. Garai hartan, inork ez zuen kontuan hartzen gure bihotza era hartan gogortzeak bazuela arriskurik eta emozionalki ixtea ekarriko zigula, matxinada feministaren izenean baztertzen genituen gizon patriarkalen edo marigizonen antzera. Eta horixe gertatu zen. Maitasuna birpentsatu eta haren garrantzia eta balioa azpimarratu beharrean, maitasunari buruzko diskurtso feminista eten zen, besterik gabe. Maitasuna nahi zuten emakumeek —bereziki gizonen maitasuna nahi zutenek— beste toki batzuetara jo behar izan zuten maitasuna nola aurkitu zezaketen ulertzeko. Emakume haietariko asko feministotik urrunduziren, maitasunaren, familia-harremanen eta komunitatean bizitzearen garrantzia ukatzen zitzaizela sentitzen baitzuten.

Horretaz gainera, pentsalari feminista aurrerakoiek ere ez zekiten zer esan emakumeei maitasunari buruz. *Feminist Theory: From Margin to Center* liburuan idatzi nuenez, beharrezkoa zen lider feministek maitasunaren espiritua ekartzea aktibismo feministara: «Gai izan behar lukete maitasuna eta errukitasuna agertzeko, beren ekintzen bitartez maitasuna agertzeko, eta lortu behar lukete horri buruzko elkarrizketa aberasgarri bat bideratzea». «Maitasunak menderakuntza eraldatzen du»ela agertu nuen arren, ez nuen askorik sakondu zein garrantzitsua zen denoi maitasunaren

ikuspegi askatzailea eskainiko zigun teoria feminista bat sortzea.

Atzera begiratzuz, agerikoa da maitasunari buruzko teoria feminista positibo bat sortzen ez badugu (batez ere maitasun heterosexualari buruzkoa) hedabide patriarkalek gorrotoan eta ez maitasunean oinarrituriko politika gisa irudikatuko dutela mugimendu feminista osoa. Gizonekin harremanak izan nahi zituzten emakume askori ezinezkoa iruditzen zitzairen beren harremanak elikatzea eta aldi berean mugimendu feministarekin konprometituta egotea. Egiaz, lau haizeetara zabaldu behar genukeen feminismoan ere posible zela emakume eta gizonek elkarren maitasunaz gozatzea. Orain, badakigu.

Feminismo aurrerakoia politika zentzudun eta maitasunezkoa da. Gure politikaren funtsa menderakuntza deuseztatzeko konpromisoa da. Maitasunik sekula ez da sustraituko menderakuntzan eta larderrian oinarrituriko harreman batean. Maitasunaren ikuspegi patriarkalen gaineko kritika feminista erradikala ez zebilen oker. Hala eta guztiz ere, emakumeok eta gizonek beste zerbaitek behar genuen maitasunaren bidean oker ibiliak ginela kritikatzeari harago: ikuspegi feminista alternatibo bat behar genuen. Gutariko asko maitasuna ezagutzen hasiak ginen gure bizitza pribatuan, praktika feministan sustraituriko maitasuna, baina ez genuen sortu maitasunari buruzko diskurtso feminista orokorrik, hots, ez geneukan maitasunaren aurkako fakzio feministei aurre egiteko diskurtsorik.

Gure ikuspegi alternatiboaren muina egia funtsezko eta beharrezko bat da oraindik ere: ezin da maitasunik egon menderakuntza dagoenean. Pentsamolde eta praktika feministak azpimarratzen du elkarrekin hazteak eta autorrealizatzeak balio han-

dia duela bikote-harremanetan eta gurasotzan. Gure ikuspegiaren arabera, beharrezkoa da harreman bateko kide guztien premiak errespetatzea, kide guztiek eskubideak izatea eta inork ez izatea menderatua izateko edo abusuak sufritzeko inongo beldurrik; alegia, patriarkatuak sustatzen duen harreman-egitura ororen aurka gaude. Gutariko askok gizonen nagusikeria sufritu dugu edo sufrituko dugu gure bizitza intimo pribatuan, gure zaintzaile gizon, aita edo anaien aldetik, edo, emakume heterosexualen kasuan, bikotekideen aldetik. Egiaz, emakume eta gizonen ongizate emozionala nabarmen hobetuko litzateke bikotekideek beti bat egingo balute pentsamolde eta praktika feministarekin. Egiazko feminismo batek beti eramango gaitu lotutasunetik askatasunera, maitasun faltatik maitasunera. Eta, gure gizarteko justizia sozialaren aldeko mugimenduen artean, praktika feminista da bakarra mutualitatea elikatzeko aukera ematen duena.

Onartzen badugu egiazko maitasuna elkarren aitortzan eta onespenean sustraitua dela, onartzen badugu maitasunak begirunea, zaintza, ardura, konpromisoa eta jakintza uztartzen dituela, ulertuko dugu ezin dela maitasunik egon justiziarik ez badago. Horretaz kontziente izanez gero, ulertuko dugu maitasunak baduela gu eraldatzeko ahalmena eta indarra ematen digula menderakuntzaren aurka egiteko. Feminismoa aukeratzea, beraz, maitasuna aukeratzea da.

HEMEZORTZI

ESPIRITUALTASUN FEMINISTA

Feminismoa beti izan da (eta hala da gaur egun ere) praktika espiritualari balioa aitortzen dion erresistentzia-mugimendu bat. Teoria eta praktika feministari esker, kontzientzia osoa hartu nuen geure burua maitatzearen eta onartzearen premia, autorrealizaziorako bide gisa; dena den, aurretik ere ibilia nintzen mezu haietara berberetara ninderamaten bide espiritualetan barrena. Gizonek gidaturiko erlijioak sexistak ziren arren, emakumeok kontsolamendurako eta babeserako eremu bat aurkitu dugu praktika espiritualetan. Mendebaldeko Elizaren historian, emakumeek tradizio monastikoetara jo izan dute gizonen bitartekaritzarik gabe Jainkoarekin elkartzeko eta gizonen nagusikeriatik at Jainkoari zerbitzu egiteko leku baten xerka. Norwicheko Ama Juliana idazle mistikoak begirada zoliz eta argitasun jainkotiarrez idatzi zuen honako hau, feminismo garaikidea sortu baino askoz lehenago idatzi ere: «Gure salbatzailea gure egiazko Ama da: harengan sortzen gara behin eta berriz, eta sekula ez gara harengandik aterako». Alegia, gure

salbamena beti eta bakarrik gizon baten esku dagoela dioen ikuspegiaren aurka, feminitate sakratuaren itzulerako bidaia marraztu zuen Norwicheko Julianak, eta horrek erlijio patriarkalen lokarrietatik askatzen lagundu zien emakumeei.

Mugimendu feministak hasieratik erlijio patriarkalari egindako kritikak eragin sakona izan zuen gure herrialdean, erlijio-gurtzaren izaera aldatzeraino. Hala, agerian utzi zuen nola baliatzen zen Mendebaldeko dualismo metafisikoa (hau da, mundua kategoriatan bitarren arabera uler daitekeela beti, beti baidirela goragoko bat eta behegoko bat, bata ona eta bestea txarra) orotariko zapalkuntza kolektiboetarako, sexismorako, arrazakeriarako eta abarretarako oinarri ideologiko gisa, eta nola pentsamolde horixe zegoen sinesmen-sistema judu-kristauen oinarrian. Gure gurtza aldatzeko, beharrezkoa zen espiritualtasuna birplanteatzea. Erlijio patriarkalaren gaineko kritika feministen garai berean, aldaketa kultural orokor bat suertatu zen New Ageko espiritualtasunerantz: mendeetan zehar Mendebaldeko arimak pentsamendu kristau fundamentalistaren mendean egon ondoren, hura alboratu eta Ekialdera jo zuten New Ageko giro espiritualetako praktikanteek, erantzun bila. Bekatuan eta erredentzioan funtsaturiko espiritualtasun patriarkalaren ordean, Kreazioaren espiritualtasuna² nagusitu zen. Emakumeei jainkosen irudiak aurkitu zituzten hinduismoan, budismoan, budismoan eta beste tradizio espiritual batzuetan, eta horrek jainkosak ardatz zituen espiritualtasun batera itzultzeko aukera eman zien.

2 Kreazioaren espiritualtasuna: sinesmen ez-dualista, holistikoa, ekumeniko, feminista eta ekologikoa, gizakiaren eta naturaren arteko lotura sakratutzat hartzen duena.

Mugimendu feministaren hasieran, gatazkak piztu ziren aktibista batzuek defendatzen zutelako mugimenduak politikoa behar zuela izan, erlijioa alde batera utzirik. Politika sozialista tradizionaletik feminismo erradikalera iritsi ziren emakume asko eta asko ateoak ziren. Femenitate sakratuaren ikuspegira itzultzea jarrera apolitiko eta sentimentala iruditzen zitzairen. Dena den, mugimenduaren barneko zatiketa horrek ez zuen askorik iraun, emakume asko berehala hasi baitziren ohartzen erlijio patriarkalari aurre egitea eta espiritualtasun askatzailearen alde egitea bat zetozela. Estatu Batuetako herritar gehienek kristautzat daukate beren burua. Kristau-doktrinak, zeinak sexismoa eta gizonen nagusikeria sustatzen baititu, beste edozein fede erlijiosok baino areago gorpuzten du nola gureganatzen ditugun genero-rolak gizarte honetan. Egian, gure kulturaren ez da izango eraldaketa feministarik gure erlijio-sinesmenak eraldatzen ez baditugu.

Kreazioan oinarrituriko espiritualtasun kristauaren pizkundera mugimendu feministarekin batera gertatu zen. Matthew Foxek honela azaldu zuen *Original Blessing* [Jatorrizko bedeinkazioa] lanean: «Erlijio patriarkalak eta erlijioen paradigma patriarkalak nagusi izan dira munduko zibilizazioetan azken 3.500 urteetan gutxienik. Kreazioan oinarrituriko tradizioa feminista da. Halako espiritualtasun motetan, jakinduriari eta erosari balio handiagoa ematen zaie ezagutzari edo kontrolari baino». Naturaren/ekologiaren eta eskubide zibilen alde diharduten feministen arteko tentsioei dagokienez, Foxek dio halako dualismoak alferrikakoak direla:

Justiziaren aldeko mugimendu politikoak kosmosaren garapenaren goren-gorenean daude, eta natura, berriz, gizakiak autokontzientziarako eta eraldaketarako daukan

ahalmenaren gaineko kontzientziara iristeko oinarria da. Askapen-mugimenduek kosmosaren harmoniaren, orekaren, justiziaren eta ospakizunaren zentzua areago garatzea dakarte. Hori dela eta, askapen espiritualak ospakizun eta sendabide kosmikorako erritualak behar ditu, pertsonen eraldaketa eta askapena dakarten heinean.

Askapenaren teologiaren arabera, talde esplotatu eta zapalduak askatzea funtsezko fede-ekintzak dira, Jainkoaren nahiaren onespenezko erakusgarriak. Patriarkatuaren aurkako borrokak Jainkoak aginduak dira.

Erlijio patriarkal fundamentalista oztopo izan da beti (eta hala da gaur egun ere) pentsamendu eta praktika feminista hedatzeko. Ez dago feministak gehiago laidoztatu dituenik fundamentalista erlijioso eskuindarrak baino; areago, pentsalari feministak —batik bat emakumeen ugalketa-eskubideen aldekoak— hiltzea sustatu eta onetsi izan dute. Hasieran, feministek kristautasunari eginiko kritiken ondorioz, emakume ugari mugimendutik aldendu zen. Nolanahi ere, emakume kristau feministak Bibliaren eta kristau-sinesmenen kritika eta interpretazio berriak —Kreazioan oinarrituak— eskaintzen hasi zirenean, emakume asko gai izan ziren feminismoa eta kristau-praktikarekiko konpromisoa uztartzeko. Hala eta guztiz ere, oraindik ez dute lortu mugimendu bat antolatzea kristau sines-tunek uler dezaten ez duela zertan gatazkarik egon feminismoaren eta kristau-espirtualtasunaren artean. Gauza bera gertatzen da feminista judu, budista, musulman eta abarrekin. Hori hala den bitartean, erlijio patriarkal antolatuak beti gutxietsiko ditu lorpen feministak.

Hasieran, feminismo garaikideak eskubide zibilei eta lorpen ekonomikoei eman zien lehentasuna,

espiritualtasuna kontuan hartu gabe. Erlijioaren gaineko kritika feministak lekua izan zuen hedabide nagusietan, baina ez zegoen interesik zenbait emakume feministaren pizkunde espiritualaren berri emateko. Jende askok eta askok gaur egun ere pentsatzen du feminismoa erlijioaren aurka dagoela. Baina, egiaz, feminismoak pentsamendu erlijioso patriarkala eraldatzen lagundu du, eta, horrenbestez, gero eta emakume gehiagok lortzen dute hura sakratuarekin lotzea eta bizitza espiritualari atxikitzea.

Maiz, familia edo bikote barneko eraso patriarkalen kalteak sendatzeko saio terapeutikoetan, praktika espiritual feminista aitortzen eta onartzen zen. Alegia, emakume askok terapia feministari esker berretsi zuten beren bilaketa espiritualak. Arimaren bilaketa hori esparru pribatuan garatu ohi denez, jendeak ez daki zenbateraino onartzen duten orain aktibista feministek beharrezkoa dela espirituaren eta bizitza espiritualaren premiak kontuan hartzea. Etorkizuneko mugimendu feministan, estrategia hobek beharko ditugu espiritualtasun feministari buruzko informazioa partekatzeko.

Bide espiritual alternatiboak aukeratzeak emakume askori lagundu die bizitza espiritualarekiko konpromisoari eusten, bai eta, aldi berean, erlijio patriarkalari aurre egiten eta hura zalantzan jartzen ere. Esku-hartze feministei esker, Eliza edo tenplu instituzionalizatu patriarkala aldatu da. Dena den, azken urteetan, Eliza atzera egiten hasia da genero-ekitaterantz lorturiko aurrerapausoetan. Zenbat eta fundamentalismo erlijioso gehiago, orduan eta mehatxu handiagoa espiritualtasun progresistarentzat. Fundamentalismoak, batetik, desberdintasuna «berezkoa» dela sinestera bultzatzen du jendea, eta, horretaz

gainera, emakumeen gorputzaren gaineko kontrola beharrezkoa izatea betikotzen du. Horregatik egiten die eraso ugalketa-eskubideei. Era berean, fundamentalismo erlijiosoak sexualitatearen gaineko ikuspegi errepresiboak inposatzen dizkie emakume eta gizonei, hau da, ontzat ematen da orotariko sexu-larderia baliatzea. Garbi dago oraindik ere premiazkoa dela aktibista feministek erlijio antolatua kontuan hartzea, indarrean dagoen kritikarekin eta erresistentziarekin bat egiteko.

Gaur egun, feminismoa sostengatzen duten tradizio espiritual ugari daude, zoragarriak denak, baina jende askok eta askok ez dauka modurik halako praktikak ezagutzeko ere. Askotan, jendeari iruditzen zaio erlijio patriarkala dela norberaren ongizate espiritualala zaintzeko esparru bakarra. Erlijio patriarkalak trebetasun handiz erabili ditu hedabideak —telebista batez ere— bere mezua zabaltzeko. Bide espiritual alternatiboek ere gauza bera egin behar lukete, baldin eta gezurtatu nahi badugu erlijio patriarkala dela bide bakarra. Espiritualtasun feministak esparru berri bat zabaldu zuen, jendeak sinesmen-sistema zaharkituak zalantzan jar zitzaiz eta bide berriak ireki zitzaiz. Jainkoa hainbat erataria irudikatuz eta feminitate sakratua errespetatuz, aurkitu ditugu bizitza espiritualala zein garrantzitsua den berresteko (edo berriz berresteko) bideak. Edozein menderakuntza eta zapalkuntzatatik askatzea oinarrizko bilaketa espiritualtzat hartuz gero, lortuko dugu praktika espiritualala eta justiziaren eta askapenaren aldeko borrorak uztartzea. Betetasun espiritualaren gaineko ikuspegi feminista da benetako bizitza espiritualaren funtsa.

HEMERETZI

FEMINISMO AURRERAKOIA

Benetan aurrerakoiak izan nahi badugu, gure errealitate konkretuari begiratu behar diogu, baina, aldi berean, baita errealitateaz haragoko aukerei ere. Feminismo garaikidearen indargunerik behinena formaz eta norabidez aldatzeko gaitasuna izan da. Bide eta pentsamolde zaharkituei eutsiz gero, justizia sozialaren aldeko mugimenduek porrot egiten dute. Feminismo aurrerakoiaren sustriak 1960ko hamarkadaren hasieran bilatu behar dira. Emakumeen askapenerako mugimenduaren hasiera-hasieran, pentsalari aurrerakoiek mugimendu politiko erradikal/iraultzaile bat zuten amets: batetik, fase erreformista batean, emakumeen eskubide zibilak bermatuko zituzten orduko sistema patriarkal supremazista zuri kapitalistaren barnean; bestetik, baina, sistema hori bera ahultzeko eta eraisteko lan egin beharko zuten. Menderakuntzazko kulturaren ordezkari ekonomia parte-hartzailean oinarrituriko mundu bat eratzea zuten amets, komunalismoa eta demokrazia soziala ardatz hartuta: arraza- edo genero-diskriminaziorik gabeko mundu bat, mutualitatearen

eta interdependentziaren onarpena *ethos* nagusitzat izango zuena, eta, azken batean, ikuspegi global ekolo-giko bat, planetak bizirik iraun zezan eta hartan bizi ziren guztiek bakea eta ongizatea lor zezaten.

Mugimenduak aurrera egin ahala, ikuspegi feminista erradikal/iraultzaileak gero eta argiagoak eta konplexuagoak bilakatu ziren. Nolanahi ere, askotan, feminista erreformisten absolutismoak ikuspegiok lausotu zituen, aldaketak orduko ordena sozialaren barnean lortzea baitzen haien helburua. Genero-diskriminazio ekonomikoa aldatu nahi zuten aktibista feminista erreformista batzuek klase pribilegiatueto gizonetikiko berdintasuna lortu nahi zuten; beste batzuek, aldiz, aldaketa zehatzagoak eta esanguratsuek nahi zituzten emakumeentzat, ahalegina erreformak lortzera bideratuz. Borroka feministak bere muin erradikala alde batera utzi zuenean, mugimendua ahuldu egin zen patriarkatu kapitalista nagusiaren kooptazioaren aurrean.

Behin ordena sozialean gora egitea lortu zutenean klase-botereak edo klase-mugikortasun handiuek erakarrik, emakume gutxi eutsi zioten sistema suntsitzeko borrokari. Carol Gilligan-ek eta beste pentsalari feminista batzuek behin eta berriz esaten digute emakumeak maitekorragoak eta etikoagoak direla, baina, ikusirik zer jarrera izaten duten botere gutxiagoko beste emakume batzuekin, kontra-koa pentsa genezake. Arraza edo talde etniko batekin identifikatuz gero, emakumeek maitasunez eta etikaz jokatzen dute, baina, enpatiarik, identifikaziorik edo solidaritaterik sentitzen ez badute, ez dute era berean jokatzen. Emakume pribilegiatuak (haietariko asko zuriak, baina ez denak), beraz, beren mendean izan nahi dituzte emakume pobre eta langile-klasekoak.

Feminismo aurrerakoia ren funtsezko helburu bat emakume guztien patua aldatzeko estrategiak sortzea eta haien botere pertsonala areagotzea izan zen. Horretarako, baina, beharrezkoa zen berdintasun- eskubideetatik harago joan eta oinarritzko beste gai batzuk lehenestea, hala nola emakume guztientzako (baina batez ere pobreentzako) alfabetizazio-kanpainak antolatzea. Ez dago eskola feministarik, ezta unibertsitate feministarik ere. Eta ez da ahalegin berezirik egin halako erakundeak sortzeko. Karrera profesionalaren arloko diskriminazio positiboko programek mesede egin zieten emakume zuri ikasiei, indarrean zeuden egituren barnean betiere, eta, horrenbestez, ez zuten inongo motibaziorik printzipio feministetan oinarrituriko erakundeak sortzeko. Halako erakundeek sekula ez zuketzen izango soldata alturik ordaintzeko ahalik. Nolanahi ere, aktibista feminista aberatsek ez dute dirurik eman oinarritzko hezkuntzarik ere jasotzen ez duten emakume eta neskentzako hezkuntza-programak finantzatzeko.

Pentsalari feminista aurrerakoiek garbi daukate mugimendu feminista zabal bat behar dugula, neska-mutil eta emakume-gizonen beharrak aintzat hartuko dituen, klaseez harago; alabaina, oraindik ez da gauza askorik idatzi teoria feminista aurrerakoi horri buruz, ez behintzat hizkuntza ulergarri batean, ez eta horri buruz hitz egin ere. Gaur egun, testu-guru akademikoetan teoria feministaz idazten den gehiena hizkuntza jaso erabiliz idazten da, jende ikasiak bakarrik irakurtzeko moduan. Gure gizarteko jende gehienak ez dauka gutxieneko ezagutzarik ere feminismoari buruz; ez dauka materialik edo oinarri-oinarritzko eskulibururik eskura, ez baita halakorik existitzen. Denontzako moduko mugimendu feminista

bat berreraiki nahi badugu, nahitaez sortu beharko ditugu halako baliabideak.

Feminismoaren aldezleek ez dute baliabiderik jarri telebista-kanalak edo telebista-programa iraunkorrak izan ditzagun. Irrati eta telebistetan ez dago albistegi feministarik. Feminismoaren ahotsa zabaltzen aritu ginenean, zailtasunetako bat izan zen genero femeninoarekin zerikusia zuen oro feministatzat hartzen zela, are tartean ikuspegi feministarik ez zegoenean ere. Baditugu generoarekin loturiko gaiak jorratzen dituzten irrati- eta telebista-programa gutxi batzuk, baina horrek ez du esan nahi feminismoa goraiatzan dutenik. Ironikoa bada ere, feminismo garaikidearen lorpenetako bat izan da edonor prest egotea generoaz eta emakumeen kezkez hitz egiteko, baina, berriz ere, ez nahitaez ikuspegi feminista batetik. Mugimendu feministak, esate baterako, iraultza kultural bat ekarri zuen, eta, hari esker, gure gizartea gai izan zen gizonen emakume eta haurren aurka erabiltzen duten indarkeriaren arazoari aurre egiteko.

Hedabideetan etxeko indarkeria era askotara agertzen den arren eta alde bateko eta besteko eztabaidak izaten diren arren, ez da ohikoa jendeak gizonen indarkeria eta gizonen nagusikeria lotzea, hau da, bata deuseztatzeko beharrezkoa dela bestea deuseztatzea, patriarkatua eraistea. Gure herrialdeko herritar gehienek oraindik ez dute ulertu zer lotura dagoen gizonen nagusikeriaren eta etxeko indarkeriaren artean. Eta hori agerian geratzen da gure herrialdeak erantzun bat eman behar duenean klase guztietako gizon gazteek beren senitarteko, lagun edo eskolako adiskideak hiltzen dituztelako. Hedabideetan agertu ohi denez, jendeak indarkeria horren zergatikoaz galdetzen du, baina sekula ez du lotzen pentsamolde patriarkalarekin.

Kontzientzia kritikoa lantzeko heziketa feminista orokor bat behar da. Zoritxarrez, klase-elitismoak pentsamendu feministaren noranzkoa lausotu du. Pentsalari eta teorialari feminista gehienek unibertsitateko esparru elitistan egiten dute beren lana. Gehienok ez dugu idazten haurrentzako libururik; ez dugu eskoletan irakasten; ez dugu presio-talde indartsurik sortu eskola publikoan irakasten dena ikuspegi konstruktibo batetik aldatzeko. Ni neu haurrentzako liburuak idazten hasi nintzen hain zuzen ere denontzako moduko pentsamendu feminista jorratuko zuen mugimendu feminista bateko partaide izan nahi nuelako. Audioliburuei esker, adin guztietako pertsonengana irits zitekeen mezua, are irakurtzen edo idazten ez zekitenengana ere.

Mugimendua eraberritzeko, berriz hasteko, beharrezkoa da feminismoaren mezua atez ate zabaltzea, oinarriko premisatzat hartuz feminismoak erradikala izan behar duela nahitaez. Eta, askotan erradikaltasuna zokoratua denez gure artean, ahal dugun guztia egin behar dugu feminismoa ezagutzera emateko eta haren ahotsa lau haizeetara zabaltzeko. Feminismoa, sexismoa eta menderakuntza eta zapalkuntza sexista deuseztatzeko mugimendu bat den heinean, genero-diskriminazioaren aurkako eta berdintasunaren aldeko ahaleginak batzen dituen borroka bat den heinean, mugimendu erradikal bat da funtsean.

Aktibista feministak sexismoaren aurkako borroka alboratzen eta soilik erreformei erreparatzen hasi zirenean, nahasmendua sortu zen berezko erradikaltasun horren inguruan. «Feminismoen ugaritasun»aren ikuspegia aurreratuz, estatus eta klase-botere pribilegiatua lortu nahi zuten emakumeek beren interes

politiko kontserbadore eta liberalen alde egin zuten, eta *botere-feminismo* terminoa erabiltzen lehenetakoak izan ziren. Halaber, defendatzen zuten posible zela feminista izatea eta abortuaren aurka egotea. Horra beste ikuspegi oker bat. Emakumeoi gure gorputzaren gaineko kontrola izateko eskubide zibila bermatzea oinarrizko printzipio feminista bat da. Emakume batek abortatzea edo ez abortatzea erabaki-kontu bat da. Ez abortatzeko aukera egitea ez da antifeminista izatea, gure ustez. Baina printzipio feminista bat da emakumeok aukeratzeko eskubidea izatea.

Klaseen arteko harreman parasitarioek eta aberastasunarekiko eta boterearekiko grinak bultzaturik, emakumeek traizio egin diete emakume pobre eta langile-klasekoen interesei. Garai batean pentsamolde feminista babestu zuten emakume haiek ongizatearen aurkako politika publikoak babesten dituzte gaur egun. Ez zaie iruditzen hori kontraesankorra denik. Bestetik gabe, beren «marka» erantsi diete feminismoari. Feminismoa bizimodu edo produktu gisa aurkezteak automatikoki ezkutuan uzten du feminismoaren garrantzia. Gaur egun, emakume askok eskubide zibilak nahi dituzte feminismoari gabe. Esparru pribatuan sistema patriarkalak bere horretan irautea nahi dute, eta, era berean, esparru publikoan berdintasuna bermatzea. Baina pentsalari feminista aurrerakoiek mugimenduaren sorreratik ulertu zuten emakumeak babesik gabe geratuko lirakeela patriarkatuarekin bat eginez gero eta are patriarkatuak mugimendu feministaren alderdi batzuk onetsiz gero (emakumeak lan-munduan sartzea, adibidez). Gure ustez, gure bizitza gobernatzeko duten sistemak errotik aldatu gabe lortzen diren eskubideak oso erraz gal daitezke gero-ra. Eta horren erakusgarri dugu ugalketa-eskubideekin

—batik bat abortuarekin— gertaturikoa. Frogatuta dago patriarkatuaren barnean eskubide zibilak lortzea arriskutsua dela, emakumeoi pentsarazten baitigute gauden baino hobeki gaudela, menderakuntzazko egiturak aldatzen ari direla. Egiaz, baina, emakumeak feminisмотik urrundu ahala, egitura horiek sendotu egiten dira berriz.

Muturreko kontraeraso antifeministak ere ahuldu du mugimendu feminista. Kontraeraso horren zati handi bat emakume oportunistak kontserbadoreek feminismoa egurtu eta malurtu izanari zor zaio. Adibide gisa, Danielle Crittendon-ek oraintsuko *What Our Mothers Did Not Tell Us: Why Happiness Eludes the Modern Woman* [Gure amek kontatu ez zigutena: zergatik ez diren zoriontsuak emakume modernoak] liburuan idatzi du emakumeok etxean geratu behar genukeela haur osasuntsuak hazten, onartu behar genukeela gizonen eta emakumeen psikeak desberdinak direla berez eta, oroz gain, feminismoa akats bat dela. Feminismoa kritikatzeko dutenek mugimenduari eransten diote emakume modernoaren asegabetasunaren errua. Ez dute sekula hitz egiten patriarkatuaz, gizonen nagusikeriaz, arrazakeriaz edo klase-esplotazioaz. Liburu antifeministak hizkuntza ulergarri batean idatzita egon ohi dira, eta irakurle askorengana iristen dira; aldiz, ez dugu sortu haien mezua indargabetzeko gai den teoria feminista egokirik.

Feminista erradikalekin hitz egiten dudanean, bereziki adin ertainekoekin —35 urtetik 65era bitartekoekin—, lekukotasun ederrak entzuten ditut feminismoaren eragin konstruktiboaz. Funtsezkoa da hori guztia dokumentatzea, lekukotasun baliagarriak baitira ikusteko zein oker dauden feminismoak emakumeon bizitza zailtzea besterik ez duela lortu

diotenak. Emakumeon bizitza biziki konplikatu duena, aldiz, zera da: pentsamendu eta praktika feministak sistema patriarkalaren pentsamenduaren eta ekintzen barnean daudela oraindik ere; alegia, funtsean ez dela gauza askorik aldatu.

Feminista aurrerakoiek beti jo dute beharrezkotzat gizonak feminismora konbertitzea. Badakigu munduko emakume guztiak feminista bihurtu eta gizonak sexismoari eusten segituko balute ere gure bizitzak mugatuta egongo lirатеkeela. Genero-gatazka araua izango litzatekeela. Gizonak gure burkide gisa onartzeari uko egiten dioten aktibista feministek—zeinek beldur irrazionala baitiote gizonak feminismotik etekina ateratzeari eta horrenbestez emakumeok etekinok galtzeari— jendeak sexismoari susmo txarrez eta erdeinuz begiratzea ekarri dute. Eta, batzuetan, emakume gizon-gorrotatzaileek nahiago dute feminismoak aurrera ez egitea, berek gizonekin dituzten auziei heldu baino. Ezinbestekoa da gizonak feminismoaren bandera altxatzea eta patriarkatuari aurre egitea. Planetako bizitza segurtatu eta babestu nahi badugu, beharrezkoa da gizonak feminismora konbertitzea.

Edozein adinetako emakume edo gizonak sexismoa deuseztatzearen alde lan egiten duen aldiro, mugimendu feministak aurrerapauso bat ematen du. Horretarako, ez da nahitaezkoa erakundetan antolatzea; gauden lekutik ere lan egin dezakegu feminismoaren alde. Etxetik edo bizi garen tokitik has gaitzke feminismoa lantzen, geure burua eta gure ingurukoak heziz. Orain arte, mugimendu feministak ez digu eskaini aldaketarako nahikoa jarraibide, ez emakumeoi, ez gizonei. Feminismoa gure helburu eta norabideen inguruko ustekizun multzo baten gainean

eraikia da, eta, horregatik, aldaketa feminista lortzeko estrategiek malguak izan behar dute.

Ez dago feminismorako bide bakar bat. Zenbat testuinguru, hainbat teoria feminista; alegia, bakoitzak bere bizitzari buruz diharduen teoria bat behar du. Emakume pentsalari beltza naizen aldetik, uste dut funtsezkoa dela beltzen bizitzako genero-rolak kritikotasunez aztertzea, hartara ikusiko baitugu zer behar eta estrategia espezifiko landu behar diren beltz guztiok ohartu gaitezen zein garrantzitsua den borroka feminista gure bizitzan.

Feminismo erradikal aurrerakoiak gure bizitza generoaren, arrazaren eta klasearen ikuspegitik ausardiaz aztertzeraz bultzatzen gaitu, hala jakingo baitugu zehatz-mehatz zer posizio daukagun patriarkatu supremazista zuri kapitalista inperialistaren barnean. Hainbat urtean, emakume feminista askok pentsatu izan dute —oker pentsatu ere— generoa dela beren estatusa baldintzatzen duen faktore bakarra. Ukapen hori etetea funtsezko inflexio-puntua izan zen feminismoarentzat. Izan ere, emakumeok konturatu ginen arraza- eta klase-aurreiritzien arabera sorturiko emakumeen mugimendu hark ez gintuela emakume guztiak kontuan hartzen.

Orain, prest gaude borroka feminista eraberritzeko. Mugimenduak denoi erakutsi zigun patriarkatua mehatxu bat dela emakume eta gizonen ongizaterako, eta horregatik etorri da, hain zuzen, kontraeraso antifeminista. Mugimendu feministak zintzoki azaldu ez balu zein arriskutsua zen sexismoa eta gizonen nagusikeria betikotzea, porrot egingo zukeen. Ez zatekeen beharrezkoa izango inongo kanpaina antifeministarik antolatzea. Hedabideek etengabe zabaltzen dute gizonak eskola feministetan ongi etorriak ez direlako

gezurra, baina egia dena da gero eta gizon gehiagok ikasten dutela pentsamendu feminista eta gero eta gehiago konbertitzen direla pentsamolde feministara. Aldaketa esanguratsua da hori mugimendu feministaren barnean, eta are mehatxu handiagoa patriarkatuarentzat. Gorago esan bezala, mugimenduaren arretagune bakarra emakumeak izan bagina, *status quo* patriarkalak bere horretan iraungo zukeen, eta ez zegokeen inongo beharrik feminismoa hain gogor larrutzeko.

Hedabide patriarkalek eta lider sexistek behin eta berriz esaten digute feminismoa hila dela, dagoeneko ez duela zentzurik. Baina, egiaz, adin guztietako eta toki guztietako emakume eta gizonek borroka bizian dihardute genero-berdintasunarekin loturiko aferen alde; rol mugatzaile eta murriztaileen gainetik, rol askatzaileak bilatzen dituzte; eta erantzun bila jotzen dute feminismora. Feminismo aurrerakoiak esperantza ematen digu etorkizunera begira. Pentsamolde feministak, mutualitatean eta interdependentzian oinarrituriko etikaren bitartez, menderakuntza deuseztatzeko bide bat eskaintzen digu, eta, aldi berean, baita desberdinkeriaren ondorioak aldatzeko modua ere. Mutualitatea araua izanez gero, gerta liteke batzuetan dena berdintasuna ez izatea, baina desberdinkeria horren ondorioa, nolnahi ere, ez da izango ez menderakuntza, ez kolonizazioa, ez deshumanizazioa.

Feminismoa, sexismoa eta esplotazio eta zapalkuntza sexista deuseztatzeko mugimendu bat den aldetik, bizirik eta egoera onean dago. Masamugimendurik ez daukagun arren, mugimendua eraberritzea da gure helburu nagusia. Mugimendu feministak gure bizitzan esanguratsua izaten segi dezan, etengabe egin eta berregin behar dugu teoria feminista

aurrerakoia, bizi garen lekuan eta denboran hitz egin diezagun. Emakume zein gizonek aurrerapauso handiak eman dituzte genero-berdintasunerantz. Eta askatasuneranzko aurrerapausook indarra emango digute aurrera jarraitzeko. Ausardia izan behar dugu iraganetik ikasteko, eta etorkizunaren alde lan egin, printzipio feministek gure bizitza publiko eta pribatuko alderdi guztiak sendotu ditzaten. Feminismoaren helburua menderakuntza deuseztatzea da, aske izan gaitezen garena izateko, justizia maitatuz eta bakean bizi ditzagun gure bizitzak. Feminismoa denon kontua da.

Katakarak argitaletxearen liburuak

Saiakera bilduman:

ASKATASUNA, ETENGABEKO BORROKA BAT

Ferguson, Palestina eta mugimendu baterako oinarriak

Angela Y. Davis

Aurkezpena: Cornel West

Sarrera: Frank Barat

Itzulpena: Amaia Apalauza, Iñigo Roque, Garazi Ugalde

EUROPAR MEZULARIA

Burujabetza eta demokrazia XXI. mendean

Robert Menasse

Hitzaurrea: Asier Blas

Itzulpena: Eneko Aizpurua

SOLDATAREN PATRIARKATUA

Marxismoari egindako kritika feministak

Silvia Federici

Itzulpena: Amaia Astobiza

EMAKUMEAK, KULTURA ETA POLITIKA

Angela Y. Davis

Itzulpena: Fermin Zabaltza, Itziar Diez de Ultzurrun, Xabier Olarra, Estibaliz

Lizaso, Joxe Mari Berasategi

KARTZELAKO GUTUNAK SOPHIE LIEBKNECHTI

Ordena gailendu da Berlinen

Rosa Luxemburg

Itzulpena eta hitzaurrea: Amaia Lasa

Hitzostea: Ignazio Aiestaran

FEMINISMOA DENON KONTUA DA

Politika pasio

bell hooks

Hitzaurrea: Mari Luz Esteban

Itzulpena: Amaia Apalauza

Narratiba bilduman:

NAGUSIA KANPOAN BIZI DA

Takiji Kobayashi

Hitzaurrea: Iñigo Aranbarri

Itzulpena: Hiromi Yoshida

FILIALA

Sergei Dovlatov

Hitzaurrea: Miquel Cabal

Itzulpena: Amaia Apalauza, Aroa Uharte

MARI-MUTIL HANDI BATEN BLUESA

Leslie Feinberg

Itzulpena: Fermin Zabaltza

MICHAEL KOHLHAAS

Heinrich von Kleist

Hitzaurrea: Joseba Sarrionandia

Itzulpena eta sarrera: Xabier Mendiguren

